

LLET Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen Plan estrategikoa 2014-2020



REGION
Nouvelle-
Aquitaine



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Nafarroako
Gobernua
Gobierno
de Navarra

LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea
AECT Eurorregión Aquitania-Euskadi-Navarra
GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre

> Eguneratzea

2014ko abenduan, Euroeskualdeko gobernuek "2014-2020 Plan Estrategikoa" onartu zuten eta honako hau zehaztu zuten hitzaurrean: "Denadela, ez da dokumentu aldaezin bat. Aitzitik, bilakatu egingo da egikaritzen denean, egoeraren arabera premiak kontuan hartuta. Gainera, lurralde-antolamendu berri etara egokituko da, eta zabalik egongo da bere garapenean eta betetzean parte hartu nahi duten edota gure Euroeskualdeko lankidetzarako gune bateratu nahi duten guztientzat".

Orduraz geroztik, Frantziako lurralde-erreformak eskualdeetan eragina izan du eta Euroeskualdeak gaur egun osatzen duen beste kide bat du. Limousin, Poitou-Charentes eta Nafarroako Foru Erkidegoko lurraldeak 2011ko abenduan sortutako lan-eremuan sartu dira.

Gaur egun, ia 9 milioi biztanle dituen eta Europar Batasuneko biztanleriaren %2 ordezkatzen duen lankidetzak-esparrua da. Ereku berri horrek Plan Estrategikoaren eguneratzea merezi du, sartu diren lurraldeen itzaropenak entzuteko eta masa kritikoaren ondorioak biltzeko baliabideak izateko.

Ez dena aldatzen, ordea, Europar lurraldeetako eraikuntzan parte hartzeko borondatea da, lankidetzako funtsezko eragileak mobilizatuz. 2014. urtean aurreikusitako lehentasunak, kontsulta eta lan prozesu zabal baten ondoren berretsi dira: Euroeskualdearen herritartasuna, Ezagutzaren Ekonomia, Lurralde Iraunkorra (eta batez ere mugikortasuna), Gobernantza.

Eguneratze honek aktoreen "estutu eta sakontzeko" nahia ere jasotzen du, funtsezko arloetan mobilizazio eta integrazio maila handiagoa lortzeko: eleaniztasuna, kultura, sormen industriak, ikasleen mugikortasuna, berrikuntza estrategia partekatutak, enplegua (batez ere mugazgaitasuna), formakuntza, trenbide sistemen arteko lotura, garapen iraunkorra, klima aldaketaren aurkako borroka, etab.

Aurkezten dugun plana 2020. urtetik aurrera proiektatu behar da, eta lurralde-lankidetzarako espazioan eta Europa mailan dauden proiektuak garatzera eraman behar gaitu.

Lurralde eremuko gizarte-kohesioari laguntzen dio, mugazgaitasun harremanetan eta Europaren eraikuntzaren sendotze prozesuan parte hartuz.


Uxue Barkos
Nafarroako Foru Erkidegoaren
Presidentea
Akitania-Berria Euskadi Nafarroa
Euroeskualdeko Presidentea


Alain Rousset
Akitania-Berria Eskualde
Kontseiluaren Presidentea


Iñigo Urkullu
Euskadiko Lehendakaria



Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea



LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea
AECT Eurorregión Aquitania-Euskadi-Navarra
GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre

LLET Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen Plan Estrategikoaren eguneratzea 2014-2020

EUROESKUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN EGUNERATZEA

FITXA TEKNIKOA

Izenburua:	LLET Akitania-Berria Euskadi Nafarroa 2020 Euroeskualdearen Plan Estrategikoaren eguneratzea
Erakunde arduraduna:	LLET Akitania-Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea
Laguntza Teknikoa:	
Gauzatze-data	2018ko ekaina

EUROESKUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN EGUNERATZEA

1. SARRERA	4
2. EUROESKUALDEAREN DIAGNOSTIKOAREN EGUNERATZEA	9
2.1. Arestiko bilakaera sozioekonomikoa, eta lurralde-eremua handitu izanaren efektuak.....	10
2.2. Euroeskualdearen AMIA	21
2.2.1. 2014ko AMIA	21
2.2.2. Lurralde-eremua handitu izanaren ondoriozko AMIA faktore berriak.....	23
3. 2015-2017 ALDIKO JARDUEREN BALANTZEA	26
3.1. Sarrera	27
3.2. Europar proiektuak	27
3.3. LLETaren 2015-2016-2017 urteetako proiektuen deialdiak.....	31
3.4. Hitzarmen estrategikoak	34
3.4.1. Ikasleen mugikortasuna	34
3.4.2. Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa	34
4. EUROESKUALDEKO ERAGILE SOZIOEKONOMIKOEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK.....	37
4.1. Sarrera eta metodologia.....	38
4.2. 2014-2020 Planaren lehentasun estrategikoen egokitasuna	39
4.3. Lurralde-eremua handitu izanaren efektuak.....	40
4.3.1. Lurralde-eremua handitu izanaren abantailak eta inpaktuak	40
4.3.2. Euroeskualdearen espazioan sartu diren eskualde berrien elementu berezigarriak eta indartu diren sektoreak.....	42
4.3.3. Euroeskualdearen Estrategian indartu edo sartu beharreko alor tematikoak	43
4.4. LLETaren jardueraren orientabidea etorkizunean.....	44
5. EUROESKUALDEAREN ESTRATEGIAREN EGUNERATZEA	45
5.1. Sarrera: Ikuspegia, Misioa eta Erronka Estrategikoak	46
5.2. Euroeskualdeko herritartasuna	53
5.3. Jakintzaren ekonomia, berrikuntza eta enpresa-lehiakortasuna.....	66
5.4. Lurralde iraunkorra eta garraioa	86
5.5. Gobernantza	110
6. EUROESKUALDEKO ESTRATEGIA ETA EUROPAREN LEHENTASUNAK	117
Eranskina.A. EUROESKUALDEKO ESTRATEGIAREN EGUNERATZEAN PARTE-HARTU DUTENEN ZERRENDA.....	122
Eranskina.B. DEIALDIAK.....	127

EUROESKUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOAREN EGUNERATZEA

2.1 koadroa	11-12 eta 18 urte bitarteko frantseseko eta espainierako ikasleak.....	13
3.1 koadroa	Euroeskualde mailako proiektuetarako laguntza-deialdia, 2015-2016-2017: proiektu kopurua eta emandako diru-laguntza, alor eta urte bakoitzeko.....	32
4.1 koadroa	Lehentasun estrategikoei emandako balorazioa.....	40
2.1 grafikoa	Euroeskualdeko biztanleriaren bilakaera 2006-2016 aldian	11
2.2 grafikoa	Euroeskualdeko jaiotza- eta hilkortasun-tasak, 2015ean	12
2.3 grafikoa	65 urteko eta gehiagoko biztanleak (%) Euroeskualdean, 2012-2016 aldian	12
2.4 grafikoa	Euroeskualdearen BPG eskualdeka banatuta, 2010-2014	15
2.5 grafikoa	Biztanleko BPG errealaren -uneko prezioetan- bilakaera Euroeskualdean, 2005-2015.....	16
2.6 grafikoa	Balio Erantsi Gordinaren -ekoizpen-preziotan- banaketa sektore ekonomikoa Euroeskualdean (2014)	17
2.7 grafikoa	55 urteko eta gehiagoko biztanleria aktiboa (%) Euroeskualdean, 2012-16.....	18
2.8 grafikoa	Hezkuntza-sistemaren adierazleak Euroeskualdean	18
2.9 grafikoa	Euroeskualdean I+G+b alorrean lan egiten duen pertsona kopuruaren bilakaera (lanaldi osoari dagozkion datuak), 2009-2013.....	19
2.10 grafikoa	Gastua I+G+b alorrean (€ biztanle bakoitzeko) Euroeskualdean, 2003-2013.....	20
3.1 grafikoa	Euroeskualde mailako proiektuetarako laguntza-deialdia, 2015-2016-2017: emandako diru-laguntza, jardun-arloaren arabera	33
4.1 grafikoa	Lurralde-eremua handitu izanaren abantailak eta inpaktuak	41
4.2 grafikoa	Euroeskualdearen ekintzen orientabidea etorkizunean	44
2.1 mapa	Euroeskualdearen lurralde-osaera eta dimentsioak	10

1. SARRERA

1. Sarrera

1989ko urriaren 3an, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Akitaniako eskualdeak europar Atlantikoko eskualde arteko dinamizatzailerik garrantzitsua izatera bideratutako lankidetzaren protokoloa. Protokolo horrek mugako bi eskualdeen arteko harreman instituzional iraunkorrak hasia egin zuen, beren eskumenen barruan, eta eskualde bakoitzak esparru ekonomikoan eta sozialean dituen politikei buruzko informazio erabilgarri guztiak elkartrukatzeko helburuz, prestakuntzaren eta ikerkuntzaren garapena sustatzeko eta kultura- eta hizkuntza-ondareari balioa emateko.

1990eko irailaren 30ean, EAE eta Akitaniako Eskualdearen arteko Lankidetzaren protokoloaren Protokolo Erantsia sinatu zuten. Protokolo hartan, baterako esku-hartze funts baten sorrera ezarri zuen, "Akitania-Euskadi lankidetzarako Funtsa" deritzona, bi aldeetako bakoitzak % 50ean finantzatu beharrekoa.

Geroago, indargabetuta geratu ziren protokolo biak, 1992ko otsailaren 13an indarrean sartu zen Akitaniako Eskualdea, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren protokoloa indarrean sartu zenean; protokolo haren bitartez, Akitania-Euskadi-Nafarroa Mugaz Gaiandiko Eskualdea sortu zen, aurrekoaren antzerako edukiarekin, baina urte hartatik aurrera Nafarroa ere barne hartuko zuena. 2000ko uztailaren 9an, Nafarroako Foru Komunitateak eta Akitaniako Eskualde Kontseiluak alde biko mugaz gaindiko beste lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten, Nafarroako Gobernua aurreko hitzarmenetik irten ondoren.

2011ko abenduaren 12an, Akitania-Euskadi Euroeskualdea Lurralde Lankidetzarako Europar Taldea sortu zen, "Akitaniaren eta Euskadiren artean mugaz gaindiko, nazioz gaindiko eta/edo eskualde arteko lankidetzaren lurralde-lankidetzaren esangoa diogu hemendik aurrera- erraztu eta sustatzeko, kohesio ekonomiko eta soziala indartzeko" helburu nagusiarekin.

Bere sorreran aipatzen dituen helburuen artean, Akitania-Euskadi Euroeskualdea Lurralde Lankidetzarako Europar Taldeak (LLET) 2014-2020 aldira Plan Estrategiko bat egiteko zeregina hartu zuen bere gain, alde batetik, Akitania-Euskadi lurralde-lankidetzaren eragile guztien zerbitzura egongo den erreferentziatzeko agiri bat izateko eta, bestetik, Lurralde Lankidetzarako Europar Taldearen beraren beharretarako. Plan Estrategiko hori 2014an egin zen eta, harrezkero, plan horrek zuzendu ditu Euroeskualdearen jarduerak eta ekimenak.

2017ko urtarilaren 30ean sartu zen ofizialki Nafarroako Foru Komunitatea LLET taldean, Eratzeko Hitzarmena aldatuta eta Estatu berriak onetsita; halaber, Eratzeko Hitzarmenari eta Estatutuei dagozkien atalak eguneratu ziren, beharrezkoa

1. Sarrera

baitzen hori egitea Akitaniako Limousin eta Poitou-Charentes eskualdeak bateratu eta Europar Batasunaren LLET¹ buruzko araudia aldatu ondoren.

Ondorioz, bere Plan Estrategikoa eguneratzea erabaki zuen LLETak, eratu zenetik izandako aldaketak kontuan izateko helburuz, funtsezkoa baitzen hori Euroeskualdearen lurralde-osaera berriaren ondorioz. Lurralde Lankidetzarako Europar Taldean Nafarroa eta Akitania Berriko departamendu berriak sartu izanak kontuan izan beharreko aukera berriak eskaini eta erronka berriak planteatzen dizkio Euroeskualdearen lankidetzari. Hain zuzen ere, 2014-2020 aldirako estrategia alor sozioekonomikoan eta instituzionalean gerta zitezkeen aldaketetara egokitzeko estrategia malgu gisa definitzen zen.

AURREKARIAK: 2014-2020 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN FILOSOFIA ETA HELBURUAK

- ➔ **Euroeskualdearen lehentasunak eta horiek gauzatzeko programatu beharreko ekintzak identifikatzeko sortutako estrategia.** Aurrefiatzko diagnostiko batean eta 2014-2020 aldian Euroeskualdeak bere gain hartu beharko dituen erronketan oinarritzen da orientabide estrategikoen definizioa.
- ➔ **Europar funtsak mugitzeko estrategia.** Agiri Estrategikoak Euroeskualdea osatzen duten bi eskualdeen garapenari bidea ematen dio eta, halaber, bat dator Europar Batasunak 2014-2020 aldirako ezarritako helburu estrategikoekin, eta oso kontuan hartuta europar lurralde-lankidetzaren programazioko Euroeskualdearen mendeko espazioak.
- ➔ **Estrategia moldagarria.** Faktore ekonomiko, politiko eta sozialak edozein lurralde-estrategia baldintzatzen duten elementuak dira eta, beraz, finkatutako helburuak lortzeko garatu beharreko ekintzak egokitzera behartzen duten aldaketa gogorrak gerta daitezke.
- ➔ **LLET lurralde-lankidetzako politikaren eragile eta bultzatzaile gisa kokatzen duen estrategia.** LLETaren helburua da Batasunarekin batera finantzatutako (batez ere Egiturazko Funtsen kontura) lurralde-lankidetzako programak edo proiektuak ezartzea, eta Batasunarengandik aparteko lankidetzako jarduerak gauzatzeko. Zentzu horretan, lurralde-lankidetzako politikaren antolatzailea, sustatzailea, bultzatzailea eta/edo laguntzailea izatea ahalbidetzen dio 2014-2020 aldirako Agiri Estrategikoak LLETari.

¹ LLET zuzenbide publikoko erakundea da, xedapen hauek arautuko dutena: Lurralde Lankidetzarako Europar Taldeari (LLET) buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko uztailaren 5eko 1082/2006 (EE) Erregelamenduak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1302/2013 (EE) Erregelamenduak (EE); Eratzeko Hitzarmenak eta hitzarmen horren aldaketak; bere Estatutuak; ordezkio izaeraz, Frantziako Zuzenbideak; eta Estatutuetan agintzen zaizkion jarduerari dagokienez, jarduera horiek burutuko diren lurraldeko zuzenbideak.

1. Sarrera

- ➔ **Lurralde -lankidetzako eragile guztientzat erreferentzia izan nahi duen estrategia.** Agiri Estrategikoak proiektuen sustatzaileek Euroeskualdearen lurralde garapenaren ikuspegi bateratuari egiten dioten ekarpena ere hartzen du barnean. Eta erreferentziatzat balio die lurralde-lankidetzako eragile guztiei (pribatuak eta publikoak) zein LLETari berari, beren politikak planifikatzeko eta lehenesteko.
- ➔ **Lankidetzaren eremuetan sartuta dauden eragile ugariaren partaidetzarekin prestatutako estrategia.** Egindako elkarrizketa pertsonalei, lan-taldeei eta lankidetzaren eragileekin egindako azterlanei esker, haien ikuspegiak eta espektatibak zehaztu ahal izan dira.

Beraz, hemen aurkezten den dokumentuaren helburua da Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea LLETaren Plan Estrategikoaren eguneraketa aurkeztea, 2018ko lehenengo seihilekoan prestatu dena. Asmo horrekin, bost kapitulutan egituratuta dago dokumentua, Sarrera hau barne.

Bigarren kapituluak Euroeskualdearen Diagnostikoaren Eguneraketa jasotzen du; diagnostiko horrek Euroeskualdea osatzen duten hiru eskualdeen arestiko bilakaera ekonomikoaren datu nabarmenenak eta Euroeskualdea handitu izanaren efektuak islatzen ditu, funtsezkoak diren hainbat aldagaitan². Jarraian, Euroeskualdearen AMIA matrizearen (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak eta Aukerak) eguneraketari heltzen dio, arreta berezia jarri lurralde-eremua handitu izanaren ondoriozko AMIA faktore berriei.

Hirugarren kapituluak Plana egin zenetik igaro den denboran LLETak garatu eta bultzatutako Euroeskualdeko Lankidetzako Jardueren Balantzea egiten du. Kontuan hartu dira LLETak zuzendutako europar proiektuak eta LLET partaide den beste batzuk, bai eta lankidetzako proiektuetarako LLETak egindako deialdien bitartez lagundutako proiektuak ere; azken horien bitartez, estrategikoak diren gai-arlo ezberdinetako (2014-2020 Planaren arabera definitutakoak) ekimen ugari gauzatzen laguntzen da. Azkenik, Euroeskualdeko Hitzarmen estrategiko batzuk deskribatzen dira, zeintzuetan parte hartzen duen LLETak.

Laugarren kapituluak 2018ko lehenengo hiruhilekoan Euroeskualdeko Eragile Sozioekonomikoei egindako Inkestaren emaitzak aurkezten ditu; Euroeskualdeko mugaz gaindiko lankidetzan modu aktiboan parte hartzen duten erakundeetako 150 ordezkari bakoitzak ondorengo gaiei buruz emandako erantzunak islatzen ditu: 2014-2020 Planaren lehentasun estrategikoen egokitasuna, lurralde-eremua handitu izanaren efektuak, gertaera horren abantailak eta inpaktuak, sartu diren eskualde berrien eta indartutako sektoreen elementu bereizgarriak, Euroeskualdearen Estrategian gehitu edo indartu beharreko alderdiak, etab.

² Horretarako, batez ere eguneratzeko proiektu beraren testuinguruan egindako "Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea zifratu" argitalpenetik ateratako adierazleak hartzen dira erreferentzia gisa.

1. Sarrera

Azkenik, Euroeskualdearen Estrategiaren Eguneraketari eskainita dago bosgarren kapitulua, eta berraztertu eta eguneratu egiten ditu ardatz estrategikoak, jardun-ildoak eta ekintzak.


2. EUROESKUALDEAREN DIAGNOSTIKOAREN EGUNERATZEA

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

2.1. Arestiko bilakaera sozioekonomikoa, eta lurralde-eremua handitu izanaren efektuak

Euroeskualdeak 48.000 km² zituen lehen, eta 101.000 km² ditu gaur egun (+% 110, bikoiztu baino gehiago egin da **azalera**). Batez ere Iparralderantz gertatu da hedapena; horrela, nabarmen handitu dira muga-eremurako distantziak (450 kilometro baino gehiago Poitiers-etik Hendaiara; 175 kilometro Tuteratik Irunera).

2.1. mapa Euroeskualdearen lurralde-osaera eta dimentsioak




Biztanleriari dagokionez, 5,4 milioi **biztanletik** 8,7 milioi biztanlera hazi da kopurua (+% 60); Europako biztanleriaren % 1,74 hartzen du, beraz, Euroeskualdeak. Biztanleria-dentsitatea, berriz, murriztu egin da: Euroeskualdean sartu diren lurralde berrietan modu sakabanatuagoan banatuta daude biztanleak, bai Nafarroan, bai Frantziako departamendu berrietan.

Ikusten denez, **hazkunde demografikoa** izan du Euroeskualde osoak azkeneko hamarraldian, baina badaude lurraldearen arabeko ñabardurak: Akitania Berrian modu iraunkorrean hazi da biztanle kopurua (+% 6,6, 2006tik 2016ra); Euskadik eta Nafarroak, ordea, atzeraldia izan dute krisiaren urteetan, baina

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

badirudi hasi dela joera hori suspertzen, saldoa positiboa izan baita azkeneko hamarraldian (+% 1,7 eta +% 7,7), batez ere Foru Komunitatean.

2.1. grafikoa Euroeskualdeko biztanleriaren bilakaera 2006-2016 aldian




Jaiotza-tasa txikitu egin da, oro har, Euroeskualde osoan, eta hilkortasun-tasa, berriz, handitu. Nafarroak arindu egiten du pixka bat bilakaera hori (adin-egitura gazteagoarekin); Frantziako lurralde berriek, aldiz, areagotu egiten dute (zaharragoak dira).

Ondorioz, negatiboa izan da hazkunde begetatiboa, Nafarroan izan ezik. Aldaketa bereziki nabarmena da Akitania Berrian; horrela, Euroeskualdetik kanpoko biztanleriaren sarrera ari da izaten biztanleriaren hazkundeari eusten ari zaiona.


2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

2.2. grafikoa Euroeskualdeko jaiotza- eta hilkortasun-tasak, 2015ean



Bilakaera demografiko horren emaitza Euroeskualdeko biztanleriaren **zahartzea** da; horrek esan nahi du 65 urtetik gorako biztanleria pisu handiagoa hartzen ari dela, adin-tarte gazteagoen kalterako. Euroeskualdearen lurralde-osaeran gertatu diren aldaketek ez dute prozesu hori saihestu, eskualde guztiei eragiten baitie fenomeno berak: Nafarroak adin-egitura gazteagoa duen arren, lurralde horren piramidea ere zahartzen ari da, Euskadirena eta, batez ere, Akitania Berriarena bezala (lehenengo Akitaniarekin alderatuta).

2.3. grafikoa 65 urteko eta gehiagoko biztanleak (%) Euroeskualdean, 2012-2016 aldian



(*) Akitania 2012an (**) Akitania eta Euskadi 2012an

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

Hizkuntzen ezagutzari dagokionez, Frantziako espainieraren ezagutza-mailari buruzko datu ofizialak zaharkituta daude, 2002koak baitira INSEEk argitaratutako azkeneko datuak. Iturri horren arabera, Akitanian bizi diren 18 urtetik gorako biztanleen % 5,4k zioen espainieraz hitz egiteko eta idazteko gai zela³. Frantsesaren Euskadiko ezagutza-mailari dagokionez, dauden azkeneko datuek (2016koak)⁴ erakusten dute biztanleen % 11k dioela hitz egiteko eta idazteko gai dela. Nafarroaren kasuan⁵, % 21era iristen da portzentaje hori.

Espainieraren irakaskuntza eta ikaskuntzari dagokionez, eta Pirinioez Gaindiko Konferentzia Atlantikoak emandako informazioaren arabera, espainieraren irakaskuntza nabarmen ari da hazten Bidasoaren iparraldean (colleges); Bidasoaren hegoaldean, baina, garrantzi txikia du oraindik ere frantsesaren eskariak atzeriko lehenengo hizkuntza gisa.

Arreta 11-12 eta 18 urte bitarteko ikasleen kolektiboarengan jartzen badugu, egiaztatuko dugu askoz ohikoagoa dela Akitaniako ikasleen artean espainiera ikastea (% 66) Euskadiko eta Nafarroako ikasleen artean frantsesa ikastea baino (% 16 eta % 34, hurrenez hurren). Hori azaltzen duen arrazoi nagusia da Euskadiko eta Nafarroako hezkuntza-sisteman atzeriko hizkuntza bakarra exijitzen dela nahitaez (atzeriko bigarren hizkuntza aukerazkoa da), eta Frantziako hezkuntza-sisteman, ordea, atzeriko bi hizkuntza direla nahitaezkoak.

2.1. koadroa 11-12 eta 18 urte bitarteko frantseseko eta espainierako ikasleak

	%
AKITANIA BERRIA (college eta lycee)	
Espainiera Hizkuntza Bizia 1 (LV1)	3,5
Espainiera Hizkuntza Bizia 2 (LV2)	62,5
GUZTIRA	66,0
EUSKADI (bigarren hezkuntza eta batxilergoa)	
Frantsesa, nahitaezko ikasgaia	2,7
Frantsesa, aukerazko ikasgaia	13,5
GUZTIRA	16,5
NAFARROA (bigarren hezkuntza eta batxilergoa)	
Frantsesa, nahitaezko ikasgaia	1,3
Frantsesa, aukerazko ikasgaia	32,8
GUZTIRA	34,1

Iturria: Frantziako Hezkuntza Ministerio Nazionala (2017-2018 ikasturtea) eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Nafarroako Foru Gobernua (2016-2017 ikasturtea). Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea LLETak sustatutako ENPLEGUA Txostenetik hartua.

³ "Langues parlées en Aquitaine : La pratique héritée", INSEK 2002an argitaratua.

⁴ Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2007an argitaratutako datuak.

⁵ Inkesta Soziala eta Bizi-baldintzei buruzkoa, 2016, Nafarroako Foru Gobernua.

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

Euskararen ezagutza-mailari dagokionez, Euskadiko biztanleen % 34 da euskal hiztuna, eta beste % 19 euskaldun pasiboak dira, hau da, euskara ulertzeko gai dira, baina ez hitz egiteko. Akitania Berriaren kasuan, eta Ipar Euskal Herrian hain zuzen ere, biztanleen % 21 da euskal hiztuna, eta beste % 9k dio euskara ulertzen duela baina ez duela hitz egiten; Ipar Euskal Herriaren barruan, nabarmentzekoak dira Behe Nafarroa eta Zuberoa, % 50 inguruko euskal hiztunen tasarekin, eta euskaldun pasiboen beste % 14ko portzentajearekin. Nafarroa osoa hartuta, txikiagoa da euskararen ezagutza-maila; biztanleen % 13 euskal hiztuna, eta beste % 10ek dio ulertzen duela baina ez duela hitz egiten (euskaldun pasiboak); nolahi ere, Nafarroako eremu euskalduneari % 61eraino handitzen da portzentaje hori, eta % 13 gehiago dira euskaldun pasiboak.

Euroeskualdeko ikastetxeetan irakas-hizkuntza gisa euskara erabiltzen den neurriari dagokionez, Euskadiko haur eta lehen hezkuntzako ikasleek % 96 zegoen matrikulatuta eredu elebiduneari edo euskarazko ereduari, 2016-2017 ikasturtean. Nafarroak, haur eta lehen hezkuntzako ikasleek matrikulazioen % 27 egin ziren euskarazko ereduarekin.


Okzitanieraren presentziari dagokionez, erabilgarri ditugun datuek –2008an antzinako Akitaniako lurraldean egindako inkesta batekoak⁶– erakusten dute % 9koa zen batere zailtasunik gabe hitz egiten zutela adierazi zutenen portzentajea. Portzentaje hori % 22ra iristen zen nolabaiteko zailtasunarekin hitz egiten zutela adierazten zuten pertsonak batuz gero.

Ikuspuntu ekonomikotik, Euroeskualdean lurralde berriak sartzeak nabarmendu handitu du (% 60) Euroeskualde osoaren BPG, eta iparraldera lekualdatu du, gainera, Euroeskualdearen pisu ekonomikoa: zifra absolututan, Akitania Berriaren BPG antzinako Akitaniaren BPGaren ia bikoitza da; beraz, Euroeskualdearen Barne Produktu Gordin osoaren ia bi heren hartzen ditu (% 65 gaur egun, % 56 lehen). Euskadik, berriz, % 26,8 hartzen du (lehen % 40), eta Nafarroak % 7,4.

⁶ Présence, pratiques et représentations de la langue occitane en Aquitaine. Chiffres et Données Clés.

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

2.4. grafikoa Euroeskualdearen BPG eskualdeka banatuta, 2010-2014




Hala ere, osaera berriak ez du inpaktu handirik biztanle bakoitzeko BPGaren batez besteko mailetan eta Euroeskualdeko etxeetako errenta erabilgarrien mailetan, aurreko antzerako mailetan baitaude. Akitania Berria Euroeskualdeko batez bestekoaren azpitik dagoen arren (modu nabarmenean Eroste Ahalmenaren Estandarrari dagokionez⁷), badirudi Euskadin eta, batez ere, Nafarroan baino inpaktu txixieagoa izan duela krisiak; azken bi lurraldeek galera nabarmenak izan zituzten 2010. eta 2013. urteen artean biztanleko BPGari dagokionez, nahiz eta gero suspertu ziren.

⁷ Purchasing Power Standard edo erosteko ahalmenaren estandarra.

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea


2.1. grafikoa Biztanleko BPG errealaren π -uneko prezioetan-bilakaera Euroeskualdean, 2005-2015



Egitura ekonomikoari dagokionez, Euroeskualdearen hedapenak garrantzi erlatibo handiagoa eman die lehen sektoreari eta industriaren sektoreari, eta ez horrenbeste zerbitzuen sektoreari, nahiz eta azken horrek jarraitzen duen izaten balio erantsiaren iturri nagusia. Zerbitzuen sektorearen barruan, merkataritzak kuota galdu du enpresei eta Herri Administrazioari zuzendutako zerbitzu-jarduerekin alderatuta. Azkenik, eraikuntza-sektoreak garrantzi txikiagoa du proportzionalki, Nafarroan eta Euskadin batez ere, higiezinaren krisiaren eragin larria jasan baitute.

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

2.6. grafikoa Balio Erantsi Gordinaren –ekoizpen-preziotan– banaketa sektore ekonomikoka Euroeskualdean (2014)




Biztanleria aktiboari erreparatzen badiogu, Euroeskualdea handitu izanak ez du arindu biztanleria horren zahartze-prozesua eta, beraz, 55 urteko eta gehiagoko pertsona aktiboaren segmentua modu proportzionalen hazten ari da esparru guztietan, baina batez ere Euskadiren eta Nafarroaren kasuan. Prozesu horrek iragartzen digu pertsona asko irtengo dela lan-merkatutik erretiroagatik, eta murriztu egingo dela lan egiteko adinean dagoen biztanle kopurua.

Hain zuzen ere, Europakoa baino txikiagoa da biztanleria aktiboaren ordezpentasua: Euroeskualdean, laster erretiratuko diren (60-65 urte) 10 lagun bakoitzeko 7 lagun bakarrik daude lan-merkatuan sartzeko adinean (20-24 urte); Europar Batasunean, berriz, bederatzi lagunekoa da batez bestekoa.

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea


2.7. grafikoa 55 urteko eta gehiagoko biztanleria aktiboa (%) Euroeskualdean, 2012-2016



(*) Akitania 2012an (**) Akitania eta Euskadi 2012an

Hezkuntzaren alorrean, bestalde, bere horretan jarraitzen du goi-mailako titulazioa duten pertsonen proportzioari dagokion desorekak; Euskadin eta Nafarroan Akitania Berrian baino askoz gehiago dira goi-mailako titulazioa duten biztanleak. Aitzitik, Euskadikoa eta, batez ere, Nafarroakoa baino txikiagoa da Akitania Berriko eskola-uzte goiztiarraren tasa. Hala ere, adierazle biak dira hobeak Euroeskualdean, Europako batez bestekoekin alderatuta.


2.8. grafikoa Hezkuntza-sistemaren adierazleak Euroeskualdean



2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

I+G+b alorrari dagokionez, Euroeskualdea handitu izanak jarduera horietan lan egiten duen biztanle kopuruaren hazkunde nabarmena ekarri du; 30.500 lagunek egiten zuen lan alor horretan lehengo Akitania-Euskadi Euroeskualdean, eta 43.300 lagun dira Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen barruan I+G+b alorrean dihardutenak. Hazkunde hori bereziki nabarmena izan da goi-mailako irakaskuntzako ikertzaileen segmentuan, bestelako zentro publiko eta, batez ere, enpresetakoekin alderatuta, nahiz eta, nolanchi ere, enpresetako I+G+b alorrean diharduten gehienek.


2.9. grafikoa Euroeskualdean I+G+b alorrean lan egiten duen pertsona kopuruaren bilakaera (lanaldi osoari dagozkion datuak), 2009-2013



Hala eta guztiz ere, azkeneko hamarraldi honetan handitu egin den arren Euroeskualde osoan biztanle bakoitzeko I+G+b alorrean egiten den gastua, zifrak Europako batez bestekoen azpitik daude oraindik ere, Euskadin izan ezik. Aitzitik, Akitania Berriaren kasuan, eskualdearen osaera berriaren ondorioz, biztanle bakoitzeko batez besteko zifra lehengo Akitaniak bananduta zuena baino txikiagoa da. Nafarroa, berriz, beste bi eskualdeen tarteko maila batean dago.

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

2.10. grafikoa Gastua I+G+b alorrean (€ biztanle bakoitzeko) Euroeskualdean, 2003-2013



2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

2.2. Euroeskualdearen AMIA

2.2.1. 2014ko AMIA

2014an egindako Euroeskualdearen Diagnostikotik abiatuta, gaur egun eta lurralde-osaera berriarekin baliozkoak izaten jarraitzen duten aldeko eta kontrako faktoreen zerrenda jasotzen da jarraian.

AHULDADEAK ETA MEHATXUAK	
- Oso presente dagoen muga	• Eskualdeek ez dute elkar ezagutzen • Informazio-hutsune garrantzitsuak daude • Ez dago Euroeskualdearekiko sentimendurik • Alde nabarmenak daude kulturari dagokionez • Hizkuntza benetako oztopoa da
- Komunikazio eskasak	• Ez dago garraio publikoko sare egokirik • Mugikortasunak "aisialdi" faktoreari erantzuten dio batez ere • Salgaien errepide bidezko garraioaren aldeko hautu masiboa • Lurralde heterogeneoa (dentsitateak, lurzorua erabilerak, espezializazioa, etab.) • Bizitegi-dinamiken eta jarduera produktiboen arteko tentsioak
- Laguntzen ez duen egitura instituzional konplexua	• Asimetria handiak eskumenei, zerga-gaiei eta kultura administratiboari dagokienez • Esku hartzen duten eragileen mapa konplexua, eragile ugari • Eragile bakoitzak bere "nitxo" bilatu behar du • Epe laburra lehenesten da, eta lankidetzak denbora-aldi luzeak behar ditu • Lankidetzak-foroek erabakitze-botere txikia dute • Desdoikuntzak Euroeskualdearen eta eragileen lehenetasunetan • Lankidetzako ekimenei koherentzia emateko zailtasuna
- Lankidetzak-kultura ahula	• Ez dago lankidetzaren "txipik" eragileen buruetan • Lankidetzarako mesfidantza, merkatu-kuota galtzeko beldurragatik • Sektore pribatuko <i>partnerrak</i> aurkitzeko zailtasunak • Sektoreko balio-kateetan sor daitezkeen sinergiak ez ezagutzea • Jarraitutasun falta lankidetzan
- Beste kideenganako – garapen-espazio naturala-orientabide eskasa	• Mugaz gaindiko lankidetzak ez da izan lehenetasuna • Benetan estrategikoak diren proiektuen presentzia txikia • Ez dago Euroeskualdearen markarik, eta horrek zaildu egiten du bere posizionamendua

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

- Presioa eragiten duen dinamika demografikoa	• Hazkunde naturala oso murrizta da, immigrazioaren beharra dago • Zahartze demografikoa, mendekotasun-tasa handiagoa • Biztanleria aktiboaren hazkunde-eritmo txikia • Euroeskualdeak ez du funtzionatzen enplegu-arro gisa funtzionatzen • Lurraldeen arteko aldeak areagotzeko mehatxua
- Lankidetzarik ezaren aukeraren kostu handiak	• Posizionamendu galera europar hazkunde-ardatzetan • Atzerapena abiadura handiko tren-konexioan • Frustrazio arriskua, lankidetzaren liderren nekea • Presentzia banandua lurralde-lankidetzako programetan • Eraginkortasunik eza, zerbitzuen koordinazio faltagatik (portuak, aireportuak)
INDARRAK ETA AUKERAK	
- Lurralde erakargarria, duen kapital sozialagatik eta ongizate-maila handiagatik	• Euroeskualdea Europa maila lehiatzeko gaitasuna duen lurraldea da • Biztanle bakoitzeko BPG, Europako batez bestekoaren mailakoa da • Europako batez bestekoa baino bizi-itxaropen handiagoa • Europako batez bestekoa baino lanaldi osoko enplegu portzentaje handiagoa • Europako batez bestekoa baino emakumeen enplegu portzentaje handiagoa • Oso ondo prestatutako langileak daude Euroeskualdean
- Lurralde erakargarria, duen natura-ondareagatik	• Natura-ondare garrantzitsua, ondo zaindutakoa • Itsasertza, hondartzak, natura-espazioak eta basoak, erakarpen-elementuak • Turismoaren sektorea hazten ari da
- Lankidetzarako ekosistema interesgarria	• Lankidetzako sareak, eragileak eta sustatzaileak. Harreman estuak • Enpresa-sare anitza, enpresa enblematikoak eta talde indartsuak • Nazioarteko bikaintasuneko Unibertsitate eta Campus zuzkidura • Enpresa-klusterrek garrantzia dute bi eskualdeetan. • Enpresen I+G+b alorra eta lotutako azpiegiturak babesteko sistema. • Eurohiria, erreferentziazko eta elkarrengandik hurbil dauden bi gune dituen (Baiona eta Donostia) • Eskualdeen lidergoa sektore bereizietan • Herriarren eta enpresen behar zehatzekiko sentsibiltatea • LLET, lankidetzak bultzatzeko nahi argi baten adierazgarri
- Eskualdearen tamainaren garrantzia etorkizuneko esparru geoestrategikoan	• "Europako ligan" lehiatzeko tamaina egokia duen Euroeskualdea • Europar Euroeskualdea, lankidetzak-ekimenen espazio interesgarria • RIS3, lankidetzarako aukera.

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

- Bi errealitate osagarriren hurbiltasunaren balioa	• Osagarritasun ekonomikoko esparru garrantzitsuak daude • Itsasertza eskualde biak batzen dituen balioa da. Arku Atlantikoa. • Hondartzen tipologia osagarria. • Zerbitzuak elkarrekin kudeatzeko arazo komunak
- Lankidetzarako aukera argiak	• Lankidetzaren energia berriztagarrien sektorean • Lankidetzaren natura-baliabideen kudeaketan • Berariazko ekintzak sektore ekonomikoetan (merkataritza, turismoa, etab.) • Lankidetzaren Lanbide Heziketako praktikan. • Dauden lankidetzaren-egiturak indartzea • Unibertsitateko eta lanbide heziketako ikasleen elkartrukea sustatzea • Enplegu zerbitzu publikoen arteko lankidetzaren. • Kulturatik abiatuta nortasun bateratua sortzeko gaitasuna. • Hizkuntzen ikaskuntza sustatzea. • Nazioarteko prestigioa gastronomian eta kalitatezko nekazaritzako produktuetan
- LLET lankidetzako tresna eraginkor gisa	• Euroeskualdeko Lurralde Lankidetzako tresna egokia • Komunitate mailako lankidetzako tresna • Mugaz gaindiko arau-esparrua bultzatzen duena (Eskualdeen Batzordea) • Udaleriaz gaindiko estrategia eta proiektuetarako garrantzitsua • Lurralde Lankidetzako Programa Kudeatzeko Agintaritzaren potentziala • Llen kudeaketako bitarteko organismo gisa jarduteko potentziala. • Ekintza Plan baten onuradun potentzial bakarra

2.2.2. Lurralde-eremua handitu izanaren ondoriozko AMIA faktore berriak

Nafarroa eta Akitania Berrian sartu diren departamendu berriak Euroeskualdean sartu ondoren gertatu den osakeraren aldaketaren ondoren, esan behar da ez dela asko aldatu aurreko AMIA analisia, hau da, oinarrian, indarrean jarraitzen dute lehen identifikatutako faktoreek. Hala ere, Euroeskualdearen eraldaketaren eta Plan Estrategikoa egin zenetik gertatu diren beste aldaketa batzuen ondorioz, beharrezkoa da ñabardura garrantzitsu batzuk egitea:

- Nabarmen handitu da Euroeskualdearen tamaina; Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak du Europar Batasuneko biztanleriaren eta BPGaren % 2, eta horrek berariazko pisu handiagoa ematen dio europar testuinguruan bere interesak defendatzeko eta Euroeskualdea osatzen duten eskualdeentzako onuragarriak izango diren ekimenak sustatzeko.
- Aldi berean, tamaina handiagoa izateak eragile sozialen eta ekonomikoen masa kritiko eta aberastasun handiagoa ematen diote, hainbat esparrutan

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

Euroeskualde mailako elkarrekiko harremanak eta lankidetzako ekimenak bultzatzeko.

- Halaber, Nafarroa Euroeskualdean sartu izanak muga-lurraldea (lehen Irún-Hendaia/Biriatu igarobidera mugatzen zen ia) 150 bat kilometro linealetara hedatzea ekarri du, Akitania-Nafarroa arteko mugan. Espazio biak Pirinioek banantzen dituzten arren, igarobide ugari dago, eta mugaz gaindiko lankidetzarako aukerak eta beharrak oso bistakoak dira askotan, ondo-ondoko lurraldeak baitira.
- Hala ere, lurralde-eremua handitu izanak lurraldeen arteko distantziak ere nabarmen handitzea ekarri du (distantzia fisikoak zein kulturalak). Mugatik aldendu ahala mugaz gaindiko lankidetzarekiko sentsibilitatea murriztu egiten bada, kasu honetan, modu nabarmenean murriz daiteke Akitania Berriko iparraldeko departamenduen kasuan, Hendaia-ia 500 kilometrotara egonik. Neurri txikiagoan, baina antzerako zerbait gerta daiteke Nafarroako hegoaldeko zonatan ere, mugatik distantzia fisiko dezentara baitaude.
- Euroeskualdea handitu izanaren ondorioz, Euroeskualdearen pisu ekonomikoa Bidasoaren iparralderantz mugitzea ere ekarri du, Frantziako lurralde berriek Nafarroak baino bolumen demografiko eta ekonomiko handiagoa baitute.
- Euroeskualdean sartu diren lurraldeen egitura ekonomikoaren sektore-osaerak Euroeskualde mailako lankidetzarako aukera berriak edo indartsuagoak eskaini ditzake, batez ere industriaren eta nekazaritzako elikagaien sektoreetan, lurralde horietako RIS3 estrategien arabera.
- Gaur egungo egitura instituzionala lehen baino konplexuagoa da, beste eskualde bat (Nafarroa) eta Akitania Berriko departamendu berriak sartu izanagatik; horrek lankidetzako ekimen batzuk martxan jartzea nekezagoa izatea eragin dezake, nahiz eta, jakina, hori ez den oztopo gaindiezin bat.
- Zahartze demografikoak begi-bistako prozesua izaten jarraitzen du Euroeskualdean. Nafarroak gainerako eskualdeek baino adin-egitura gazteagoa duen arren, Akitaniako departamendu berriek aurkako profila dute, eta denek bizi dute zahartze-prozesu hori.
- Garraioari dagokionez, Bordele, Dax, Baiona eta Hendaia arteko abiadura handiko linean iragarritako atzerapenak eragozpen garrantzitsua dira, zailtzarik gabe; horrek ez du lagunduko Euroeskualdearen mugikortasuna errazten, batez ere mugatik urrutien dauden lurraldeen artekoa.
- LLETari berari dagokionez, nabarmentzekoa da jarduera ugari jarri dituela abian Plana onetsi zenetik igaro den denbora –aldi honetan. Jardun ildoek LLETaren jarduna lehentasun argiagoen inguruan ardatzen eta egituratzen lagundu dute (horren adibide argia da laguntza-deialdien ikuspegi berria),

2. Euroeskualdearen diagnostikoaren eguneratzea

baita bere proiektu estrategikoek eta Euroeskualde mailako hitzarmenek ere⁸.

- Euroeskualdearen osaera berriaren eta hemen azaldutako aldaketen ondorioz, are beharrezkoagoa da LLETaren lana, nabarmen handiagoa den, konplexutasun instituzional handiagoa eta eragile politiko, sozial eta ekonomiko gehiago dituen lurralde batean ekimenak bultzatzeari eta dinamizatzeari begira.

⁸ Ikus hurrengo kapitulua.

3. 2015-2017 ALDIKO JARDUEREN BALANTZEA

3. 2015-2017 aldiko jardueren balantzea

3.1. Sarrera

Atal honetan, orain eguneratuko den Plan Estrategikoa onetsi zenetik Euroeskualdearen LLETak garatutako eta/edo bultzatutako jarduera eta proiektu nagusien laburpena aurkezten da. Hiru proiektu talde handitan egituratuta dago laburpena:

- Europar proiektuak: POCTEFak finantzatutako bost proiektu dira, LLETak zuzenean bultzatu dituenak edo LLETak zeregin garrantzitsua betetzen duen proiektuak. Oraindik abian daude proiektu horiek guztiak.
- LLETaren 2015-2016-2017 urteetako proiektuen deialdiak: LLETak bere laguntza-deialdien barruan lagundutako Euroeskualdeko proiektuak; 2015az geroztik, urteko bi deialdi: bata, kulturaren, kirolaren, hezkuntzaren eta hizkuntzen alorreko proiektuei zuzendutakoa, eta bestea jakintzaren eta berrikuntzaren ekonomiaren alorrera zuzendutakoa.
- Euroeskualdeko hitzarmenak: Proiektu-deialdiez gain, Euroeskualdeko politikako funtsezko eragileekiko elkartzeko-politika bultzatu behar da: ikasleen mugikortasuna AEN sarearekin (COMUEko liderra), Euroeskualde Campusa Bordeleko Unibertsitatearekin eta EHUrekin, Interclusteringa Orkestrarekin, CCI, ADI eta SPRIrekin. Baita Euskal Kultur Erakundearekin eta Etxepare Euskal Institutuarekin ere. Horri esker, ikasleen mugikortasunerako bekak, materialen alorreko baterako proiektuetarako baterako diplomak (batez ere enologian, etab.) eta beste sortu dira.

Esan behar da, proiektu zehatz horiez gain, Euroeskualdeko mugaz gaindiko lankidetzak suspertzeko etengabeko lana egin duela LLETak, Euroeskualdeko eragile ekonomiko, sozial, kultural eta instituzionalak hedatzen, ezagutarazten eta beren artean harremanetan jartzen lagunduz, etengabe haien arteko lankidetzarako aukerak bilatu nahian.

3.2. Europar proiektuak

Adierazi dugun bezala, POCTEFaren bitartez, FEDER programaren europar finantzazioa duten proiektuak dira, Euroeskualdearen LLETak bultzatu dituenak (Transfermuga, Enplegua, Irakaslegaiak AEN-Eskola Futura) edo LLET partaide dutenak (Competitiv'eko eta Ederbidea). Ondorengo proiektuak deskribatuko ditugu jarraian:

3. 2015-2017 aldiko jardueren balantzea

- TRANSFERMUGA
- ENPLEGUA
- IRAKASLEGAIK AEN – ESKOLA FUTURA
- COMPETITIV'EKO
- EDERBIDEA

• TRANSFERMUGA

Transfermuga proiektuaren helburua da mugaz gaindiko garraio jasangarriaren eskaintza hobetzea, Euroeskualdearen barruan pertsonen eta salgaien joan-etorriak eta mugikortasuna bultzatzeko.



POCTEFA funts europarrekin batera finantzatu da proiektu hori eta LLETak zuzendu du; 2013an jarri zen abian lehenengo fasea, mugaz gaindiko mugikortasunaren eskaria identifikatzea eta proposamen operatibo batzuk aurkeztea ahalbidetu zuena: autobus-linea bat Iruneraino luzatzea; Hegobus sare berria mugaren beste alderaino hedatzea; txartel konbinatuak sortzea; Hendaian geltokia egiteko proiektua abiaraztea; eta bidaiariari informazioa emateko eta mugaz gaindiko ibilbideak kalkulatzeko atari bat sortzea (<http://www.transfermuga.eu/eu/>).

2015ean ekin zitzaion Transfermuga proiektuaren bigarren faseari, eta epe ertainean eta luzean dinamika berari eusten ahalegindu dira, prozesu global eta bateratu baten barruan sartuta. Horretarako, hausnarketaren oinarrian dauden bi puntu identifikatu ziren: horietako batek mugaz gaindiko garraio-eskaintzak garatzea eta hobetzea aurreikusten du, intermodalitatea eta multimodalitatea helburu; besteak, berriz, garraioen sektorean berrikuntza irekia bultzatzea aurreikusten du, bidaiariei zuzendutako informazioa hobetuko duena. Helburu horrekin, operadore guztiei datu irekietara sartzea (open data) ahalbidetuko dien mugaz gaindiko web-plataforma bat sortzeko lan egin du proiektuak. Halaber, autobuserako eta trenerako berariazko azterlanak egin dira, proiektu berriak aktibatzea ahalbidetuko dutenak.

• ENPLEGUA

2014-2020 aldirako Plan Estrategikoaren diagnostikoak identifikatu zuen Euroeskualdeak ez zuela funtzionatzen enplegu-arro bateratu gisa, eta oztopo administratibo garrantzitsuak eta enplegu zerbitzuen arteko konexio eskasa zegoela, eta ez zegoela mugako langileen kolektiboarentzako legeria fiskalari, sozialari eta lan arloko legeriari buruzko informazio egokirik.

Langileen zirkulazio librea da Europar Batasunaren funtsezko lau askatasunetako bat, bai eta merkatu bakarraren ardatzetako bat ere. Mugaz gaindiko eremuak



3. 2015-2017 aldiko jardueren balantzea

dira, beharbada, errealitate horrekiko sentikorrenak; horregatik, lan arloan duten integrazioa gaitasuna eta potentziala garatzea izan behar da Europako merkatu bakarra indartzeko ardatzetako bat.

Testuinguru horretan, eta POCTEFAk finantzaturako "ENPLEGUA: Europa Indartuz: Akitania Beria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdean enplegu-arroa garatzea" ekimenaren bitartez, Euroeskualdearen LLET diziplina anitzeko arazo horri aurre egiten ari zaio Euroeskualde mailan, alderdi teorikoari zein praktikoari dagokionez. Enpresak, langileak eta langabeak hartzen ditu kontuan proiektuak, Euroeskualdean langileen zirkulazio librerako dauden oztopoak aztertzen ditu, eta horiei irtenbideak ematen saiatzen da (langileentzako zerga bikoitza eta Gizarte Segurantzaren gaia, eta enpresek mugaz bestaldean lanak egiteko izaten dituzten arazoak jorratuz, besteak beste). 2017an, lehenengo etapa batean, Akitania-Euskadi Euroeskualdeko mugaz gaindiko enpleguaren errealitatearen diagnostikoa egin zen, estatistika mailan (langile kopurua, ezaugarriak, motibazioak, oztopoak...) zein maila kualitatiboan (lege-esparrua, mugaz gaindiko langile izatearekin lotutako arazoak, mugaz gaindiko enpresa-jarduerarekin lotutakoak, etab.), eta Euroeskualdeko lan-merkatu bateratu baten benetako potentziala aztertu zen.

Proiektu horrekin jarraitzeko, webgune bat sortuko da, mugaz gaindiko langile eta enpresentzako informazioa eta lotutako beste ekintza batzuei buruzkoa jasoko duena.

• COMPETITIV'EKO

Enpresa Txiki eta Ertainen lehiakortasuna indartzera bideratuta dago proiektu hori, mugaz gaindiko lankidetzan oinarrituta eta Pays Basque-Aquitaine/Euskadi/ Nafarroako klusterrak, zentro teknologikoak eta garapen



ekonomikoko agentziak inplikatur. Honako hauek dira proiektuko bazkideak: CCI Bayonne Pays Basque, proiektuaren lider gisa; Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkundera; Nafarroako Garapena Sozietatea; Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua; eta Bihartean, Mugaz Gaindiko Merkataritza Ganbera⁹. Competitiv'eko Interreg Poctefa 2016-2019 funtsak finantzatuta dago. LLET proiektuaren Gidaritza Batzordeko kide da, eta POCTEFAk finantzatzen du proiektu hori. Proiektuaren muina berrikuntzaren eragileen eta berrikuntza teknologikoak zein ez-teknologikoak bultzatuko dituzten enpresen arteko mugaz gaindiko lankidetzako lan-moduak indartzean ardatzen da. Helburuak dira: 1-

⁹ ADI Nouvelle-Aquitaineko Garapen eta Berrikuntza Agentziak, SPRI Eusko Jaurilaritzaren Enpresa Garapenerako Agentziak, Nafarroako Foru Gobernuak Garapen Ekonomiko Departamentuak eta LLET Aquitaine-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak osatzen dute proiektuaren Gidaritza Batzordea.

3. 2015-2017 aldiko jardueren balantzea

Enpresen arteko mugaz gaindiko lankidetzak indartzea, irabazi-irabazi aliantzak identifikatuta. 2-Lurraldeak egituratzen dituzten eragile ekonomikoen (Klusterak, ADE, CT...) arteko lankidetzak bertikala edo zeharkako lankidetzak indartzea 3-Tresnak garatzea eta eragile ekonomikoen eskura jartzea, enpresa- eta lurralde-estrategiak babesteko koherentzia eta berariazko metodologia bermatzeko. -Balio-kateak eta kate horietan eta RIS3 estrategian identifikatutako espezializazio-alorretan jarduten duten eragileak diseinatzea. -Lurralde-enpresa konbergentziaren analisia, RIS- estrategiaren alorretan. 4-Jardunbide iraunkorrak sortzea enpresaliderren eta bitarteko eragile ekonomikoen artean. 5-Mugaz gaindiko proiektu pilotuak egitea, honako hauek sortzearen ondorioz: -Mugaz gaindiko elkartruke-espazioak. -Lan-talde tematikoak eta sektorialak (produktua, merkatua...) -Mugaz gaindiko enpresa-gunean, balio-katearen osagarritasunetan oinarritutakoak. 6-Lankidetzaren inguruko jardunbide egokiak partekatzea eta errepikatzea.

Proiektuak konbergentzia ekonomikoak identifikatu ditu ondorengo lehentasunezko lau alorretan:

- Fabrikazio aurreratua–Automobilgintza/Ibilgailu elektrikoak/Material arinak/Mugikortasuna – Garapen jasangarria)
- Energia (Onshore eolikoa/Biltegiatzea/Offshore eolikoa/Smart Grids)
- Osasuna (Medikuntzako gailuak/Fabrikazio aurreratua/E-Osasuna/Big Data –zeharkako gaia–)
- Nekazaritzako elikagaiak (Fabrikazio aurreratua/Big Data/Kontserbazio-teknikak, izoztea) / Energia-Osasuna konbinazioa / Laugarren gama (erabiltzeko prestatutako gordinak) eta Bosgarren gama (prestatutakoak).

• IRAKASLEGAIK AEN – ESKOLA FUTURA

POCTEFaren barruan garatutako europar proiektua da (2017-2020), hizkuntza-politika bateratzekoa, euskararen eta okzitanieraren erronkei erantzuten diena, Euskararen eta Okzitanieraren Bulego publikoekin zuzenean elkartuta, eta lurraldeko unibertsitateekin lankidetzan. Bekak emango zaizkie Euroeskualdeko unibertsitate publikoetako Irakasle ikasketetako ikasleei, beren lana Frantziako hezkuntza-sistemako eskola publikoetan euskaraz eta okzitanieraz egin ahal izan dezaten.



3. 2015-2017 aldiko jardueren balantzea

• EDERBIDEA

EDERBIDEA proiektuak –POCTEFak finantzatzen du hori ere-garraio jasangarria, bizikleta-garraioa, garatu nahi du Gipuzkoak, Nafarroak eta Pirinio Atlantikoek osatzen duten mugaz gaindiko lurraldean. Honako hauek dira proiektuko bazkideak: Nafarroako Gobernua; Pirinio Atlantikoetako Departamendua; Gipuzkoako Foru Aldundia; Donibane Lohitzuneko, Hendaia, Miarrizko, Irungo eta Imotzeko Udalak; Sud Pays Basque Aglomerazioaren Komunitatea, Cederna Garalur elkarte, Plazaolako Turismo Partzuergoa eta Baztan Bidasoa Turismo Elkargoa. Helburua da mugaz gaindiko bizikleta-plan bat ezartzea, lurraldean dagoeneko ezarri diren edo abian dauden orientabideei beste dimentsio bat emanez.



3.3. LLETaren 2015-2016-2017 urteetako proiektuen deialdiak

Euroeskualdeko Estrategia onetsi zenetik, LLETak Euroeskualde mailako proiektuei zuzendutako bere laguntza-deialdiak birdefinitu zituen. 2015az geroztik, urteko bi deialdi egin dira: bata, kulturaren, kirolaren, hezkuntzaren eta hizkuntzen (euskara barne, jakina) alorreko proiektuei zuzendutakoa, eta bestea jakintzaren eta berrikuntzaren ekonomiaren alorrera zuzendutakoa.

Ondorengo taulan, bide horretatik lagundutako jardueren laburpena jasotzen da (erantsitako tauletan, deialdi bakoitzean lagundutako proiektuen zerrenda osoa kontsulta daiteke). Guztira, 72 proiektuk jaso dituzte diru-laguntzak azkeneko hiru urteotan, 1,5 milioi euro baino gehiagorekin. Proiektu horietatik guztietatik 59 kulturaren, kirolaren, hezkuntzaren eta hizkuntzen alorreko deialdikoak dira, eta gainerako 13 proiektuak, berriz, jakintzaren eta berrikuntzaren ekonomikoaren alorrekoak. Proiektu kopuruari dagokionez dagoen desoreka hori arinagoa da aurrekontuei erreparatzen badiugu: lehenengo proiektu motek 900.000 € jaso dituzte azkeneko hiru urteotan (% 57), eta bigarren motakoek, 665.600 € (% 43). Beraz, proiektu bakoitzeko batez besteko diru-laguntza pixka bat handiagoa da ekonomia-berrikuntza alorreko proiektuetan (51.200 €-koa hiru urtean kontuan hartuta), kultura-kirol alorrekoetan baino (15.250 €).

3. 2015-2017 aldiko jardueren balantzea

3.1. koadroa Euroeskualde mailako proiektuetarako laguntza-deialdia, 2015-2016-2017: proiektu kopurua eta emandako diru-laguntza, alor eta urte bakoitzeko

1. KULTURAREN, KIROLAREN, HEZKUNTZAREN ETA HIZKUNTZEN ALORREKO DEIALDIAK			
Azpi-alorak/urteak	Proiektu kopurua	Diru-laguntza	Diru-laguntza, proiektu bakoitzeko
Kultura	25	437.165,99	17.487
Kirola	5	52.430,00	10.486
Hezkuntza eta gazteria	20	254.853,80	12.743
Euskara eta eleaniztasuna	9	155.415,00	17.268
2015	17	250.000,00	14.706
2016	19	250.000,00	13.158
2017	23	399.864,79	17.385
GUZTIRA 1	59	899.864,79	15.252
2. JAKINTZAREN ETA BERRIKUNTZAREN EKONOMIAKO DEIALDIAK			
Azpi-alorak/urteak	Proiektu kopurua	Diru-laguntza	Diru-laguntza, proiektu bakoitzeko
Osasuna/Bio-osasuna	2	120.020,00	60.010
Nekazaritza eta elikadura-industria	4	200.276,00	50.069
Energia berriztagarriak	3	145.250,00	48.417
Itsasoko eta itsasertzeko baliabideak	3	148.975,00	49.658
Aeroespaziala	1	51.150,00	51.150
2015	4	199.500,00	51.205
2016	4	185.501,00	60.010
2017	5	280.670,00	50.069
GUZTIRA 2	13	665.671,00	51.205
GUZTIRA 1+2	72	1.565.535,79	21.744
2015	21	449.500,00	21.405
2016	23	435.501,00	18.935
2017	28	680.534,79	24.305

Iturria: Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen LLET

Argi dago, beraz, nolabaiteko garrantzia eta masa kritikoa duten proiektuetara bideratuago eta horietan kontzentratuago dagoen politika baten aldeko hautua egin dela ekonomia-berrikuntza alorrean; beste alorrean, oster, politika generalistagoa aukeratu da, eta mugaz gaindiko jarduerak "xumeagoi" sostengua eman nahi izan zaie. Xumeak izan arren, baina, ezin izango ziren gauzatu laguntzarik izan ezean, edo gauzatzekotan, zailtasun handiekin.


3. 2015-2017 aldiko jardueren balantzea

Lehenengo proiektu multzoaren barruan, kultura-jarduerekin zuzenean lotutakoak gailentzen dira; 25 proiektuk deialdi horietako funtsen ia erdia jaso dute (437.165 € guztira), "hezkuntza eta gazteria" arloko (254.853 €), "euskara eta eleaniztasunarekin" (155.415 €) eta "kirolarekin" lotutako proiektuek (52.430 €) baino askoz gehiago.

Ekonomia-berrikuntza alorreko proiektuen multzoan, bestalde, "nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien industriaren" sektoreak dira nagusi, alor horretako funtsen herenarekin (200.276 €); ondoren daude "itsasoko eta itsasertzeko baliabideekin" lotutakoak (148.975 €), "energia berriztagarriei" dagozkien proiektuak (145.250 €), "osasuna/bio-osasuna" arlokoak (120.020 €) eta "sektore aeroespazialekoak" (51.150 €; proiektu bakarra, 2017an abiarazi zena). Diruz lagundutako proiektuen artean, honako hauek aipa daitezke:

- Osasunaren eta bio-osasunaren sektorea: CHRONICITY VALLEY; ONCONAEN
- Nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien industriaren sektorea: EUSKADI VIN AQUITAINE (EVA) eta EUSKABIOM; RESELoC; Onddo patogenoek mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorean duten inpaktua murriztea.
- Energia berriztagarrien sektorea: FROM SEANERGIES TO SEANERGY; BLUESARE; AAOE (Acoustic Around Ocean Energies)
- Itsasoko eta itsasertzeko baliabideen sektorea: OLIA ! Com: Ocean Living Lab; TURQUOISE 00; DINaMO-FiVe
- Sektore aeroespaziala : Konpositeak mekanizatzeko sistema robotikoa

3.1. grafikoa Euroeskualde mailako proiektuetarako laguntza-deialdia, 2015-2016-2017: emandako diru-laguntza, jardun-arloaren arabera



Azkenik, laguntzek denboran zehar izan duten bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da handitu egin direla funtsak 2017an (680.534 €); aurreko bi urteetan baino % 50 handiagoa izan da kopurua.

3. 2015-2017 aldiko jardueren balantzea

3.4. Hitzarmen estrategikoak

3.4.1. Ikasleen mugikortasuna

Akitania Berriko Unibertsitateen eta Ikastetxeen Komunitatearekin duen lankidetzaren barruan, LLETak unibertsitateko ikasleen mugikortasun akademikoa babesten du, beka-programa baten bitartez. Bi deialdi egon dira, 2016an eta 2017an, eta horien helburua izan da batez ere euskal eta nafar ikasleen mugikortasuna finantzatzea, Akitania Berrian dauden unibertsitateetara joan zitezen 2016/2017 eta 2017/2018 ikasturteetan.

Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako unibertsitateetako Goi-mailako, Masterretako eta Doktoretzako ikasleak izan dira laguntzen onuradunak. 2016an, 13 diru-laguntza eskaini zen gehienez, eta 30 beka, berriz, 2017an; onuradun bakoitzeko 300 euroko laguntza hilean, bost hilabetez. Laguntza hori dauden beste batzuei gehi dakieke (Erasmus, etab.).

3.4.2. Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campus

2010eko irailean, Euskampus¹ eta Bordeleko Unibertsitateko bikaintasun-guneak prestakuntzako, ikerkuntzako, berrikuntzako eta nazioarteko proiektuak espazio komun bat garatzeko eta finkatzeko hitzarmena sinatu zuten, Euskadi-Akitania-Nafarroa Euroeskualdean mugaz gaindiko unibertsitate campus bat osatuta. Mugaz gaindiko campusak ikasle eta ikertzaile gazteentzako mugikortasuna sustatzen du, baterako titulazioak eta tutoretza partekatutako, irakasle eta ikertzaileentzako mugikortasuna alor jakin batzuetan baterako ikerkuntza-programak ezarriz, eta nazioarteko testuinguru batean laneko praktiei eta lan-merkatura sartzea errazteko mugikortasuna. Helburua da goi-mailako alorretan, bikaintasuneko ikerkuntza-sareetan eta berrikuntzan nazioarteko erreferente izango den Campus bat eratzea, espezializazio komuneko arloetan ardatzuta.



Lankidetzaren horri esker, honako emaitzak lortu dira, besteak beste:

- Bi titulazio bikoitz berri hasi ziren 2016-2017 ikasturtean: enologiako master ofiziala, eta bioinformatikako master propioiko titulazio bikoitza.
- Gaur egun, tutoretza partekatutako 25 tesi egiten ari dira hainbat diziplinan.
- Azkeneko urtean, baterako lau proiektu europar onartu dira.
- Lau berrikuntza-proiektu handi garatzen ari dira Euroeskualdean, funtsezkoak diren sektoreetan, hala nola osasunaren sektorean (Chronicity Valley), ardoaren ekonomiaren sektorean (Euskadi-Vin-Aquitaine, EVA) eta itsasoko

3. 2015-2017 aldiko jardueren balantzea

bioteknogiarenean (Turquoise 00). Irriaketa ur-kirolen ekonomiaren alorra ere ari da lantzen (surfa, windsurfa, etab.), Ocean Living Lab-ekin.

- Mugaz Gaindiko Lankidetzako bi Laborategi fabrikazio aurreratuko eta nano-eskalako fisika eta kimika kuantikoko alorretan (azken hori, Donostia International Physics Center zentroarekin eta Materialen Fisikaren Zentroarekin –CSIS-EHU– batera).
- Bi unibertsitateen arteko ikasleen elkartrukerako dinamikak.

Azkenik, azpimarratu behar da Bordeleko Unibertsitatea 2017ko ekainean sartu zela formalki Euskampus Fundazioan erakunde patrono gisa; era horretan, sendotu egin du EHUrekiko eta Euskadiko gainerako bazkideekiko (Tecnalia, DIPIC, Ormazabal Taldea, CAF eta Ikerbasque) konpromisoa.

• INTERC

Biharteanek (Baiona-Euskadi-Gipuzkoa¹⁰ mugaz gaindiko Merkataritza eta Industria Ganbera) eta Orkestrak (Lehiakortasunerako Euskal Institutua) Euroeskualdearen espazioan kluster-sareak eta lehiakortasun-ardatzak garatzeko bultzatutako proiektua.

• “AQUITAINE.EUS”

Etxepare Euskal Institutuaren eta Euskal Kultur Erakundearen arteko hitzarmena da, Akitanian euskal kultura-sortzaileen mugikortasuna eta zabalkundea bultzatzeko eta Euroeskualdearen lurraldean mugaz gaindiko harreman artistikoak sortzeko.



¹⁰ Nafarroako Ganbera Biharteanen sartu zen 2017ko ekainean.

3. 2015-2017 aldiko jardueren balantzea

• ZUBIAK

Zubiak proiektua da Euskadi Irratia eta France Bleu Pays Basque irrati arteko koprodukzio bati esker, astero euskarazko irratsaio bat eskaintzen duen ekimena. Larunbatetan emititzen da irratsaioa, 12:00etatik 13:00etara, France Bleu Pays Basque irratiari, eta igandetan, berriz, Euskadi Irratian, 15:00etatik 16:00etara. Besteak beste, Euroeskualdeko ekintzak ezagutarazten ditu irratsaio horrek, eta irrati bakoitzeko erredakzioko arduradunek prestatzen dute- Podcastak jaits daitezke irrati bien webguneetatik. Gaur egun, Nafarroa ere sartuta dago programazioan.



• CoP

Hitzarmen estrategiko honen helburua da Euroeskualde mailako ikaskuntzako eta lanbide heziketako eragileen ekosistema bat sortzea eta garatzea (Lanbide Heziketako ikastetxeak, enpresak, gai horretan eskumena duten europar erakundeak, ikasleak, irakasleak...).



**4. EUROESKUALDEKO
ERAGILE
SOZIOEKONOMIKOEI
EGINDAKO
INKESTAREN
EMAITZAK**

4. Euroeskualdeko eragile sozioekonomikoei egindako inkestaren emaitzak

4.1. Sarrera eta metodologia

Euroeskualdearen 2014-2020 aldirako Plan Estrategikoa eguneratzeko erabilitako tresna metodologikoetako bat izan da eragile ekonomiko, sozial eta instituzionalei zuzendutako *online* bidezko inkesta bat egitea. Helburu nagusia izan da orain dela hiru urte ezarritako lau lehentasunek lurralde-eremu berrian duten baliozkotasuna kontrastatzea (Nafarroa sartu da, eta Akitania Berria eratu da, batu egin baitira Akitania eta Poitou-Charentes eta Limousin eskualdeak), horien indarraldia zehazteko, potentzial berriak antzemateko eta, hala badagokio, dagozkion egokitzapenak egiteko helburuz.


Erabili zen galdetegia *online* formatuan diseinatu eta zabaldu zen, eta 2018ko otsailean eta martxoan egon zen martxan. Ondorengo epigrafe handi hauetan egituratuta zegoen edukia:

- Erantzuten duen pertsonaren/erakundearen ezaugarri bereizleak
- 2014-2020 aldirako Plan Estrategikoan ezarritako lehentasunen baliozkotzea eta egokitasuna.
- Euroeskualdea geografikoki handitu izanaren inpaktu nagusiak
- Eskualde berriek dakartzaten elementu bereizgarriak
- Euroeskualderako funtsezkoak diren sektore ekonomiko berri posibleak
- Etorkizunean esku hartzeko lehentasunezko alorrak Euroeskualdean

150 erantzun jaso ziren guztira; prestakuntzaren alorreko eragileak izan ziren erantzun zutenetatik gehienak, bai eta sektore-elkarteak eta -klusterra, elkarte sozialak eta kulturalak ere.

Parte-hartzaileek, lankidetzaproiektuetan duten esperientziari dagokionez, duten profilari dagokionez, emaitzek erakusten du eragile gehienek adierazi dutela ez duela inoiz lankidetzaproiektuetan parte hartu (% 56; gainerako % 46k era horretako proiektuetan parte hartu duela adierazi du).

4. Euroeskualdeko eragile sozioekonomikoei egindako inkestaren emaitzak



4.2. 2014-2020 Planaren lehentasun estrategikoen egokitasuna

2014-2020 aldirako Plan Estrategikoan definitutako lau lehentasun nagusiak (Euroeskualde herritartasuna, Jakintzaren Ekonomia, Enpresa-berrikuntza eta -lehiakortasuna, eta Lurralde jasangarria Gobernantza Irekia) egokitzen dira eta berretsita geratzen dira, kontsulta honetan lortutako emaitzen arabera.

Inkestan parte hartu duten pertsonen gehiengo handi batek (hamarretik zortzik) oso garrantzitsutzat edo nahiko garrantzitsutzat kalifikatzen dituzte Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak Jakintzaren Ekonomiari, Lurralde Jasangarriari eta Euroeskualdeko Herritarrei dagokienez ezarritako lehentasunak; lehenengo biak dira puntuazioen rankingaren buruan daudenak. Nafarroaren kasuan, baina, Euroeskualde Heritartasuna izan zen puntuazioa handiena jaso zuena.

Gobernantza Irekiaren alorra da puntuaziorik txikiena jaso duena (hiru eskualdeetan), eta erantzunik gabeko indize handiena duena.

4. Euroeskualdeko eragile sozioekonomikoei egindako inkestaren emaitzak

4.1. koadroa Lehentasun estrategikoei emandako balorazioa

	Euroeskualde herritartasuna		Jakintzaren ekonomia		Lurralde Jasangarria		Gobernantza Irekia	
▪ Oso garrantzitsua	57	38,0	85	55,9	87	56,7	36	24,1
▪ Nahiko Garrantzitsua	51	34,0	36	24,8	35	24,0	52	34,5
▪ Garrantzitsua	21	14,0	14	9,7	14	9,3	37	25,5
▪ Garrantzi gutxikoa	8	5,3	5	3,4	7	3,3	13	9,0
▪ Batere garrantzirik ez duena	6	4,0	6	3,4	5	4,0	4	2,1
▪ ED/EDE	7	4,7	4	2,8	2	2,7	8	4,8
▪ GUZTIRA	150	100,0	150	100,0	150	100,0	150	100,0
Batez besteko puntuazioa (0-5)	4,0		4,3		4,3		3,7	


4.3. Lurralde-eremua handitu izanaren efektuak

4.3.1. Lurralde-eremua handitu izanaren abantailak eta inpaktuak

Lankidetzako aukera berriak sortu izana eta Europan posizionamendu hobea izatea dira Euroeskualdea geografikoki handitu izanari dagokionez (Poitou-Charentes eta Limousin departamenduak eta Nafarroa sartuta) antzemandako abantaila nagusiak. Emandako garrantziaren arabera, masa kritikoa irabazten dela eta teknologia- eta berrikuntza-sarea hedatzeko aukerak sortzen direla dira hurrengo alderdiak.

4. Euroeskualdeko eragile sozioekonomikoei egindako inkestaren emaitzak

4.1. grafikoa Lurralde-eremua handitu izanaren abantailak eta inpaktuak



4. Euroeskualdeko eragile sozioekonomikoei egindako inkestaren emaitzak

4.3.2. Euroeskualdearen espazioan sartu diren eskualde berrien elementu berezigarriak eta indartu diren sektoreak

	Sektoreak	Beste batzuk
NAFARROA	- Nekazaritza, nekazaritzako industria, ekoizpen osagarriak (olioa, arbendolak, frutak) - Osasuna, Ikerkuntza eta Industria-berrikuntza - Natura-espazioak - Turismoa - Energia berritzagarriak - Hizkuntzen industria - Kultura eta prestakuntza - Landa-garapena	- Enpresa-sarea - Gizarte aurreratua berrikuntzan, zientzietan eta prestakuntzan (unibertsitatea) - Hitzarmenak - Biomedikuntzan ikertzeko azpiegitura - Legitimitate historikoa, indartzea eta homogeneousuna - Lurraldeen arteko koherentzia hizkuntza- eta kultura-lankidetzan - Kontsumitzaileen arteko esperientzia-elkartrukea - Pirinioetako hegoaldeko fatxada - Gizarte Ekonomia - Aragoierikiko muga
POITOU-CHARENTES	- Kirola-Osasuna (Poitiers) - Lehenengo sektorea, nekazaritza eta itsas hazkuntza - Uretako jarduerak (La Rochelle) - Garraio materiala - Energia berdea, kimika berdea, bio-osasuna - Sormen-industriak - Irudia - Digitala - Industria	- Zerbitzu-enpresen sarea - Itsaso-gunea osatzea fatxada atlantikoan - Kosta-zerrendaren kudeaketa - Arrantza-portuak (3) - Biztanleria, masa kritikoa - Ondarearen, kulturaren eta berrikuntza-gaitasunen ezagutza - Futuroscope - Arriskuen kudeaketa - Luxuzko produktuak - Ekonomia soziala eta solidarioa
LIMOUSIN	- Kultura - Lehenengo sektorea, nekazaritza eta basozaintzako sektorea - Silberekonomia - Teknologiak - Zeramika, artisautza, sormen-ekonomia - Kosmetika - Industria - Ikerkuntza	- Unibertsitate-gunea - Hitzarmenak - Masa kritikoa - Poitou-Charentes Kontsumoko Eskualde Zentroko antena - Dentsitate txikiko eremuen ikuspegia, berrikuntza-iturri - Landa-ekonomia eta -garapena

4. Euroeskualdeko eragile sozioekonomikoei egindako inkestaren emaitzak

4.3.3. Euroeskualdearen Estrategian indartu edo sartu beharreko alor tematikoak

Ondorengo elementuak azaltzen dira Euroeskualdearen estrategian indartu beharreko alorrei buruz egindako inkestan lortutako erantzunetan:

- **Turismoa**
- **Kultura eta Sormen Industriak.**
- **Garraioa, Mugikortasuna eta Euroeskualdeko azpiegituren Politika**
- **Ekonomia urdina**
- **Agroekologia soziala**
- **Osasuna eta Zahartzea**
- **Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Prestakuntza**
- **Enplegua, Gizarte Segurantzaren eta Langileen Mugikortasuna**
- **Ekonomia zirkularra eta eraikuntza jasangarria**
- **Landa-garapen jasangarria, natura-espazioak, itsasertza eta biodibertsitatea**
- **Lurralde-antolamendua eta hirigintzako plangintza**

Intereseko alor gisa (ez zeuden berariaz adierazita Estrategiaren lehenengo bertsioan), ondorengo hauek jaso dira:


- **Gizarte Zerbitzuak** (Hirugarren Sektorea, jarduera soziala, kolektibo zaurgarriak...)
- **Digitalizatzea**
- **Konsumitzailearenganako arreta**

4. Euroeskualdeko eragile sozioekonomikoei egindako inkestaren emaitzak

4.4. LLETaren jardueraren orientabidea etorkizunean

Inkestan parte hartu duten eragile gehienek uste dute europar finantzazioa bilatzea eta europar deialdiei erantzun bateratua ematea izan behar direla Euroeskualdearen etorkizuneko jardunaren muina: erantzunen % 61ek egiten du aukera horren alde; ranking horretan, lankidetzak instituzionala, politiken koordinazioa eta elkarrengandiko ikaskuntza daude jarraian: erantzunen % 45.

4.2. grafikoa Euroeskualdearen ekintzen orientabidea etorkizunean



5. EUROESKUALDEAREN ESTRATEGIAREN EGUNERATZEA

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

5.1. Sarrera: Ikuspegia, Misioa eta Erronka Estrategikoak

Aurreko kapituluetan egindako analisiak kontuan izanda, Nafarroaren sarrerarekin eta Nouvelle Aquitaine eskualdearen osaera berriarekin Euroeskualdea handitu izanaren ondoriozko aldaketek 2014an definitutako Estrategian funtsezko aldaketarik ez dutela eskatzen uste da. Zentzu horretan, ñabardura txiki batzuekin, berdin mantentzen dira Ikuspegia eta Misioa, bai eta orduan formulatutako lau Orientabide Estrategikoak, nahiz eta berrikusi egin diren eta egindako parte-hartze prozesuan parte hartu duten eragileek formulatutako alderdi ezberdinak gehitu zaizkien.

IKUSPEGIA


Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea, lankidetzarako espazioa izango dela, elkarren artean konektatutako eta erlazionatutako HERRITARRAK; ENPRESA LEHIAKORRAK, UNIBERTSITATEAK, JAKINTZA ZENTROAK eta BESTE ERAGILE batzuk izango dituen, elkarrekin lan egin eta ekimenak ezarriko dituztenak, era horretan merkatu berrietara sartuz eta garapen ekonomiko eta sozialeko aukerak sortuz; LURRALDE JASANGARRI batekin, erakargarria, ondo konektatutakoa (barnean zein kanpoarekin) eta europar garapen-ardatzekiko ondo kokatutakoa, non bere KAPITAL SOZIALA hobetuko duten eragilez eta azpiegiturez osatutako sare bat hedatzen den. Eta hori guztia LANKIDETZAREN GOBERNANTZAREN bitartez, ekimenak dinamizatzea eta lankidetzako eragileek beren lan-esparruetan bultzatzen dituzten PROIEKTU ZEHATZEI bide ematera bideratuta.

LLETaren MISIOA

Bere Estatutuen arabera, LLETaren berariazko helburua da Euroeskualdearen ekonomia, gizarte eta kultura garatzen lagunduko duten lankidetzak-ekintzak burutzea. Halaber, Euroeskualdea toki-, eskualde- eta nazio-instantzietan eta Europakoetan eta nazioartekoetan ordezkatzea da beste helburuetako bat. LLETak kide direnen arteko eta haien aldeko mugaz gaindiko edo eskualdez gaindiko elkarlana lagundu eta sustatuko du, «lurralde-lankidetzak» deritzona. Hori guztia Europar Batasunaren barruan lurralde horien ekonomia eta gizarte mailako kohesioa sustatzeko helburuarekin egingo da, eta estatu barruko lurralde-antolaketa errespetaturik jardungo da. LLETaren helburuarekiko ordezkaritza bermatuko du LLETak hirugarren erakundeen aurrean (toki, eskualde, nazio, europar edota nazioarte mailan).

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

ORIENTABIDE ESTRATEGIKOAK



5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Euroeskualde herritartasuna

DIAGNOSTIKOA

Aurrerapenak egin diren arren, hor jarraitzen du “mugak”, eta beharrezkoa da hiru eskualdeen arteko ezagutza-maila handiagoa; ez dago Euroeskualde sentimendurik; alde kulturak nabariak; lan egiteko modu ezberdinak; hizkuntza benetako oztopoa da; elkartruke gutxi; ez dago garraio publikoko sare egokirik, etab.

ERRONKA

Hobeto konektatutako eta elkarren arteko harreman handiagoko biztanleria ahalbidetzea, elkarrekiko ezagutza eta Euroeskualdearen kontzientzia partekatua zailtzen dituzten oztopoak kenduz, gazteriarengan arreta berezia jarritz.

- Herriarrak dira beti arlo publikotik bultzatutako edozein ekimenen hartzailleak. Horrela, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Garapenerako 2014-2020 aldirako Estrategiak bere egiteko beteko du, baldin eta Euroeskualdeko biztanleen ongizate-maila hobetzen laguntzen badu. Aldi berean, herriarrak izan behar dira lankidetzaren prozesuaren protagonistak eta eragileak Euroeskualdearen espazioan.
- Horregatik, Euroeskualdearen Garapenerako Estrategiak mendetan muga izateak eragindako elkarren ezagutza falta, oztopo kulturalak eta beste gaitzitzen lagunduko duen prozesu bat bultzatu behar du. Orobat, LLETaren funtsezko erronkak izan behar dira pertsonen mugaz gaindiko mugikortasuna erraztea, haien arteko komunikazioa bultzatzea dagozkion hizkuntzak ikastea sustatuz, bai eta elementu kultural komunak garatzea ere, Euroeskualdearen partekatutako kontzientzia bat bultzatuz.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Jakintzaren Ekonomia, Berrikuntza eta Enpresa-lehiakortasuna

DIAGNOSTIKOA

Oraindik oso gutxi ezagutzen dira Euroeskualdeko sektoreetako balio-kateetan lor daitezkeen sinergiak; enpresen eta jakintza-eragileen arteko lankidetzarako aukerak, hainbat jarduera-sektoretan lidergo-posizionamendua lortze aldera; I+G+b, klusterrak eta Unibertsitateak babesteko sistema garrantzitsua; oso ondo prestatutako biztanleria; ez dago enplegu-arro integraturik; oztopo administratibo handia mugaz gaindiko jarduera eta enplegurako, etab.

ERRONKA

Jakintzaren ekonomiarantz aurrera egitea; enpresen lehiakortasuna eta merkatu berrietarako sarbidea hobetzea, enpresen arteko eta hezkuntza-sistematikiko eta Euroeskualdean dauden ikerkuntza- eta berrikuntza-zentro guztiekiko lankidetzaren sustatzea.

- Jarduera ekonomikoa eta enpresak dira gizarte modernoaren bizitza sostengatzea ahalbidetzen duten oinarria, eta horien mende dago herritarren ongizatea. Euroeskualdearen espazioan, mugaren eraginez, enpresak elkarri bizkarra emanda bizi izan dira oro har, elkar oso gutxi ezagututa eta lankidetzaren aukerak benetan aprobetxatu gabe.
- Zentzu horretan, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Garapenerako 2014-2020 aldirako Estrategiaren helburua da hiru komunitateetako enpresen arteko elkarrekiko ezagutza eta komunikazioa hobetzea, bai eta I+G+b alorreko, berrikuntza teknologikoko, prestakuntzako (Lanbide Heziketa eta Unibertsitateak) eta enpleguaren eragile eta bultzatzaile guztien artekoa ere. Hain zuzen ere, Estrategia horrek inplikaturako eragilearen arteko elkarrekiko ezagutzarako eta lankidetzarako funtsezko tresnak (hezkuntza-mugikortasuna, titulazio komunak, etab.) eta foroak sustatu behar ditu, mugaz gaindiko ekintzailetza bultzatu, eta elkarrekin lan egiteko, jarduera berriak garatzeko eta merkatu berrietara sartzeko aukera emango dieten sinergiak bultzatu.
- Funtsezkoak eta estrategikoak diren sektoreetan (hiru eskualdeetan RIS3 estrategiek eta arloko beste plan batzuek zehaztutakoak) kontzentratu behar dira batez ere esfortzuak; sinergiak aurkitzeko aukera handiagoa izango da horietan.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Lurralde eta Mugikortasun Jasangarria

DIAGNOSTIKOA

Eraginkortasun eza, garraioko eta mugikortasuneko azpiegituren arteko koordinazio faltagatik; salgaien errepide bidezko garraioaren aldeko hautu masiboa; aukeraren kostu handiak, abiadura handiko tren-konexioaren atzerapenarekin lotuta; itsasertza, hondartzak, natura-espazioak eta basoak lankidetzaren elementu bultzatzaile sendoak dira; aukerak natura-baliabideei lotutako hazten ari diren jardueretan; natura-ondarea ondo zainduta dago; turismoaren sektorea hazten ari da eskualde hiruretan, etab.

ERRONKAK

Pertsonen eta salgaien mugikortasuna hobetzea, lurraldea zaintzeari arreta jartzea, baliabideen erabilera jasangarria izan dadin zaintzea, eta dituen potentzialei eta erakargarritasunei balioa ematea; hori guztia, estrategia partekatuen bitartez.

- Azken batean, gizakiaren jarduera guztiak sostengatzen diren oinarria da lurraldea. Euroeskualdearen eremu geografikoan lankidetzarako ageriko beharrak daude, jasangarritasun-irizpideen arabera zaindu eta aprobetxatu dadin.
- Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen Garapenerako 2014-2020 aldirako Estrategiak Euroeskualdeko heritarren eta sektore ekonomikoen konektibitatea ahalbidetu behar du, eta Euroeskualdearen espazioa europar garapen-ardatzetan kokatzen lagundu, azpiegitura eta garraio-zerbitzu egokien bitartez.
- Halaber, ingurumenari eta lurralde-antolamenduari dagozkien gaiak jorratzea eta horien inguruko lankidetzak funtsezko elementua dira partekatutako itsasertz handia duen natura-espazioa zaintzeko testuinguruan, bai eta eskualde hiruren esperientziatik eta *know-how*-tik ikasteko aukerak ere.
- Natura-baliabideak erabiltzeak eta, zehazki, abelazkuntza, nekazaritza eta basozaintzako ekoizpen-esparruetan dagoen potentzialaren aprobetxamenduak –ekoizpenean eta merkaturatzean– hiru eskualdeen arteko lankidetzarako espazio handiak eskaintzen ditu. Bestalde, energia beriztagarriak bultzatzea da partekatutako beste erronka bat, eta dagoeneko azaleratu da hainbat osagarritasun.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

- Azkenik, turismoaren arloko lankidetzak kanpoko merkatuetan lurralde komunari balioa ematen eta erakargarritasuna areagotzen lagundu behar du, betiere ingurumen-kalitate handiko parametroetan.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Gobernantza

DIAGNOSTIKOA

Egitura instituzional konplexua; eragile ugari, eskumenei, alderdi fiskalei eta kultura administratiboari dagozkien asimetriekin; administrazioen arteko lankidetzarako kultura eskasa. Eragile ekonomiko eta sozialek ez dute nahikoa ezagutzen LLET; lankidetzaren proiektu ugari bultzatu da, giza baliabide, finantza-baliabide eta baliabide tekniko mugatuekin.

ERRONKA

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea LLETaren bitartez, lankidetzaren maila anitzeko gobernantza bati laguntzea, estrategian jasotako esparru tematikoetan ekimenak partekatu eta koordinatuko dituen, bai eta eragileek bultzatutako proiektu zehatzak ere. Euroeskualdearen zabalkundea eta komunikazioa eta LLETak garatutako jarduerak ere bultzatzea.

- Euroeskualdeko lankidetzaren gobernantza egokia funtsezkoa da prozesuak arrakasta izan dezan. Zentzu horretan, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen LLETak alor tematiko estrategikoetako lan-talde egonkorretan (focus groups) oinarritutako maila anitzeko lankidetzaren sustatu behar du, eta proiektu zehatzak bultzatu edo lagundu, betiere subsidiariorotasun-printzipioa errespetatuta. Mugaz gaindiko lankidetzaren "zirkulu zentrokideen" eskema du Euroeskualdearen espazioan, eta LLETak, eragile ezberdinen autonomia eta eskumenak errespetatuz, ekintzak koordinatuta egon daitezen eta logika komuna izan dezaten lan egin behar du.
- Ikuspegi horretatik, LLET maila ezberdinetako askotariko zereginak garatuko dituen eragilea izan behar da, hala nola: proiektu estrategiko propio jakin batzuk bultzatzea/sustatzea, edota beste eragile batzuek garatutako proiektuetan laguntzea; beti ere eragile horien lana errazteko eta elkarrekiko ezagutza eta harremanak sustatzeko oinarizko eginkizunarekin, bakoitzaren eskumen-esparruak errespetatuta.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

5.2. Euroeskualdeko herritartasuna

1. jardun-ardatza.

EUROESKUALDEKO HERRITARTASUNA

- **1.1. jardun-ildoak:**
ORO HAR BIZTANLEEK, BATEZ
ERE GAZTEEK, ETA BEREZIKI
PROFESIOALEN KOLEKTIBO
JAKIN BATZUEK,
EUROESKUALDEKO HIZKUNTZEI
BURUZ DAUKATEN JAKINTZA-
ETA ERABILERA-MAILA
HOBETZEA

1.1.1 ekintza: Euroeskualdeko hizkuntza-egoerari buruzko azterketa sakona egitea eta biztanleak sentsibilizatzea Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteak duen balioari buruz.

1.1.2 ekintza: Euroeskualdeko eremuko hizkuntzak eta bereziki euskara babestea ondare eta hizkuntza komun gisa

1.1.3 ekintza: Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteko aukera sustatzea ikasleen artean

1.1.4 ekintza: Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteko aukera sustatzea hainbat lanbide-sektore espezifikotan, hala nola merkataritzan, ostalaritzan, turismoan eta pertsonen arretan

- **1.2. jardun-ildoak:**
KULTURA EUROESKUALDEKO
LANKIDETZAREN BENETAKO
ARDATZ EGITURATZAILEA IZAN
DADIN LORTZEA

1.2.1 ekintza: Europa sortzailearen barruan sartutako proiektuen garapena babestea

1.2.2 ekintza: Diziiplina anitzeko foro egonkorra eta azoka estrategikoa finkatzea, Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako kultura- eta sormen-erakundeek ideiak batera jartzeko eta gogoeta egiteko

- **1.3. jardun-ildoak:**
EUROESKUALDEKO GAZTEEK
ELKAR EZAGUTZEKO ETA
ELKARRI ERAGITEKO AUKERA
AHALBIDETZEA

1.3.1 ekintza: Euroeskualdeko gazteen mugikortasuna sustatuko duten kirol-, kultura- eta gizarte-arloko ekintzak babestea

1.3.2 ekintza: Ikastetxeen arteko lankidetzak sustatzea, hainbat ekintza bultzatuz, hala nola ikastetxe-trukeak, gazteek elkar ezagutu dezaten

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Euroeskualdeko herritartasuna

1.1. jardun-ildoak

ORO HAR BIZTANLEEK ETA BEREZIKI PROFESIONALEN KOLEKTIBO JAKIN BATZUEK EUROESKUALDEKO HIZKUNTZEI BURUZ DAUKATEN JAKINTZA- ETA ERABILERA-MAILA HOBETZEA

Esparrua

Hizkuntza-oztopoa eragozpen handia da Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako herritarrek elkar ezagutzeko; mugaz gaindiko enplegurako trebakuntza mugatzen du, eta, beraz, lan-mugikortasunerako eta ekonomia eta enpresa-arloko lankidetzarako aukerak baldintzatzen ditu. Gainera, murriztu egiten du gizarte-mugikortasuna, eta, ondorioz, kultura-identitate partekatua ahuldu egiten da.

Gogoeta estrategikoan parte hartu zuten eragile ia guztiek (kultura-eragileek, eragile ekonomikoek, prestakuntza-eragileek eta abar) azpimarratu zuten garrantzitsua dela hizkuntzaren oztopoa gainditzea eta "hizkuntza-konektibitatean" aurrera egitea. Hausnarketa estrategiko horren ondorioz etorri zen Euroeskualdeko Plan Estrategikoa (2014), eta plana eguneratzen ari garen honetan ere horien garrantzia azpimarratu da.

Herritarrek "Euroeskualdeko beste hizkuntza batzuk" oso gutxi ezagutzen dituztela nabarmen geratu da, berriro ere, LLET taldeak sustatu duen proiektuan, "ENPLEGUA: Europa indartuz: Euroeskualdeko enplegu-arroa garatzea Akitania Berriaren, Euskadiren eta Nafarroaren artean"; proiektu horretan mugaz gaindiko enpleguaren arazoa aztertu da. Gainera, bere neurketa hobetzeko beharra jarri du agerian, izan ere, beti ez datoz bat erabilitako kontzeptuak, ezarritako metodologiak eta eginiko ebaluazioaren periodikotasuna Euroeskualdea osatzen duten hiru geografia-esparruetako bakoitzean.

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko lau hizkuntzak (okzitania, euskara, espainiera eta frantsesa) Euroeskualde horren funtsezko balioa dira. Dena dela, ezin da ukatu ingelesa bigarren edo hirugarren hizkuntza dela gazteen artean, eta azpimarratu beharra dago nazioarteko komunikazioen eta teknologia berrien garapenaren esparruan lortu duen hedapena. Berezko joera horrek eragin garbia du Euroeskualdeko hizkuntza propioen ikaskuntzan.

Aparteko aipamena merezi du Euroeskualdean euskarak bizi duen egoerak. Izan ere, euskara Euskal Autonomia Erkidegoko¹¹ hizkuntza ofiziala da, baita Nafarroako Foru Erkidegoko¹² eremu euskaldunekoa ere. Era berean, hiztunak ditu Ipar Euskal Herrian, eta haren irakaskuntza babesten dute bai Akitaniako hezkuntza nazionalak bai kolektibitate publikoek ere. Beraz, euskara partekatzen da Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa mugaz gaindiko lurraldearen zati batean, eta horrek komunikazio-balio berezia ematen dio. Egoera horrek justifikatzen du estrategia bereizia hartzea mugaren inguruko zonan, euskara ardatz duen estrategia.

Mugaz gaindiko hizkuntza-prestakuntza sustatzeari dagokionez, azpimarratu beharra dago, bereziki, Eskola Futura proiektua. Proiektuaren helburua da frantsesa, euskara eta okzitanieraren ezagupena sustatzea etorkizuneko irakasleen artean (frantsesa-euskara eta frantsesa-okzitaniera irakasle elebidunen kopurua areagotzeko beharrak eragina); horren ondorioz enplegu-aukerak areagotuko dira (gazteen enplegua).

¹¹ Azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.

¹² Nafarroako Foru Erantza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Euroeskualdeko herritartasuna

1.1. jardun-ildoak

ORO HAR BIZTANLEEK ETA BEREZIKI PROFESIONALEN KOLEKTIBO JAKIN BATZUEK EUROESKUALDEKO HIZKUNTZEI BURUZ DAUKATEN JAKINTZA- ETA ERABILERA-MAILA HOBETZEA

Era berean, aipatu beharra dago Pirinioez gaindiko Konferentzia Atlantikoak garatzea aurreikusi duen proiektua, hain zuzen ere Irun eta Hondarribia mugako udalerrietan irakaskuntza arautuaren barnean frantsesaren ezagutza sustatzeko.

Era berean, eta azken hamarkadetan frantsesaren irakaskuntzan gertatu den protagonismoaren galera zuzentzeko, aipa daiteke duela gutxi ikerketa bat egin dela Gipuzkoan Frantses Lizeoa sortzeko aukera aztertuz.

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak garrantzia ematen dio hizkuntzaren oztopoa gainditu eta Euroeskualdeko herritartasunaren kontzeptua eta identifikazioa garatzeko erronkari; hori garbi agertzen da behin eta berriro egin izan dituen eleaniztasunaren inguruko deialdietan, baina baita gazteen mugikortasunaren edo kultura- eta kirol-topaketen arloko beste ekimen batzuetan ere, non hizkuntza izan baitaiteke zeharkako ardatza.

Helburu orokorra

Lortu nahi den helburua Euroeskualdeko herritarrak konektatuta egotea da, hizkuntzaren bidez, eta horrela herritar horiek elkarrekin komunikatu eta elkar ezagutu ahal izatea. Europako herritartasuna eleaniztasuna oinarri hartuta eraikitzen da. Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak aberastasun hori baduenez gero, LLETaren helburuetako bat izango da aberastasun horren iraunkortasunean laguntzea, Euroeskualdearen identitatearen berezko elementua baita.

Deskribapena

Euroeskualdeko estrategiak honako helburu hauek ditu hizkuntzaren arloan:

- Euroeskualdeko hizkuntzetako ikasleen kopurua handitzea, eta, horretarako, bereziki haurrak eta gazteak bultzatzea. Era berean, bereziki Lanbide Heziketako sistemari jarriko zaio arreta; arlo horretan, eskumen handiak daude hiru lurraldeetan, eta, beraz, epe motzean jarduteko aukera handiagoa da.
- Euroeskualdeko hizkuntzen jakintza eta erabilera sustatzea helduen eta profesionalen artean, hau da, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren arloan; bereziki landuko dira elkarrenerginerako hizkuntza ezinbestekoa den jarduera ekonomikoak edo sektoreak (merkataritza, ostalaritza, turismoa, pertsonen arreta, eta abar.).
- Oro har, Euroeskualdeko hizkuntza propioen ikaskuntza sustatzea.

Helburu horiek lortzeko, prestakuntza, sentsibilizazio eta komunikazioko ekintzak, informazioaren teknologia berriak baliatzeko ekintzak eta abar egin behar dira.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

1.1.1 ekintza

Euroeskualdeko hizkuntza-egoerari buruzko azterketa sakona egitea eta biztanleak sentsibilizatzea Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteak duen balioari buruz

Euroeskualdeko hizkuntzen jakintza-mailari buruz dagoen informazioa partziala eta zatitua da, eta ez dago argazki zehatzik Euroeskualdean lau hizkuntzak zenbateraino sartuta dauden jakiteko. Hori horrela, ez dago erantzun bateratu edo orokorrik zenbait galderari buruz, adibidez, Hizkuntza propioen zenbat herritar eleanitz daude Euroeskualdean? Zein da Euroeskualdeko enpresen jakintza- eta erabilera-maila? Zein da saltokietako jakintza- eta erabilera-maila? Are gutxiago, ez dago erantzun bateraturik kolektiboaren araberrako (adina, jatorria, bizilekua, jarduera-sektorea, eta abar) gaitasun-mailari buruz.

Euskarari dagokionez, Euskadi, Nafarroa eta Iparraldeko euskararen erabilerari buruzko datu estatistikoak daude eta aldiari behingo (bost urtez behingo) eta eguneraturiko neurketa, azken datua 2016koa izanik (Soziolinguistika Klusterra). Euskal Adierazle Sistemaren garapena (EAS) oso garrantzitsua izan da euskararen egoera ezagutzeko. Sistema hori POCTEFA erakundeak finantzatu du eta Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, EEP erakundeak eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiek sustatu dute.

Okzitanierari dagokionez, hizkuntza horrek Akitanian duen presentzia eta erabilerari buruzko informazioa dago, baina 2008an eginiko inkesta bateko datuak dira.

Hizkuntza nagusiei dagokienez, frantsesari eta espainierari alegia, eguneraturiko informazio konparagaririk ez dago (kontzeptu desberdinak erabiltzen dira ezagupen-maila neurtzeko).

Beraz, eleaniztasuna suspertzeko helburu kuantitatiboak ezartzeko eta harturiko neurrien eragina eta eraginkortasuna aztertzeke beharrezkoa da ikerketa soziolinguistiko bat egitea. Horretarako, beraz, dagozkion eragiketa estatistikoak proposatu behar dira. Eragiketa horiek antolatzeke gutxienezko irizpide batzuk adostu behar dira (xede diren biztanleak, erabilitako kontzeptuak, ikerketaren norainokoa, balorazio-aldiak, eta abar), gaiaren ikuspegi osoa izateko.

Bestalde, Euroeskualdeko biztanle guztiei mezu garbiak helarazi behar zaizkie, Euroeskualdeko hizkuntzak jakin eta erabiltzeak eskaintzen dituen balioa eta aukerak agertuz: enplegua lortzeko aukera gehiago, merkatu berrietan sartzeko eta kultura-eskaintza berriak lortzeko aukera eta abar. Horri dagokionez, goian aipaturiko Eskola Futura proiektua aipa daiteke. Proiektu hori Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak sustatzen du, eta irakasle elebidun izan nahi duten mugaz bi aldeetako irakasle-ikasketetako ikasleei laguntza ematea du helburu. Bi helburu nagusi ditu: hiru eskualdeetako herritarren artean hizkuntza horien erabilera eta jakintza indartzea eta gazteen enplegua bideratzea. Proiektu hau oso ondo hartua izan da eta interes handia piztu du; horregatik, Plan Estrategikoaren hurrengo urteetan ere aurrera jarraitu behar du.

Azken batean, hedapen-kanpainak egin behar dira Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteak duen garrantziaren inguruan, haien erakargarritasuna areagotzeko. Horri esker lotura estuagoak ezarriko dira Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroaren artean, bereziki kulturaren, jardueraren ekonomikoaren eta hezkuntzaren arloan.

5. Euroeskualdearen estrategiaaren eguneratzea

1.1.2 ekintza

Euroeskualdeko eremuko hizkuntzak eta bereziki euskara babestea ondare eta hizkuntza komun gisa

Euroeskualdeko hizkuntza propioei –euskarari eta okzitanierari– arreta berezia eskaini behar zaie. Bi kasuetan, Euroeskualdeko hizkuntza propio horietan hitz egin eta bizi nahi duten herritarrek arazo bati aurre egin behar diote, alegia, hizkuntza-aukeren berdintasun faltari. Euroganberak hizkuntza horiek babesteko eta haien ezagutza sustatzeko beharra aldarrikatu du.

Euskara, gainera, Euroeskualdeko ondarea eta mugaz gaindiko lankidetzarako baliabide nagusietako bat da. Euroeskualdeko lurraldearen zati batean duen hizkuntza ofizialaren estatusari dagozkion balio praktiko eta operatiboak lotzen ditu euskarak. Hortaz, ia ezinbesteko hizkuntza da Euroeskualdeko lan-merkatuan, eta, bereziki, Euroeskualdeko sare sozioekonomikoaren funtsezko sektore batzuetan, hala nola ostalaritzan, merkataritzan, zerbitzu-enpresetan, garraioan, aisian, kulturen eta abar. Azpimarratu beharra dago, halaber, euskarak mugaz gaindiko lan-mugikortasunari eta elkartruke profesional, akademiko eta kulturalari egiten dion ekarpena. Ondorioz, adieraz daiteke euskara gaur egun oso hizkuntza garrantzitsua dela Euroeskualdeko zati handi bateko jardura ekonomikoaren eta kulturalaren esparru zenbaitetan.

Hain zuzen ere errealitate horretan oinarrituta, oso praktika eredugarria sortu da mugaz gaindiko lankidetzan. Izan ere, Ipar Euskal Herrian euskara sustatzeaz arduratzen den Estatuko erakundeak (Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basque izenekoak) eta Eusko Jaurlaritzak oso emaitza onekin dihardute lankidetzan Ipar Euskal Herrian euskara sustatzeko, segidako lankidetzak-hitzarmenen bidez. Hitzarmen horietako hirugarrena, 2017-2022 aldirako sinatua, Ipar Euskal Herriko euskararen eta euskarazko eskaintza antolatzearen ingurukoa da. Elkarrekiko erakunde-errespetuaren oinarizko printzipioa abiapuntutzat hartuta, bi erakunde horiek tinko dihardute lankidetzan Ipar Euskal Herrian euskara bultzatzeko, eta elkarrekin laguntzen dute horretarako eraginkorrenak diren eragileak eta programak finantzatzen.

Hala eta guztiz ere, Euroeskualdeko hizkuntza propio hori bide luzea geratzen zaio oraindik ere erabateko normalizazioa lortzeko, nahiz eta Euroeskualdeko hizkuntza-aniztasun aberatsari ekarpen handia egiten dion, mugaren bi aldeetako milaka hiztunen bidez. Hori dela-eta, eta Euroeskualdeko lau hizkuntzen eta hiztunen arteko harreman orekatu eta emankorrean aurrera egiteko, bereziki garrantzitsua da euskararen jakintza eta erabilera hizkuntza hori erabiltzen duten Euroeskualdeko eremuetan areagotzeko programak sustatzen jarraitzea eta elebidunen eta euskara erabiltzeko aukeren gehikuntza bultzatzea.

Euroeskualdeko estrategiak honako ardatz hauek izango ditu:

- Ikasle eta helduengan euskararen ikaskuntza sustatzea.
- Informazio eta Komunikazio Teknologia Berrien erabilera bultzatzea (prestatuntza-programak, online itzultzaileak, eta abar) bereziki eremu urriko hizkuntzetan, eta gazteei zuzendutako ekimenetan oinarritzea.
- Komunikabideak eta haietan diharduten profesionalak Euroeskualdearen eremua hedatzeko proiektuan sartzea.
- Euskaraz eta okzitanieraz egindako kultura- eta arte-proiektuak, eta hizkuntza horietan egintako aisiaren inguruko proiektuak bultzatzea.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

1.1.3 ekintza

Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteko aukera sustatzea ikasleen artean, bereziki bigarren hezkuntzan eta Lanbide Heziketan

Hezkuntza- eta prestakuntza-alorra funtsezkoa da eleaniztasun-estrategia orotan. Euroeskualdeko hizkuntzen jakintza eta erabilera bultzatzea proposatu da, bereziki azpimarratuz bigarren hezkuntza eta Lanbide Heziketa (horietan Akitania Berria eskualdeak eskumen ugari ditu). Horretarako, prestakuntzaren alorrean kokaturiko edo hari loturiko elementu hauetatik abiatuko da:

- Irakasleak hizkuntza-gaitasunetan eta hizkuntzaren didaktikan prestatzen inbertitzea: hizkuntza-teknikarien sare egoki bat sortzea.
- Maila lortzeko irakaskuntza-sistemetan ziurtagiriak hedatu eta integratzea eta, era horretan, mugarren identifikazioa eta helburuen ezarpena erraztea. Gaitasunak ebaluatzen erreferente komun bat ezartzea.
- Irakasleen mugikortasuna eta langileak trukatzeko programak bultzatzea.
- Hizkuntza-politikako eragileen laguntza eskatzea, eleaniztasunean aurrera egiteko.
- Euroeskualdeko gazteen arteko kultura- eta prestakuntza-trukeak bultzatu eta sendotzea, eta kirolaren alorrean egiten direnekin osatzea.
- Egungo ikaskuntza-prozedurak eta -moduluak sarean jarri eta bateratzea. Informazio eta Komunikazio Teknologia Berriak (IKTB) hobeto baliatzea da, hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko. Gogoeta estrategikoan parte hartu duten eragileek diotenez, baliabide digitalak gutxiegi erabiltzen dira, eta IKTBen eta komunikabideen erabilera neurri handiagoan sustatu behar da hizkuntzak hedatzeko mekanismo gisa. Ikasteko oline moduluak badaude, eta horiek erabil daitezke; bereziki interesgarriak dira eremu urriko hizkuntzen kasuan.
- Euroeskualdeko lurraldeetan hizkuntzaz arduratzen diren erakundearen arteko koordinazioa sustatzea.
- Euroeskualdeko hizkuntzak ikastea erraztuko duen beka-programan sakontzea (adibidez: Eskola Futura proiektua, zeinak diru-laguntzak ematen baitizkie irakasle-ikasketetako ikasleei).
- Jardunbide egokiak partekatzea eremu urriko hizkuntzen arloan.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

1.1.4 ekintza

Euroeskualdeko hizkuntzak jakiteko aukera sustatzea hainbat lanbide-sektore espezifikotan, hala nola merkataritzan, ostalaritzan, turismoan eta pertsonen arretan

Hezkuntzaren eremuan esku hartzeaz gain (ikasleak eta ikastetxeak/irakasleak), bidezkotzat hartzen da sektore-estrategiak garatzea zerbitzuen sektoreko profesionalen artean Euroeskualdeko hizkuntzen jakintza eta erabilera hobetzeko, profesional horiek harreman handiagoak baitituzte beste eskualdeko pertsonekin. Azken batean, hizkuntza propioen erabilera sustatu behar da Euroeskualdeko benetako herritartasuna finkatzeko prozesuan aurrera egiteko garaian eragile pribilegiatuak diren sektoreetan (hots, merkataritzan, ostalaritzan eta turismoan). Horri esker, komunikazioa eta elkartrukeak bultzatu ahal izango dira, eta herritarrei kontsumitzaile gisa eskaini beharreko arreta hobetu ahal izango da. Jada Plan Estrategikoaren lehenengo bertsioan identifikaturiko "xede" diren sektore horiei goraka doan beste sektore bat gehitzen zaie, Plana eguneratzean sorturiko eleaniztasunari buruzko focus group-ean eginiko proposamenaren bidez. Sektore horrek gertuko enplegua sortzen du, eta pertsonaren zaintzaren arlokoa da.

Helburua (gaur egun kuantifikatu ezin dena, abiapuntuko datua falta baita) honako hau da: Plan Estrategiko honen indarraldian, eta hautatutako sektoreetako batean lan egiten duten pertsonen dagokienez, harrerako eta zerbitzuak emateko hizkuntza gisa bisitarien hizkuntza (Euskadin eta Nafarroan Akitania Berriko bisitariena, eta alderantziz) erabiltzeko gaitasuna duten pertsonen ehunekoa era esanguratsuan hobetzea. Horretarako, honako hauek proposatzen dira:

- Modulu espezifikoak garatzea, hautatutako zerbitzuen hornitzaileek bezeroekin oinarriko komunikazio egokia izateko beharrezkoa duten gutxieneko lexikoa menderatzeko. Hizkuntzaren teknologiarri etekina ateratzea
- Elkartruke egituratuak antolatzea eragile bitartekarien artean, hau da, turismo bulegoetako langileen, museoetako langileen eta abarren artean.
- Aztertzea ea egokia ote den urteko aitorten-sistemak (zigilua) ezartzea, Euroeskualdeko hizkuntzetan jendeari zerbitzuak eskaintzeari dagokionez modu egokian aurrera egiten ari diren enpresen artean.
- Sustapen-kanpainak egitea komunikabideen edo beste euskarri batzuen bitartez, eta inplikaturako sektoreei zuzendutako zuzeneko mezuen bidez, Euroeskualdeko hizkuntzei ospea emateko eta hizkuntza horietan jendeari arreta emateak duen garrantzia agerian uzteko.
- Jardunbide egokiak partekatzea: eleaniztasunari buruzko lantalde espezifikoan zenbait jardunbide egoki aipatu dira, beste esparru edo hizkuntza batzuetara zabaldu edo eraman daitezkeenak (adibidez, Eusko Jauriaritzak ematen dituen diru-laguntzak hizkuntza-paisaia hobetzeko eta Euskadiko saltoki handietako langileak euskarari trebatzeko).
- Langile teknikoaren eta administrazioetako langileen stage-ak eta trukeak antolatzea, administrazio-erloko kultura-artekotasunean aurrera egiteko.

Proposa daiteke ekintza bat, denboran iraunkorra baina hainbat fase edo esperientzia pilotu zehatzetan egituratua. Horien oinarri izango dira ondo zehazturiko xede-biztanleak (adibidez, tamaina, eremu geografiko... jakin bateko ostalaritzarekin edo merkataritzarekin has daiteke, esperientzia pilotu gisa). Epe luzeagora, lankidetzak-aurka gehien eskaini ditzaketen beste sektore batzuetan garapen terminologikoa ezar daiteke xede gisa.

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea LLET-a izan daiteke ekintza hori egiteko beharrezkoak diren izapideak bideratuko dituen eragilea.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Euroeskualdeko herritartasuna

1.2. jardun-ildoak

KULTURA ETA SORMENA EUROESKUALDEKO LANKIDETZAREN BENETAKO ARDATZ EGITURATZAILEA IZAN DADIN LORTZEA

Esparrua

Akitania Berriak, Euskadik eta Nafarroak balio erantsiaren, sormenaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egin dute, eta, testuinguru horretan, eskualde horiek nahi dute Kultura eta Sorkuntza Industrien beren etorkizun ekonomikoan eta sozialean leku nabarmenagoa izatea.

Gainera, duela gutxi Euroeskualdean sartu diren eskualdeek indartu egin dute kultura- eta sorkuntza-sektorearen presentzia, garrantzia eta haien aldeko apustua. Hain zuzen ere, Poitou Charentes eskualdeak hautaturiko lehentasun estrategikoen artean dago e-learning-aren eta kultura-industriaren arloa; Limousin eskualdeak ere sorkuntza-ekonomia identifikatu du lehentasunezko esparru gisa bere berrikuntza-estrategian, eta Nafarroak, bere aldetik, Sorkuntza Industriak eta Industria Digitalak aipatu ditu espresuki.

Beraz, kultura eta sorkuntza-industriak aukera-hobi bat dira Euroeskualdearentzat. Sektorerik ekonomia-hazkuntzan eta enplegu-sorreran eragiten duenez, tokiko eta eskualdeko garapenean eta berrikuntzan eta gizarte-ongizatean, Europako Batasunak berau sustatzeko borondate argia du, eta hori testuinguru egokia da: "2014-2020 Europa Sortzailea" programa da horren adierazgarria.

Euroeskualdean erreferentziatzeko ekimenak edo klusterrak ditugu gaur egun hainbat esparrutan. Dauden aukerak islatzen dituzten adibide batzuk aipa daitezke: Euskadin, Eiken ikus-entzunezkoen klusterra; Akitania Berrian, Créatif SILOgraphic klusterra, Digital Aquitaine klusterra, ECLA-Écrit, Cinema, Libre, Audiovisuel eskualdeko agentzia; edo Nafarroan Cluster Funcional Print. Horiek guztiak, IKTen sektorearekin loturikoak edo sorkuntza-sektorearekin loturak izan ditzaketen beste batzuk kontuan hartu gabe (eraikuntza, industria-diseinua,...).

Plan Estrategikoaren eguneratze honetan, kultura-ardatzari buruz gogoeta egin duen lantaldean interes-eremu hauek aipatu dira: elkarren ezagutza sakontzea, eredu estrategikoak aztertzea, Kultura eta Sorkuntza Industrien sektoreko jardunbide egokiak partekatzea, profesionalen trukeak, berrikuntza bultzatu eta hari begira jartzea, kalitate-markak sortzeko aukera edo kanpora proiektatzeko aukera. Euroeskualdea aukera-esparru gisa ikusten da lankidetzako proiektu berriak garatzeko.

Proiektu estrategikoei emaniko laguntzaz gain, gogoetako talde horretan nabarmendu da, era berean, beharrezkoa dela gertuko proiektuak eta eragileak zaintzea eta sektore eta erakunde ahulenei laguntzen jarraitzea, batez ere proiektu horietan inplikaturiko pertsonen arteko harremanak sustatuz.

Helburu orokorra

Euroeskualdea garatzeko estrategia honek kultura-eremuan lortu nahi duen helburua da sortzaile profesionalen kopurua handitzea sektore eta jardura desberdinak indartzeko, proiektu berritzaileak sortzea (teknologiari loturikoak edo lotu gabeak) sortze-jarduna ahalbidetuko duten baldintzak sortuz, eta biztanleen artean kulturarekiko eta sormenarekiko interes handiagoa eta jarrera hartzaile positiboa sustatzea.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Euroeskualdeko herritartasuna

1.2. jardun-ildoak

KULTURA ETA SORMENA EUROESKUALDEKO LANKIDETZAREN BENETAKO ARDATZ EGITURATZAILEA IZAN DADIN LORTZEA

Deskribapena

Helburu horiek lortzeko, jarduteko lehentasunak ezarri behar dira, proiektuei laguntzeko ekimenak garatu behar dira, profesionalak sarean jarri behar dira, jendeari arte-arloko eta kultura-arloko hezkuntza eman behar zaio, kultura-ondareari buruzko eta ekipamenduak sortzeko buruzko esku-hartzeak gauzatu behar dira, eta abar.

Hori guztia, jendearen joan-etorriak erraztuko dituen garraio-sare egokia bermatzeak duen garrantzia ahaztu gabe; izan ere, mugikortasunean zailtasunak izateak benetako trabak jartzen dizkio kultura-produkzioa aldameneko eskualdean kontsumitzeari eta produkzio horretaz gozatzeari. Beste gai erabakigarri bat hizkuntza da: hizkuntza-arloko eragozpenak arintzeko ahalegina egin behar da, eragozpen horiek traba baitira (arte eszenikoen esparruan arazo gutxiago sortzen dute).

1.2.1 ekintza

Europa sortzailearen barruan sartutako proiektuen garapena babestea

Lan-ildoek hiru norabidetan ahalbidetu behar dituzte ekimenak:

- Profesionalak eta artistak (mugikortasuneko eskualde arteko zirkuituak, artistentzako egoitzak, esperientzien trukeak, prestakuntza-programak eta abar sortzea). Kultura-eremuaren inguruan antolatutako *Focus group*-ean parte hartu zuten eragileek adierazi zuten esperientziak eta egiteko modu desberdinak trukatu behar direla.
- Kultura-proiektuak, ikuskizunen koprodukzioak sustatuz. Gogoeta estrategiko honetan esku hartu zuten eragileek nabarmendu zuten kultura-proiektuak finantzatzeko laguntzak lortu eta bideratu behar direla.
- Ikusleak, arte-hezkuntzako eta sentsibilizazioko ekimenen bitartez, kultura-agendaren eta abarren komunikazioa eta hedapena indartuz, kolektibo jakin batzuentzat bono espezifikoak eta ikuskizunen eskaintza-sareak sortzeko aukera aztertuz.

Elkarlanean jarduteko aukera handiak eman ditzaketen diziplinei dagokienez, liburua, zinema, musika, ikus-entzunezkoen sektorea, diseinua eta hizkuntzen industria daude. Horietan guztietan eragin handia du teknologia digitalak; erronka nabarmenak ezartzen ditu teknologia digitalak, eta, era berean, eskaintza berriak garatzeko aukerak eskaintzen.

Sortzaile berri gehienek beren lana euskaraz egiten dutenez, literatura- eta musika-arloko argitalpen-funtsak handitzeko aukera proposatu da, baita euskarazko eta okzitaniarazko zinema-produkzioaren gaiari heltzeko aukera ere.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

1.2.2 ekintza

Diziplina anitzeko foro egonkorra eta azoka estrategikoa finkatzea, Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako kultura- eta sormen-erakundeek ideiak batera jartzeko eta gogoeta egiteko

948 Merkatua-Nafarroako Arteen Merkatua ekimenaren babesean antolaturiko gogoetan parte hartu zuten sektoreko eragileek oso modu positiboan balioetsi zuten Plan Estrategiko honek eskaintzen zien aukera kulturaren arloan esku hartzen duten Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako eragileek ideiak eta kezak batera jartzeko.

Nabarmena izan zen eztabaidarako tresna edo foro hau sendotzeko nahia, aldizkako topaketa egonkorak aurreikusi baitziren. Topaketa horietan partekatuko dira esperientziak, proiekturik nabarmenenetan izaniko aurrerapenak edo lankidetzarako aukera gehien eskaintzen dituztenetan izaniko aurrerapenak. Esku hartzen duten eragile nagusien eta erakundeen artean harreman sendoak eta iraunkorrak sortzea proiektu berriak sortzeko eta bultzatzeko bideetako bat da.

Akitania-Euskadi LLETa topaketa horiek dinamizatu eta bideratuko dituen eragilea izan daiteke eta izan behar du, eta parte hartzen duten eragileek parte hartuko dute ekitaldi bakoitzean landu beharko diren gaien agenda zehazten.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Euroeskualdeko herritartasuna

1.3. jardun-ildoak

EUROESKUALDEKO GAZTEEK ELKAR EZAGUTZEKO ETA ELKARRI ERAGITEKO AUKERA AHALBIDETZEA

Esparrua

Gazteak dira Euroeskualdearen etorkizuna. Horrenbestez, bermatu behar dugu gazteek sentitzen dutela kulturaren, hizkuntzaren eta logistikaren arloan gero eta integratuagoa dagoen eta Europa "behetik gora" eraikitzen laguntzen duen lurralde batean bizi direla. Euroeskualde bat badela sineste horrek, horrek eskaintzen dizkien aukera erantsi guztiak batera, gazte horien hezkuntzan egon behar du txikitatik. Hauxe da LLETaren lan-esparrua eremu horretan: gazteek Euroeskualdea eta haren aukerak ezagutu ditzaten sustatzea.

Helburu orokorra

LLETa etorkizunean Euroeskualdeko eremu kohesionatua, konektatua, eleaniztuna izateko lanean ari da. Eremu horretan enplegu-arro integratua eta osagarria egongo da, elkarrekin harremanak dituzten enpresak eta Euroeskualdeko campusa, goi-mailako irakaskuntzaren, Lanbide Heziketaren eta berrikuntzaren erpin gisa. Aldi berean, Euroeskualdearen arloko kontzientzia eratzen lan egin behar du, Euroeskualde bateko kide izateak dakartzan ontasun guzti horiek ezagutu, baliatu eta garatzeko.

Deskribapena

Hizkuntza arautuan (ikasleek hiru urte dituztenetik hasi eta institutu edo Lanbide Heziketako ikastetxeraino) eta hortik kanpo egiten diren kirolaren, kulturaren, hizkuntzaren eta abarren arloko trukeak izan behar dira goian aipaturiko helburua lortzeko tresna nagusiak.

Unibertsitatean eta Lanbide Heziketan lan-eremuak berak izango dira, barnean sartuz Euroeskualdeko beka batzuen (*Global Training*, *Erasmus Euroeskualdea*) sustapena eta mugaz gaindiko praktikak edo *stage*-ak; gai hori garatu da "Jakintzaren Ekonomia, Berrikuntza eta Enpresa Lehiakortasuna" izeneko jardun-ildoan.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

1.3.1 ekintza

Euroeskualdeko gazteen mugikortasuna sustatuko duten kirol-, kultura- eta gizarte-arloko ekintzak babestea

Benetako Euroeskualde-nortasuna sortzera bideraturiko ekintzak gazteengan proiektatu behar dira, gazteak baitira lehentasunezko kolektiboa kasu honetan.

Europa 2020 Estrategiak hazkunderako duen ekimen nagusietako bat "Gazteak Mugimenduan" ekimena da, hain zuzen ere. Ekimen horrek mugimendua sustatzen du hezkuntzaren, prestakuntzaren, laneratzearen, kultura-trukeen, boluntariotzaren eta abarren alorrean. Gailu horrek eta beste batzuek aukerak ematen dizkiete gazteei gaitasunak garatzeko, kultura arteko esperientziez gozatzeko eta jakintza-mota berriak izateko.

2013an, Europako Parlamentuak Erasmus+ programa onartu zuen 2014-2020 aldirako. Programa horrek hezkuntzaren, prestakuntzaren, gazteen eta kirolaren arloko ekimen guztiak biltzen ditu.

Gaur egun arte, gazteen mugikortasunaren alde egiteko mekanismoak gutxiegi erabili dira Akitania eta Euskadiren arteko trukeei dagokienez. Gauzak horrela, hainbat mugikortasun-programaren ardura duten eragileek adierazi dute, adibidez, nahiago izaten direla urrunen dauden jomugak Erasmus motako trukeen kasuan, eta eskatu dute programa horiek Euroeskualdean erakargarriak izateko neurriak hartzea. Gazteen truke gehienak kirolaren inguruan egiten dira, baina boluntariotzaren, kulturaren eta prestakuntzaren esparruetan sustatu behar dira.

Hori horrela, bi ekimen pilotu lantzea proposatu da:

- **Gazteen monitoreaentzako prestakuntza bikoitza abian jartzea.** Helburua izango litzateke mugaz gaindiko gazteek animazio-eginkizunen alorreko eta astialdiko hezkuntza-jardueretako monitoreaen gaitasun-ziurtagiria lortu ahal izatea. Hiru eskualdeetako prestakuntza-eragileen arteko mintegi bat egitearen ondorioz aitortutako prestakuntza komun bat sor daiteke. Horrela, gazteen mugaz gaindiko mugikortasuna sustatuko litzateke, gazteek kultura arteko animazioaren eremuan dituzten jakintzak areagotuko litzukete eta eremu horretan dituzten erabilera metodologikoak eta pedagogikoak partekatuko lirateke.
- **Gazte boluntarioen trukea Euroeskualdea osatzen duten eskualdeetako auzolandegietan.** Esparru horretako lehenengo esperientzia denez, helburua zera izango da, eskualdeetako bakoitzetik programaturiko auzolandegietan parte hartuko duten 20 gazte boluntarioen (18-30 urtekoak) trukea ahalbidetzea.

Azkenik, Euroeskualdeko herritarrentzako elementu mesedegarritzat hartu behar da kirola, eta hori lortzeko honako alderdi hauek landu beharko dira:

- Borondatezko kirol-buruzagien baterako prestakuntza, maila horretan "kultura komuna" sortzeko ikuspegiarekin.
- Emakumeen kirol-jarduera ez ezik, emakumeek esparru horretan erantzukizun-postuak lortzea ere ahalbidetuko duten ekintzak.
- Eskolako eta unibertsitateko kirola.
- Mugaz gaindiko lan-esparru bat abian jartzea, kirola eta osasuna elkartuz, egoneko bizitzaren aurka borroka egite aldera.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

1.3.2 ekintza

Ikastetxeen arteko lankidetza sustatzea, hainbat ekintza bultzatuz, hala nola ikastetxe-trukeak, gazteek elkar ezagutu dezaten

Gure ustez, komenigarria da Akitania Berriko eta Euskadiko eta Akitania Berriko eta Nafarroako ikastetxeen artean trukeak sustatzea, lurralde horietako gazteenek elkar ezagutzeko arloan aurrera egiteko proiektu pedagogiko gisa, norberak bizi izandako bizipenetik kultura arteko esperientzia aberatsa sortuz.

Ikastetxe batzuek jada garatu dituzte horrelako ekimenak, baina hezkuntza-sarean hedatuko balira eta formalizatuko balira aurrerapauso handia lortuko litzateke. Aldameneko eskualdeko geografia, historia, literatura eta abarren oinarritzko jakintza-moduluak eskuratzeko unitate didaktikoak sortuko balira, Euroeskualdeko kontzientzia partekatua sortzen lagunduko luke.

Erakundeek bultzatu beharreko lan-ildoak da, eta bertan zeregin dinamizatzailerik garrantzitsua izango dute lankidetzarako funtsek, bai eskualdekoek, bai lurraldekoek bai departamentuetakoek.

Jardun-ildo hau arrakastarekin sustatzeak eskatzen du, ez soilik hizkuntza-politikaren eragileak biltzea, baizik eta berariazko tresnak eta aurrekontu bereiziak sartzeko proiekturik garrantzitsuenak eta zeharkako izaera handiena dutenak finantzatzeko. Proiektu horiek alda litezke denborarekin, edo garrantzi handiagoa lortu, eta, agian, POCTEFA gisako programen finantzaketak eskuratu.

Ikuspegi operatibotik, deialdi bat sortzeko aukera aztertu behar da, lankidetza-ekimen honetan parte hartu nahi duten ikastetxeek agerturiko interes-adierazpenak modu etengabea jasotzeko.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

5.3. Jakintzaren ekonomia, berrikuntza eta enpresa-lehiakortasuna

2. jardun-ardatza:

JAKINTZAREN EKONOMIA, BERRIKUNTZA ETA ENPRESA-LEHIAKORTASUNA

2.1. jardun-ildoak: UNIBERTSITATEEN, LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN ETA BERRIKUNTZAREN EREMUKO BESTE ERAGILE BATZUEN ARTEKO LANKIDETZARI BULTZADA BERRI BAT EMATEA. "EUROESKUALDE CAMPUSA", JAKINTZAREN EKONOMIAREN ERAGILE	2.1.1 ekintza: Sareko Euroeskualdeko unibertsitate-kopurua handitzea, haien arteko lankidetzak indartuz eta egituratuz 2.1.2 ekintza: Kotutoretzako ikerketa-ekimenak areagotzea eta Jakintzaren eta Berrikuntzaren Euroeskualde Komunitatea garatzea 2.1.3 ekintza: Unibertsitate-titulu komunak garapenean aurrera egitea eta ikasleen nahiz irakasleen Euroeskualdeko mugikortasuna bultzatzea 2.1.4 ekintza: Lankidetzak-dinamika bat bultzatzea Lanbide Heziketaren eremuan
2.2. jardun-ildoak: I+G+Baren ALORREKO LANKIDETZA EGITURATZEA HIRU ESKUALDEETAKO ESPEZIALIZAZIO ADIMENDUNAREN ESTRATEGIETAN IDENTIFIKATURIKO SEKTOREAK OINARRI HARTUTA	2.2.1 ekintza: Berrikuntzaren alorreko Euroeskualdeko proiektuak egituratzea Euroeskualdeko hiru lurraldeetako sektore estrategikoak oinarri hartuta 2.2.2 ekintza: Focus group iraunkor bat sortzea Euroeskualdeko I+G+B arloko eragileak bilduz
2.3. jardun-ildoak: ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEA EUROESKUALDE-EREMUAN, KLUSTERREN ARTEKO MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA KONTUAN HARTUTA BEREZIKI	2.3.1 ekintza: Euskarri-zerbitzua ematea Euroeskualdeko enpresa-lankidetzari 2.3.2 ekintza: Klusterren arteko lankidetzak-estrategia sustatzea
2.4. jardun-ildoak: EUROESKUALDEKO ENPLEGU-ARRO BAT GARATZEN LAGUNTZEA	2.4.1 ekintza: Mugaz gaindiko langileentzat eta langileei buruzko informazio-sistemak eta -gailuak abian jartzea 2.4.2 ekintza: Euroeskualdeko hiru enplegu-zerbitzu publikoek partekaturiko lan-eskaintza eta lan-eskaria sortzea 2.4.3 ekintza: Hiru eskualdeek partekatzen dituzten lanbide-heziketako politiketan sakontzea, mugaz gaindiko praktikak eta beste ekintza osagarri batzuk garatuz

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Jakintzaren ekonomia, berrikuntza eta enpresa-lehiakortasuna

2.1. jardun-ildoak

UNIBERTSITATEEN, LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEN ETA BERRIKUNTZAREN EREMUKO BESTE ERAGILE BATZUEN ARTEKO LANKIDETZARI BULTZADA BERRI BAT EMATEA. "EUROESKUALDE CAMPUSA", JAKINTZAREN EKONOMIAREN ERAGILE

Esparrua

1994az geroztik, Akitania-Euskadi-Nafarroa (AEN) Unibertsitate Sareari esker, elkarlan akademikoko eta ikerketako ekimen ugari garatu dira Euskadiko unibertsitateen (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) eta Akitaniako unibertsitate eta establezimenduen (Bordeleko Unibertsitatea, Bordeleko I, II eta IV Unibertsitateak batuz sortua, Burdeos Montaigne Unibertsitatea, Pauko eta Aturialdeko Unibertsitatea, Bordeaux Sciences Agro, Bordeaux INP, edo Sciences Po Bordeaux) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) eta Nafarroako Unibertsitatearen (NU) artean.

2010eko irailean, Euskampus bikaintasun-campusak eta Idex-Bordeaux bikaintasun-ekimenak indartu egin zuten UPV/EHUren eta Bordeleko Unibertsitatearen arteko elkarlana; horretarako, nazioarteko irismena eta bokazioa zuen prestakuntzako, ikerketako eta berrikuntzako eremu komun bat eratzeak akordio bat sinatu zuten eta eskualdeko bikaintasuna Arku Atlantikoaren eremuan sustatzeko gaitasuna eman zioten akordio horri.

2010eko urrian, Iberus Campusak (Nafarroako, Zaragozako, Lleidako eta Errioxako unibertsitate publikoek osatuak) Nazioarteko Bikaintasun Campusa kalifikazioa lortu zuen.

2012tik aurrera, UPPAk (Pauko eta Aturialdeko Unibertsitatea), UPV/EHUK eta NUPEk ere indartu dituzte beren harremanak, IDEFI (Hezkuntza Berritzaileko Bikaintasun Ekimena) "PYREN" proiektuaren bidez eta alde biko hitzarmenen bidez (UPPA-UPV/EHU eta UPPA-NUP), prestakuntzaren eta ikerketaren arloko lankidetzak indartzeko.

2014ko azaroan, UPV/EHUK eta Bordeleko Unibertsitateak euren lankidetzak gauzatu zuten Nazioarteko Bikaintasuneko Euroeskualdeko Campusa garatzeko, Akordio Marko zabal bat sinatuz. Helburua zen jakintzan eta nazioarteko proiektuaren oinarritutako Euroeskualde gisa finkatzea Akitania-Euskadi.

Helburu orokorra

Jardun-ildo honek proposatzen du Euroeskualde Campus bat egituratu beharra dagoela; Campus horretan, mugaz gaindiko campus-proiektua izango da Euroeskualdeko lankidetzaren eragile, goi-hezkuntzaren, jakintzaren ekonomiaren eta berrikuntzaren arloan diharduten eragileei dagokienez.

Bestalde, lan-ildo honek berrikuntzaren arloan elkarerragiri eta lankidetzak handiagotzea ekarri behar du unibertsitateen, teknologia-zentroen eta ikerketa-zentroen artean, eta era horretan sistema integratu bat diseinatu behar da, non balio-eskala osoa azalduko den eta elkarrekin lotuta egongo den.

Deskribapena

Helburua zera da, Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako unibertsitateen arteko lankidetzak-ekimenak eta -ekintzak indartzea eta bultzatzea, honako eremu hauetan:

- Ikerketa, baterako proiektuak garatuz sinergiak aprobetxatzeko eta estrategiko gisa identifikaturiko sektoreetan eta benetako balio erantsia ematen dutenetan jakintzak eta berrikuntza trukatzeko.
- Goi-mailako prestakuntza eta lanbide-heziketa, baterako ikasketa-eskaintza koordinatua garatuz (titulazio bikoitzak, master bikoitzak, doktorego-tesien kotutoretzak, eta abar.).
- Mugikortasuna, unibertsitateko eta lanbide-heziketako eragileen artean (ikasleak, irakasleak, ikerketaileak, eta abar) trukeak sustatuz.
- Euroeskualdeko jakintza-sektorea nazioartean proiektatzea.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

2.1.1 ekintza

Sareko Euroeskualdeko unibertsitate-kopurua handitzea, haien arteko lankidetzak indartuz eta egituratuz

Euroeskualdea handitu egin da geografikoki Poitou-Charentes, Limousin eta Nafarroa sartzearekin, eta horren ondorioz bost unibertsitate gehiago daude Euroeskualdearen eremuan: La Rochelle-ko Unibertsitatea, Poitiers-eko Unibertsitatea, Limoges-eko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako Unibertsitatea.

Hori horrela, aberastu egin da Euroeskualdearen egoera prestakuntza, ikerketa eta berrikuntzarako eremu gisa, eta, aldi berean, konplexuagoa bihurtu da; hain zuzen ere, Euroeskualdearen eremua handitzearen ondorioz, bi bikaintasun-campus bateratu dira, Nafarroako Unibertsitate Publikoa Iberus bikaintasun-campusaren zati baita, Aragoiko autonomia-erkidegoko, Errioxako autonomia-erkidegoko, eta Kataluniako Lleida probintziako unibertsitate publikoekin batera.

Euroeskualdeko unibertsitateen artean lankidetzak egon izan badira eta egun badira ere (batzuk egituratuak eta iraupen luzekoak, beste batzuk unean-uneoak), ezagutza partekatua falta da Euroeskualdeko eremuan dauden hamaika unibertsitateen estrategia propioen inguruan, eta, era berean, unibertsitate sartu berriek Euroeskualdearekiko agertzen dituzten itxaropen eta konpromisoen inguruan. Oinarizkoagoa den arlo bati dagokionez, era berean ez dira ezagutzen zehatz-mehatz Euroeskualdeko hamaika unibertsitateetan ematen diren espezialitateak edo unibertsitate horiek lantzen dituzten ikerketa-eremu nabarmenak edo mugaz gaindiko proiektu garrantzitsuak.

Beraz, unibertsitate berriak sartzek eskatzen du, asmo handiagoko etorkizuneko elkarlanerako abiapuntu gisa, mekanismoak eta plataformak prestatzea elkar ezagutzeko eta jardunbide egokiak partekatzeko. Soilik ezagutzea horretatik abiatuta balioztatu ahal izango dira lankidetzarako benetako aukerak eta jakintza-eremu zehatzetan integraturiko unibertsitate-sareak sortzeko aukerak.

Horregatik, ekintza honen lehenengo jarduera gisa, **Euroeskualdeko Unibertsitateetako Foro Estrategikoa** antolatzea proposatu da. Foro hori topagunea eta elkar ezagutzeko gunea izan behar da, eta komunikaziorako tresna bat.

Foro horrek helburu hauek izango ditu:

- Unibertsitate bakoitzeko estrategia propioak bateratzea
- Erreferentziazko espezializazioak eta ikerketa-eremuak identifikatzea eragile bakoitzarentzat
- Mugaz gaindiko proiekturik garrantzitsuenak aurkeztea
- Euroeskualdearekiko, goi-mailako hezkuntzaren eremu gisa ikusita, hainbat eragilek dituzten itxaropenak partekatzea.
- Lankidetzarako aukerak eta esparruak balioztatzea (doktoretzak, ikerketa-eremuak, unibertsitate eta enpresen arteko harremanak,...)
- Denboran iraungo duen lanerako eremu bat sortzea, bertan jardunbide egokiak partekatzeko eta jakintzaren Europan Euroeskualdea posizionatzen aurrera egiteko.

Azken puntu horri dagokionez, Euroeskualdean sarturiko unibertsitateen sarea indartzea eta Foroa antolatzea aukera egokiak dira **Europako Unibertsitateen** balizko sorreraren egoera aztertzeko. Hain zuzen ere, Europako Batasunak, Hezkuntzaren eta Kulturaren bidez Europako nortasuna indartzeko helburuaren barnean, honako ideia proposatu du, alegia, Europako unibertsitateen sarea sortzeko ekimenean aurrera egitea; unibertsitate horiek mundu-mailan lehiatuko lirateke, mugaz gaindituz lan egingo lukete eta Europar Batasunaren mailako titulazioak emango lituzkete.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Europako Hezkuntzaren esparruaren sorrera testuinguru jakin batean kokatzen da: kezka dago Europaren lidergoa gal daitekeela Brexita betetzen bada. Europako 10 unibertsitate daude munduko 50 onenen rankinean 2018an, baina hobekien kokatuta daudenak Erresuma Batukoak dira (Cambridge, Oxford,...).

Europar Batzordeak honako erronka hau ezarri du: beren jarduera mugaz gaindiko esparruan garatu nahi duten goi-mailako hezkuntzako erakundeek aurrean dituzten administrazio-eragozpen eta oztopo burokratiko handiak gainditzea. Epe motzera egitea aurreikusten dituen ekintzen artean dago, hain zuzen ere, hitzarmen estrategikoak sustatzea goi-mailako hezkuntzako erakundeen artean. Epe luzeagoko ikuspegi batetik, 2025. urtean helmuga jarrita, proposatu du "Europako unibertsitateen sarea sortzea, goi-mailako hezkuntzako erakundeen arteko lankidetzak indartu eta egituratzeko". Beraz, eman beharreko lehenengo urratsa unibertsitateen sareak ezarri eta programen eskaintza bateratua sustatzea izango litzateke, urrutiko prestakuntzarako tresnak erabiliz. Geroago etorriko litzateke zerbitzuak batera ematea.

Oraindik ere atariko fasean dagoen Europako Batzordearen ekimen honek erakusten duen agertokiak Euroeskualdeko unibertsitateei gogoeta eginarazten die egin behar duten/egin nahi duten zereginari buruz eta etorkizunean izango duten posizionatzeari buruz.

Europako unibertsitate horiek sortzeak asmo handiko helburuak eta erronka oso zailak dakartza, baina aukera horrek berak lan-dinamika oso interesgarria sor dezake Euroeskualdearen eremuan, hain zuzen ere, mugaz gaindiko lankidetzak ardatz duen proiektua delako.

Europako unibertsitateak sortzeko aurreikusitako helmugak (2025) sobera gainditzeko du Euroeskualdeko plan estrategikoaren indarraldia (2020); beraz, Euroeskualdeko plan estrategiko honen lehentasuna epe motzera egin daitezkeen jarduerak indartzea bada ere, epe luzeagoko gogoeta bat ere bil dezake goi-mailako hezkuntzaren arloan Euroeskualdearen etorkizuneko posizionatzeari buruz.

Gaur egun unibertsitateen arteko alde biko eta alde anitzeko lankidetzaren zenbait adibide badira (Unibertsitate franko-alemaniarra, Grand Est-eko Unibertsitatea, Unibertsitate franko-italiarra). Lankidetzak horiek mugaz gaindikoak dira askotan, eta horien esperientzia eta lorpenetan sakontzea egokia litzateke.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

2.1.2 ekintza

Kotutoretzako ikerketa-ekimenak areagotzea eta Jakintzaren eta Berrikuntzaren Euroeskualde Komunitatea garatzea

Tesien kotutoretzak (nazioartekoak) unibertsitateen nazioarteko ikuspegia indartzen du eta doktoregaien mugikortasuna bideratzen du eremu zientifiko eta kultural desberdinetan; era berean, lankidetzak zientifikoa sustatzen du herrialde desberdinetako ikerketa-taldearen artean. Euroeskualdearen eremuko unibertsitate guztiek ikerlarien komunitateari laguntzeko borondate komuna dute, nazioarteko lankidetzak-proiektuak eta kotutoretzak sustatzeko.

UPV/EHUren eta Bordeleko Unibertsitatearen arteko lankidetzak emaitzak eman ditu, eta, besteak beste, kotutoretzako doktorego-tesien kopuru igoera eta Europako proiektuen baterako aurkezpena nabaritu dira.

PYREN programak (hezkuntza berritzailearen bikaintasun-ekimenetako bat da) ere aurreikusten du lankidetzak-proiektuak garatzea hauen inguruan: ikerketa-esparruko trukeak, titulazio bikoitzak sortzea edo tesien kotutoretzak.

Berrikuntzaren arloan, eta zehazki Akitania Berria- Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen eremuan, proiektu interesgarrien garapena nabarmendu behar da Euroeskualdeko funtsezko sektoreetan, adibidez osasunaren sektorean (Chronicity Valley), ardoaren ekonomian (Euskadi-Vin-Aquitaine, EVA), eta itsasoko bioteknologian (Turquoise 00). Era berean, iristatzeko ur-kiroren ekonomiaren esparrua ere lantzen da (surfa, windsurfa, eta abar), Ocean Livin Lab laborategiekin. Era berean, duela gutxi ekimenen artean, Mugaz Gaindiko Lankidetzak Laborategi biak aipa daitezke, fabrikazio aurreratuaren eta nanoeskalako fisika eta kimika kuantikoaren arloetan (azken hori Donostia International Physics Center erakundearekin eta CSIS-UPV/EHU Materialen Fisika Zentroarekin).

Jakintza eta Berrikuntzaren Komunitateak (Knowledge and Innovation Community, KIC), Berrikuntza eta Teknologiaren Europako Institutuak (EIT) sortuak dira, eta goi-mailako hezkuntza, ikerketa eta enpresa-sektore bateratzen dituzte berrikuntza eta ekintzaileak sustatzeko. Komunitate horiek, jakintzaren eta berrikuntzaren Euroeskualdeko eragileak egituratzeko eta bateratzeko tresnak dira; lehenengo hiru KICak gai hauen ingurukoak izan ziren: klima-aldaketa (Climate-KIC), Informazio eta Komunikazio Teknologia (EIT ICT Labs) eta Energia jasangarriak (KIC InnoEnergy).

Euroeskualdeko Nazioarteko bi Bikaintasun Campusek berrikuntzaren arloko funtsezko eragileak dituzte. Hain zuzen ere, Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campusean, UPV/EHU eta Bordeleko Unibertsitateaz gain (bere IdEX bikaintasun-ekimenarekin) erakunde hauek parte hartzen dute proiektuan:

- ✓ Euskadi: Donostia International Physics Center (DIPC), Tecnalia, Ikerbasque, CAF, Ormazabal, KutxaBank;
- ✓ Akitania Berria: Institut National de la Santé et de la Recherche Médicale (INSERM), Centre National de la Recherche Scientifique (CNRS), Institut National pour la Recherche en Informatique et en Automatique (INRIA), Institut scientifique pour la Recherche en Agronomie (INRA), Institut de recherche pour l'ingénierie de l'agriculture et de l'environnement (IRSTEA), Institut français de recherche pour l'exploitation de la mer (IFREMER).

Iberus Nazioarteko Bikaintasun Campusaren kasuan, Nafarroa, Zaragoza, Lleida eta Errioxako unibertsitate publikoez gain, hauek dira bazkide estrategikoak:

- ✓ Energia eta Ingurumen sektorean: Acciona S. A. eta Acciona energía S.A., Centro Nacional de Energías Renovables (CENER), Confederación Hidrográfica del Ebro (CHE), Endesa, General Motors España S.L.U., Taim Weser S.A., Urbaser S. A.
- ✓ Osasunerako teknologien arloan: Bioingeniaritzaren, Biomaterialen eta Nanomedikuntzaren arloko Sareko Ikerketa Biomedikoko Zentroa (CIBER-BBN), Oryzon Genomics, Principia Technology Group.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

- ✓ Nekazaritzako elikagaien eta elikaduraren arloan: CODORNIU, Corporación Alimentaria Guisona, Grupo Vall Companys, Rioja. Jatorri Deitura kualifikatuaren eta Memoria, Ondarea eta Identitateen Arloan: Cervantes Institutua.

Erronka zera da, jakintza, berrikuntza eta teknologiaren esparruan lankidetzan parte hartzen duten eragileen kopurua handitzen jarraitzea, pixkanaka sartuz Euskampus eta Iberus nazioarteko bikaintasun-campusetan gaur egun ez dauden hiru eskualdeetako teknologia-zentroak eta ikerketa-zentroak.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

2.1.3 ekintza

Unibertsitateko titulazio bikoitzak garatzen aurrera egitea eta ikasleen nahiz irakasleen Euroeskualdeko mugikortasuna bultzatzea

Euroeskualdeko prestakuntza-eremu komuna garatzeko gakoetako bat da titulazio bikoitzen garapenean aurrera egitea, horrek truke gehiago egitea ahalbidetuko baitu. Horrek funtsezko puntua izan behar du eta horretan oinarritu behar du Euroeskualdeko unibertsitate-lankidetzak; hori baita lankidetzaren unibertsitate-ikasketan maila guztietan benetakoa eta eraginkorra izatea ahalbidetzen duen giltza.

Gradu komunen eskaintzak zailtasun handiak ekartzen dituenek, komenigarriagoa dirudi graduondokoetan egitea ahaleginak. Gainera, Masterren eta Doktoregoen baterako eskaintza diseinatzea funtsezko elementua da ikasleen eta komunitate akademiko osoaren mugikortasunari bide emateko. Era berean, egindako ikasketak aitorzearekin lotutako administrazio-izapideak elkartzeak eta errazteak lagunduko du, halaber, Euroeskualdeko unibertsitate-komunitate bat ezartzen.

Horri dagokionez, LLET taldeak lerro bat sustatu du Euroeskualdeko zentroetan ikasleen mugikortasunari laguntzeko, 2014an onarturiko Euroeskualdeko Plan Estrategikoak jasotzen zuen bezala. Hain zuzen ere, Erasmus + Europako programaren osagarri gisa, LLET taldeak ikasleen trukeak sustatu ditu Euroeskualdeko beken bidez. Beka horiek prestatuko dira Akitania Berriko Zentroekin eta Unibertsitateen Komunitatearekin duen lankidetzaren esparruan. Beken deialdiaren bigarren edizioaren (2017/2018 ikasturtea) helburua izan da, bereziki, Akitania Berrian dauden unibertsitate-zentroetara Euskadiko eta Nafarroako ikasleen mugikortasuna finantzatzea. Hartzaileak Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako Graduko (bigarren mailatik aurrera) eta Masterreko ikasleak dira, eta lehentasuna izango dute Euskal Herriko Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko, Mondragon Unibertsitateko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta Nafarroako Unibertsitateko ikasleek, baita Euroeskualdeko unibertsitate guztietako doktoregoko ikasleek ere.

Nahiz eta lorturiko helburua mugatua den kuantitatiboki, jarduerak ekarpen argia egiten dio Euroeskualdeko campus bat egi bihurtzeko helburuari; beraz, campus hori egitea emaitza kualitatibo garrantzitsua da.

Duela gutxi Euroeskualdeko unibertsitate batzuen artean (UPPA/NUP, adibidez) sinatu diren akordioek eta hitzarmenek, hain zuzen ere, ikasleen eta irakasleen mugikortasunean sakondu nahi dute, mugikortasun birtualean eta irakurleen trukeetan. Era berean, urratsak eman dira eduki partekatuen garapenean (adibidez, erreferentziazko esparru komun bat edukitzea mugaz gaindiko eskumenetan -UPPA eta UPV/EHU-, ziurtagiri bat entregatuz gauzatuko dena).

Hala ere, lanerako esparrua da, oraindik ere, araudi-integrazioan sakontzea, arautegi elkartua lortzeko; Administrazio eta Zerbitzu etako Langileen unean uneko mugikortasuna garrantzitsua izan daiteke, horren inguruan urrats sendoak emateko.

Azkenik, komenigarria izango litzateke Euroeskualdean ikasleen mugikortasuna sustatzearen barnean enpresetan eginiko mugaz gaindiko praktikaldiak ere sartzeara; hartara, enpresa-sektoreak ere, profesional prestatuen azken hartzaile gisa, lagunduko du eta etekina aterako die jarduera horiei.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

2.1.4 ekintza

Lankidetzaren dinamika bat bultzatzea Lanbide Heziketaren eremuan

Lanbide Heziketa (LH), garapen ekonomikoaren eta sozialaren une honetan garrantzi handia hartzen ari den hezkuntza-maila da, malgua eta oso moldagarria den eta enpresen eskakizun espezifikoetatik hurbil dagoen prestakuntza-motatzat hartzen delako. Gauzak horrela, Lanbide Heziketaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat "prestakuntza duala edo txandakatua" da; prestakuntza horretan curriculumaren zati garrantzitsu bat lantokietan beraietan ematen da.

Akitania Berriak, Euskadik eta Nafarroak kalitatezko LHko sistemak dituzte, eta dagokien eskualde- eta/edo sektore-eremuko enpresa-sareekin lotura estua ezartzea lortu duten ikastetxeen adibide asko daude; enpresa horiekin jarduera asko egiten dituzte elkarlanean (prestakuntza diseinatzea, praktikak enpresetan, prestakuntza-zerbitzuak, eta abar).

Gainera, funtsezko gai bat kontuan izan behar da arlo honetako lankidetzaren aurrera egiteko garaian: Lanbide Heziketaren arloan, Euroeskualdea osatzen duten hiru eskualdeek eskumen ugari dituzte. Horri esker, zalantzarik gabe, errazago jarri ahal izango dira abian mugaz gaindiko proiektuak.

Aurrekari interesgarri gisa, Ikaslan Gipuzkoa eta CMA64 erakundeak 2012 eta 2013 artean garatu zuen Lanbide Heziketako Mugaz Gaindiko Campusaren proiektua aipa daiteke.

Era berean, Lanbide Heziketako Mugaz Gaindiko Lankidetzaren inguruko Jardunaldiak ere aipa daitezke. Jardunaldiak 2016an izan ziren, eta agerian utzi zuten gaiarekiko dagoen interesa. Jardunaldi horiek Ikaslan Gipuzkoa, Tknika eta Chambre de Métiers et de l'Artisanat-ek sinaturiko hitzarmenaren ondorio izan ziren, eta bertan elkartu ziren LHko ikastetxeak, enpresak, profesionalen elkarteak, enplegu-bulegoak eta Euroeskualdeko erakundeetako kideak beraiek. Hain zuzen ere, haien helburua zen *«lan-dinamikak sustatzea, lankidetzaren proiektuak bultzatzea, egokituriko gaitasunak garatzea eta koordinazio mesedegarria sortzea prestakuntza eta enplegurako mugaz gaindiko ikuspegiarekin, tokiko ekonomiak indartuz»*.

Testuinguru horretan proposatu da, hitzarmen-marko baten bidez Euroeskualdea osatzen duten hiru eskualdeen lankidetzaren konpromisoak egituratzea Lanbide Heziketaren inguruan. Ekintza hauek sar litezke:

- Ikasleen eta irakasleen hizkuntza-murgilketa sustatzea.
- Kalitate-sistemak trukatzeko prestakuntzaren eta zentroen kudeaketan.
- Prestakuntza-metodologiak partekatzea.
- Kualifikazioak, titulazio bikoitzak eta abar gerturatzea.
- Ekintzailatza eta prestakuntzaren eta enpresak sortzearen arteko lotura bultzatzea Euroeskualdean.
- Fokatu ekintza eta trebakuntza espezialitate zehatz bat, potentzialki eta eskariarekin (adibidez, elektromekanika, robotika) eta saiatu modu koordinatuan aurrera egitea (curriculum arruntaren definizioa, ekipamendua ...)

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Jakintza ekonomia, berrikuntza eta enpresa-lehiakortasuna

2.2. jardun-ildoak

I+G+Baren ALORREKO LANKIDETZA EGITURATZEA HIRU ESQUALDEETAKO ESPEZIALIZAZIO ADIMENDUNAREN ESTRATEGIETAN IDENTIFIKATURIKO SEKTOREAK OINARRI HARTUTA

Esparrua

Europa 2020 estrategiaren helburu orokorra da Europar Batasuna ekonomia adimenduna, iraunkorra eta bateratzailea bihurtzea. Horrenbestez, berrikuntzaren alorrean asmo handiko helburuak ezarri behar dira eta nazioko nahiz eskualdeko agintariak Espezializazio Adimenduaren Estrategiak (S3, Smart Specialization Strategies) prestatu behar dituzte, Egiturazko Funtsak modu eraginkorrean erabil daitezzen eta sinergiak areagotu ahal izateko eskualdeko, nazioko eta Europar Batasuneko politika lerrotatuetan eta inbertsio publiko eta pribatuetan oinarrituz. Horretarako, Europar Batasunak proposatzen du baliabideak bildu daitezela eskualde bakoitzak lehiakortasun-abantaila nabarmenak dituen jardueraren arlo eta sektore kopuru mugatu batean; baliabide horiek I+G+I arloko eta lehiakortasunaren arloko Europako helburuak lortzen lagunduko dute.

Euskadiren kasuan, enpresen arloko gaitasunak, zientifikoak-teknologikoak eta merkatuaren beraren arlokoak kontuan izanik, lehentasunezko hiru esparru identifikatu dira: Fabrikazio aurreratua, Energia eta Biozientziak-Osasuna. Lehentasunezko esparru horiez gain, "aukera-hobi" gisa identifikatu dira Lurraldeari loturiko zenbait jarduerak, zientziaren, teknologiaren eta enpresaren arloan garatzeko aukerak dituztenak. Zehazki esateko, aukera-arlo gisa jarduerak hauek identifikatu dira: Nekazaritzako elikagaien sektorea; Ekosistemak eta ingurumena berrezartzea; Sorkuntza-, turismo- eta kultura-industriak; Hiri-garapenarekin eta lurralde-plangintzarekin loturiko jarduerak.

Bere aldetik, Akitaniako Eskualdeko Berrikuntza Adimendunaren Estrategiak hamaika lehentasunezko gai ditu: Kimika eta materialen industrializazioa, Biomasa mobilizazioa eta industriarako biofindegiak, Laser-sistemak, fotonika eta irudiak, Doitasun-nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien eko-eraginkortasuna, Zur bidezko eko-eraikuntza eta eraikinen energia-eraginkortasuna, Geozientziak, Natura-baliabideen kudeaketa iraunkorraren metrologia/monitorizazioa, Integratutako softwarea eta konektatutako objektuak, Ongizaterako eta osasunerako aktiboen prestazio adimenduna, Osasun-prozedura integratuak eta pazienteari arreta emateko teknikak, Mugikortasun garbia eta adimenduna eta Giza faktorean oinarritutako fabrika lehiakorra.

Poitou Charentes eskualdeari dagokionez, lehentasun estrategiko hauek ezarri dira: Elikagaien kalitatea, Kimika berdea, Ingurumena eta Osasuna, Material aurreratuak eta ingurumen-eragina murriztea garraio-sistemetan, Eko-mugikortasuna, Eraikuntza jasangarria, E-learning-a eta kultura-industria.

Limousin eskualdeak sei arlo identifikatu ditu bere berrikuntza-estrategiarentzat, bere klusterrekin lerrotatuta: Animalia-genetika, Ganadua haztea eta prozesuak, Eraikuntza adimenduna, Baliabide naturalak, Ekonomia sortzailea, Zeramika, Elektronika eta fotonika, Bioteknologia eta Gizakien eta animalien osasuna.

Nafarroak lehentasunezko sei arlo ekonomiko proposatu ditu: Automobilgintza eta mekatronika, Elikagaien katea, Energia berriztagarriak eta baliabideak, Osasuna, Turismo integrala eta Sorkuntza industriak eta industria digitalak.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Helburu orokorra

Euroeskualdean, teknologiaren eta enpresaren alorreko eragile asko daude; eragile horiek jardura oso esanguratsuak dituzte I+G+Baren eremuan eta jakintza ekonomian, orokorrean, barnean sartuz Oinarrizko Ikerketa Zentroak, Ikerketa Kooperatiboko Zentroak, Teknologia Zentroak, Sektore Zentroak, Enpresa-arloko I+G Unitateak, Berrikuntzako Tarteko Erakundeak, Ikerketako Erakunde Publikoak, eta abar. Beraz, egokia da lankidetzaren dinamika bati bide ematea, Euroeskualdeko eragile horiek guztiek parte har dezaten eta baterako proiektuak gara ditzaten dagozkien eskumen-eremuetan.

Helburu horrekin, ekintza-ildo honek proposatzen du Akitania Berriak, Euskadik eta Nafarroak beren programa operatiboan esparruan garatu dituzten Espezializazio Adimendunaren Estrategiak (RIS3) batera jartzea. Ekimenaren helburua da RIS3en arteko sinergiak aprobetxatzea, lehentasunezko gisa hautaturiko berrikuntzako arlo tematikoetan elementu komunak bilatuz eta ezar daitezkeen osagarritasunak, horrela I+G+B arloko eskualdeko eragileek elkarrekin lan egin dezaten horiei dagokienez. Arlo estrategiko hauetan eta euroeskualde mailan lankidetzaren proiektuak garatzeko, europar finantziazioa handitzeko helburua planteatzea komenigarria ikusten da.

Prozesu horren zati gisa proposatzen da, halaber, I+G+Baren arloko Euroeskualdeko eragileak bilduko dituen batzorde bat sortzea, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren sarea modu koordinatuan eta egituratuan antolatzea.

Deskribapena

Ekimen honek proposatzen du zuzeneko arreta jartzea hiru eskualdeetako berrikuntza-aukera komunei, dagozkien estrategiekin bat etorritik. Euroeskualdeko ikuspegiak hiru eskualdeetan bultzatutako dinamikak indartzea ahalbidetu behar du, eta, modu horretan, hartutako estrategiak ahalbidetu behar du hiru eskualdeetako lehentasunezko berrikuntza-ildoak egituratu eta finkatzea lurralde-garapen integratuaren esparruan.

Ikuspegi horrek dakar proiektu espezifikoak babestea, hiru eskualdeek lehiatzeko abantailaren bat, elementu sinergikoak eta/edo potentzial teknologiko nabarmena duten aukera-sektoreetan.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

2.2.1 ekintza

Berrikuntzaren alorreko Euroeskualdeko proiektuak egituratzea Euroeskualdeko hiru lurraldeetako sektore estrategikoak oinarri hartuta

Euroeskualdeko Plan Estrategikoaren lehenengo bertsioan, Akitaniako eta Euskadiko RIS3 estrategiak aztertu ziren (une horretan horiek ziren Euroeskualdea osatzen zuten esparru bakarrak), elementu komunak aurkitu eta lankidetzak-ekimenak horiek oinarri hartuta gauzatzeko.

Egiten ari ziren lankidetzak-prozesuei eta eginiko azterketei esker dezente sektore identifikatu ahal izan ziren, Euroeskualdearen eremuan enpresa-lankidetzarako estrategikotzat jo zitezkeenak. Sektore horiek estrategikotzat jo ziren hainbat faktore osagarri elkartzen zituztelako:

- Espezializazio-maila handia gutxienez hiru lurraldeetako batean, eta presentzia esanguratsua besteetan ere, sektore berean edo loturiko jardueretan.
- Era berean, sinergia-potentzial esanguratsua, lankidetzak-ekintzak aurreratzea ahalbidetzen duten hainbat elementu daudelako enpresa-jarduera horretan (know-how-aren transferentzia, sektoreko masa kritikoa lortzeko garaian osagarritasuna, eta abar).

Akitania eta Euskadiren arteko lankidetzarako lehentasunezko gisa identifikatu ziren sektore estrategikoak hauek izan ziren:

- **Aeronautika eta garraioa:** sektore aeroespaziala, garraio adimendunaren sistemak eta automobilgintza, mekanika aurreratuak, material berriak, eta abar.
- **Osasuna/Bio-osasungintza:** bizitza osasungarriarekin eta zahartze aktiboarekin loturiko produktu eta zerbitzu berritzaileak, eta abar.
- **Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria:** nekazaritza-sektorearen zerbitzura (nekazaritzaren eta artzaintzaren eremua, mahastigintzaren eta ardogintzaren eremua, eta abar) egongo den berrikuntzako Euroeskualdeko sare bat sortzea, azken helburua izanik nekazaritzako elikagaien industriari loturiko lankidetzak-proiektu berriak abian jartzea, merkataritza-helburuarekin.
- **Eraikuntza jasangarria, zura:** proiektu berritzaileak garatzea basoen, zuraren, eraikuntzaren, zuntzaren eta kimika berdearen inguruan.
- **Energia berriztagarriak:** energia-berrikuntza biomasaren, itsasoko energien eta abarren inguruan.
- **Itsasoko eta itsasertzeko baliabideak, aukerak eta iraunkortasuna:** arrantza, akuikultura, turismoa, itsas garraioa, energia berriztagarriak, itsas bioteknologia.

Poitou Charentes, Limousin eta Nafarroa Euroeskualdean sartzean eremu hori handitu egin da, eta horren ondorioz lehiakortasun-abantaila gehiago eta beste lehentasun estrategiko batzuk etorri dira.

Competitiv'eko proiektuaren esparruan, Euroeskualdea osatzen zuten esparru guztietako RIS3ak aztertu ziren, funtsezko eragileekin elkarrizketak egitearekin batera. Horren ondorioz, mugaz gaindiko lehentasunezko esparru bateratu hauek zehaztu dira:

- Automobilgintza/Mugikortasun jasangarria
- Osasuna (InnoMed Consortium)
- Nekazaritzako elikagaiak (Agro-Food Digital)
- Fabrikazio gehigarria (Additive Valley)
- Haize-energia/Smart Grids /Biltegiratzea

Testuinguru honetan, ahalegin handia egin beharko litzateke arlo teknologikoen eta sektore estrategikoen arteko lankidetzak proiektu europarrak sustatzeko eta babesteko, Europako finantziakzio-programen (H2020, eta abar) deialdiak aurkezten direnean, programa horien funtsen partaidetza eta euroeskualdearen ikusgarritasun handiagoa europar mailan izateko.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

2.2.2 ekintza

Focus group iraunkor bat sortzea Euroeskualdeko I+G+B arloko eragileak bilduz

Lortu nahi den helburua da lantalde iraunkor bat sortzea. Lantalde horrek bultzatu eta monitorizatuko ditu berrikuntzaren arloan garatu beharreko lankidetzak-ekintzak.

Lantalde edo focus group hori arlo politikoan (eskualdeetako gobernua) nahiz arlo teknikoan (berrikuntzarako eskualdeko agentziak) erantzukizunak dituzten pertsonak osatuko lukete, hiru eskualdeetako berrikuntzaren arloko politiken kargu daudenek.

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea LLETak koordinatuko lituzke arlo honetan hartzen diren ekimenak, focus group-ak ezartzen duen bidea oinarri hartuta; aurrerapen-txostenak aurkeztuko ditu eta elkarlaneko lan-metodoak partekatuko.

Euroeskualdeko Plan Estrategiko honen eguneratzean, "Jakintzaren eta Berrikuntzaren" ardatzaren baitan osaturiko tailerra edo lantaldea izan daiteke proposaturiko focus group-aren hasiera.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Jakintza ekonomia, berrikuntza eta enpresa-lehiakortasuna

2.3. jardun-ildoak

ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEA EUROESKUALDE-EREMUAN, KLUSTERREN ARTEKO MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA KONTUAN HARTUTA BEREZIKI

Esparrua

Enpresa gehienak ez dira oraindik konturatu Euroeskualde-eremua merkatu-eremua izan daitekeela, baina enpresen eta sektoreen arteko lankidetzari buruzko adibide asko daude, eta lankidetzak hori urte askokoa da jada. Horien artean, honako adibide nabarmen hauek aipa daitezke:

- Bihartean¹³, Interes Ekonomikoko Europako Taldea, Gipuzkoako eta Bayonne Pays Basqueko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko bi Ganberen arteko elkarlanaren emaitza. Bi lurraldeetako enpresen mugaz gaindiko potentziala garatzeko eratu zen.
- Competiv'Eko proiektua, hiru eskualdeetako klusterren arteko sinergiak identifikatzeko eta haien arteko lankidetzak-ekimenak sustatzeko sortua.

Helburu orokorra

Euroeskualdea osatzen duten eskualdeen artean gertutasun eta jarraipen fisikoa egonik ere, administrazio-mugak desagertuagatik "beste alde" ez da ikusi, orokorrean, merkatuak zabaltzeko eta eskualde bakoitzeko enpresen jardura garatzeko eremu geografiko egoki eta natural gisa; horren ondorioz, mugaz gaindiko enpresa-sarearen artean hurbilketa handiago izatea oztopatzen da. Horri dagokionez, oztopo izan dira kulturaren, hizkuntzaren eta administrazioaren arloko faktoreak, bai eta elkar ez ezagutzea ere.

Jardun-ildo honen helburu nagusia hiru eskualdeetako enpresen arteko lankidetzak sustatzea da, zona horietako enpresen eta sektore ekonomikoen artean dauden osagarritasunak identifikatuz eta horiek aprobetxatzea ahalbidetuz, bai tokiko merkatuei begira, bai nazioarteko merkatuetan sartzeari begira. Horrez gain, mugaz gaindiko enpresa-haztegiak sor daitezkeen sustatu behar da, Euroeskualdeko enpresa-sarea elikatze aldera.

Deskribapena

Jardun-ildoak proposatzen du Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako enpresen arteko lankidetzak sustatzera eta ahalbidetzerak bideratuta dauden proiektuak susta daitezela, ikuspegi anitzarekin:

- Alde batetik, beste eskualdean merkataritza-arloko kideak, azpikontratistak eta abar aurkitu nahi dituzten banakako enpresen arteko lankidetzak.
- Bestetik, enpresa-klusterren arteko lankidetzak (hainbat modalitatetan), lankidetzak-proiektuak bultzatze aldera.
- Horrela, eta aurrekoarekin lotuta, hainbat sektore estrategikori eustea –sinergien potentzial handiagoa dutenak eta/edo jada martxan dauden ekimen gehiago dituztenak, bultzada berezia emateko, Europako finantzaketa-eremu desberdinetan dauden aukerak aztertuz.
- Lanbide-profilen homologazio-maila handiagoa lortzen saiatzea Informazio eta Komunikazio Teknologien sektorean.

¹³ Nafarroako Ganbara Biharteanen sartu zen 2017ko ekainean.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

2.3.1 ekintza

Euskarri-zerbitzua ematea Euroeskualdeko enpresa-lankidetzari

Ekintza honen helburua Euroeskualde-zerbitzua eratzea da, eta zerbitzu horren egitekoa Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako enpresen mugaz gaindiko lankidetzak bultzatu eta sustatzea izango da. Helburu hori honako eginkizun hauetan zehaztuko litzateke:

- Informazioko eta enpresa-interfazeko zerbitzu bat ematea Euroeskualdean, mugaz beste aldean hornitzaileak, merkataritza-bazkideak, ekoizpen-arloko bazkideak eta abar bilatzen dituzten enpresentzat.
- Sektore ekonomiko desberdinetako Euroeskualdeko enpresen artean informazioa hedatzeko/komunikatzeko ekintzak eta topaketak antolatzea, intereseko informazioen hedapena, aurreko lankidetzak-proiektuen emaitzak, eragileen eta balizko bazkideen arteko B2B topaketak eta abar indartu eta dinamizatzeko, bereziki ELLaren deialdietara bideratuta daudenak.
- Laguntza eta bultzada berezia ematea bereziki garrantzitsuak diren enpresa-lankidetzako mugaz gaindiko proiektuei.

Ekintza honen funtsezko elementua izango litzateke Euroeskualdeko enpresen datu-basea sortzea eta datu-base horretan zehaztea enpresa horien jarduera-sektoreak, produktuak/zerbitzuak eta harremanetarako datuak. Horretarako, lehendik dauden oinarri posibleak aztertu beharko dira, eskualdekoak (adibidez, Eustat, SPRI, ADI, eta abar) eta Euroeskualdekoak, oinarri horiek sartzeko eta hedatzeko aukerarik ote dagoen aztertzeko.

Informazioa emateaz gain, zerbitzuak interfazeko zereginak eta enpresen arteko lehen hurbilpenak gauza ditzake merkataritza-harremanak bilatzeko, bereziki ETEen kasuan; izan ere, baliabide mugatuak izatea bereziki eragozpen handia izan daiteke ETEentzat, beste eskualdean partenaire egokiak identifikatzeko garaian.

Era berean, ematen du garrantzitsua dela zerbitzu honek oinarrizko ekintzak egitea Euroeskualde-lankidetzak sor ditzakeen aukerak hedatzeko eta komunikatzeko; horrela, elkarren ezagupen-falta gainditu daiteke eta Euroeskualdearen ikuspegiak ekar ditzakeen abantailak ikusi, bereziki enpresa txiki eta ertainei bideratuta dauden abantailak (batez ere Europako Lurralde Lankidetzaren finantzaketa-bideak erabiliz).

Zerbitzuak lankidetzak-proiektu jakin batzuk sustatzen laguntzeko eginkizuna izango luke; proiektu horiek bereziki garrantzitsuak izan daitezke, beren neurriagatik, enpresa-arloan edo teknologia-arloan duten eraginagatik, sektorean duten eraginagatik, eta abar, eta, beraz, arreta berezia jarri behar zaie.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

2.3.2 ekintza

Klusterren arteko lankidetzaren estrategia sustatzea

Ekintza honen helburua da LLETa Euroeskualdeko lankidetzari denboran zehar ematen ari den bultzadarekin jarraitzea; lankidetzaren hori hiru lurraldeetan dauden enpresa-klusterren artekoa da. Hiru eskualdeek egitura desberdinak dituzte arlo honetan: Euskadin eta Nafarroan klusterrek eta enpresa-elkarteak daude; Akitania Berrian, aldiz, lehiakortasun-guneak, eskualde-ekimeneko klusterrek, enpresa-taldeak, eta abar. Hala ere, LLETak finantzaturiko proiektuetan argi geratu den bezala, hori ez da eragozpen estrategia honek arrakasta izateko Euroeskualdean, eta enpresa-sektoreak berak eskatzeko estrategia horrekin jarraitzea.

Esparru honetan, Competitiv'eko proiektua aipatu behar da, Interclustering proiektuaren (2013-2016) ondorengoa. Competitiv'eko proiektuaren helburua ETEen lehiakortasuna indartzea da, mugaz gaindiko lankidetzaren oinarrituta eta klusterrek, teknologia-zentroak eta Pays Basque-Aquitaine/Euskadi/Nafarroako ekonomia-garapenerako agentziak inplikaturik. Proiektua Akitania-Euskadi-Nafarroa mugaz gaindiko kontsorzioak darama. Kontsorzio hori hauek osatzen dute: Bayonne Pays Basque NMG, Gipuzkoako Ganbera, ORKESTRA, Euskadiko Lehiakortasun Institutua eta Nafarroako Garapen Elkartea SA (SODENA). Competitiv'eko Interreg Poctefa 2014-2020 funtsekin finantzatuta dago.

Helburu nagusiak hauek dira:

- Inplikaturiko hiru lurraldeetako espezializazio-estrategiak aztertzea, elkarguneak identifikatzea eta ibilbide-oria idaztea.
- Aquitaine-Euskadi-Nafarroa eremuan proiektuak sustatzea, klusterren, teknologia-zentroen eta ekonomia-garapenerako agentzien artean, baliabide gutxi eta/edo antolaketako gaitasun gutxi dituzten ETEen lehiakortasunari laguntzeko.
- Alboko eta mugaz gaindiko lurraldeetako enpresen osagarritasuna erabiltzea berrikuntza-proiektuak eta nazioartekotzeko eginkizunak antolatzeko, lurralde bakoitzeko espezializazio-estrategietan oinarrituz.
- Lurraldeko ekonomia-garapenerako agentziei eta klusterrei beharrezko tresnak eskaintzea, haien mugaz gaindiko lankidetzak iraunkorrak izan daitezen.

Proiektuak bateratasun ekonomikoak aurkitu ditu lehentasunezko lau eremu hauetan:

- Fabrikazio aurreratua – Automobila / Ibilgailu elektrikoa/Material arinak /Mugikortasuna – Garapen jasangarria)
- Energia (Eolikoa Onshore / Biltegiatzea / Eolikoa Offshore /Smart Grids)
- Osasuna (Gailu medikoak / Fabrikazio aurreratua / E-Osasuna / Big Data (zeharkako gaia))
- Nekazaritzako elikagaiak (Nekazaritzako elikagaien industria fabrikazio aurreratua / Big Data / Kontsorbazio-teknikak (izoztea) / Energia-Osasuna konbinazioa / 4. gama (janari gordin prestatua, erabiltzeko) eta 5. gama (janari kozinatua)).

2017an, zehazki esateko, hiru proiektu aukeratu ziren, aurrera eramateko: Additive Valley, industria-sektorerako; InnoMed Consortium, osasungintzarako; Agro-Food Digital, nekazaritzako elikagaien sektorerako.

5. Euroeskualdearen strategiaren eguneratzea

Esperientziak eta aurrera eramaniko lan-dinamikak emaitzak onak eman ditu, eta, beraz, egokia da gaur egun indarrean dagoen programazio-aldiaz haratago horien jarraipena bermatzeko bideak bilatzea. Lankidetzar-erloak anitzak izango dira, baina, beti ere, ahaleginik handienak egin behar dira Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdean estrategikotzat jotzen diren sektoreetan.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Jakintza ekonomia, berrikuntza eta enpresa-lehiakortasuna

2.4. jardun-ildoak

EUROESKUALDEKO ENPLEGU-ARRO BAT GARATZEN LAGUNTZEA

Esparrua

2017an EMPLEO AE, Europa Indartzen proiektua garatu zen. Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroaren arteko Euroeskualdeko enplegu-arroa garatzea zen, LLETak sustatuta eta POCTEFaren esparruan finantzatuta. Lan horri esker, Euroeskualdeko mugaz gaindiko enpleguaren egoera ezagutu ahal izan da, bai estatistikaren arloan bai arlo kualitatiboan. Proiektua gauzatzean Euroeskualdeko Plan Estrategikoan aurreikusitako ekintzetako bat burutu da, hau da: "mugaz gaindiko enpleguari buruzko Euroeskualdeko diagnostikoa egitea, mugaz gaindiko enplegu-arro bat eratzeke lehenengo urrats gisa".

Lan honek agerian utzi duen gauzetako bat zera izan da, Europako beste muga batzuetan gertatzen denaren kontra, Euroeskualdeko mugaz gaindiko enplegu-fluxuak oso txikiak direla. Lan-arrazoiengatik fluxuak hain mugatuak izatearen arrazoi nagusiak dira langabezia-tasak ez direla oso desberdinak eta soldadak ere erlatiboki antzekoak direla. Gainera, hor dago hizkuntzaren gaia ere, oztopoa baita, eta administrazio-, zerga- eta gizarte-arloko gaiak, mugaz gaindiko enpleguarentzat zaitasun gehigarriak. Askotan, benetako oztopoa informazio egokiaren falta izan ohi da.

EMPLEO proiektuan jaso den bezala, badirudi epe motz/ertainera ez dela handituko modu esanguratsuan Euroeskualdeko mugaz gaindiko mugikortasuna; hala ere, fluxuak dinamizatzeko neurriak har daitezke, azken batean, Europar Batasunean lan-merkatu irekiagoa eta bateratuagoa sustatzeko.

Helburu orokorra

Jardun-ildo honen helburu nagusia da Euroeskualdeko enplegu-arro integratua eratzen laguntzea, Euroeskualdeko biztanle aktiboek gaur egun duten baino mugaz gaindiko mugikortasun handiagoa izan dezaten. Epe luzeko helburua zera da, beren ezaugarri eta itxaropenetarako egokiak diren lan-aukerak aurkitzeko esparru gisa ikustea biztanleek mugaz gaindiko lurraldea; horrela, biztanleen enplegarritasuna igo egingo litzateke eta Euroeskualdean integratzea bultzatu. Langileak Europa barruan mugituz ere eraikitzen da Europa, lan-merkatu bateratua sortuz; eta Euroeskualde-eremuak izaera hori islatu behar du bere mailan. Gainera, estrategia hau bat dator funtsezko politika baten (enplegu-politikaren) helburu orokorrekina eta erronkekina, bai hiru eskualdeen eremuan bai 2014-2020ko Europako kohesio-politikaren eremuan.

Deskribapena

Jardun-ildo hau ezartzeak elkarrekin lotuta dauden hainbat ekintza dakartza: mugaz gaindiko langileek eta mugaz beste aldean ezarri nahi duten enpresek duten informazio- eta laguntza-gabezia zuzentzea. Bigarren elementu bat da modu eraginkorrean aurrera egitea Euroeskualdeko eremuan jarduten duten enplegu-zerbitzu publikoen arteko lankidetzan (Lanbide-Pôle Emploi-Nafar Lansare). Epe luzeago batera, hiru eskualdeetan enpleguaren arloan jardungo duten eragile publiko eta pribatuaren sare zabala ezarri beharko litzateke (eskualdeko garapen-agentziak, prestakuntza-zentroak, enplegu-haztegiak, enpresa-elkarteak eta sindikatuak, enplegurako agentzia pribatuak, eta abar).

Azkenik, Euroeskualdeko enplegu-arroa finkatzen lagunduko luketen beste ekintza osagarri batzuk ere proposa daitezke, adibidez, ikasleen mugaz gaindiko praktikak sustatzea enpresetan, hizkuntza-gaitasunerako programak, eta abar.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

2.4.1 ekintza

Mugaz gaindiko langileentzat eta langileei buruzko informazio-sistemak eta -gailuak abian jartzea

Mugaz gaindiko langileen fluxua sustatzeko "EMPLEO" proiektuan jasotzen diren gomendioen artean, hauek agertzen dira (Euroeskualdeko Plan Estrategiko honen ekintza gisa sartu dira):

- Mugaz gaindiko langileei administrazio-, gizarte- eta zerga-arloko gaietan hobeto laguntzeko beharra. Alde batean eta bestean dauden arauen arteko desberdintasunak ez dira oztopo nagusia. Oztopo nagusia da arau horiek ez ezagutzea eta arau horiek sortzen dituzten zalantzak, askotan lan-arloan erabaki zailak (beste herrialde batera lanera joatea) hartu behar dituzten pertsonentzat edota mugaz gaindiko haien jardueran sor daitezkeen egoeretan.

Lan-ildo honetako lehenengo gertaera izango da Euroeskualdeak berehala sortuko duen informazio-atari bat. Atari horretan langileentzako eta enpresentzako informazioa egongo da mugaz gaindiko enpleguari buruz. Atari hori EGEF Eskualde Garapenerako Europako Funtsak finantzatu du, INTERREG V A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA) 2014-2020 programako 2015eko POCTEFA proiektuen deialdiaren barruan.

- Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako administrazioentzat (zerga-arlokoa, soziala, lan-arlokoa, eta abar) prestakuntza-ikastaroak egiteko beharra, eta lankidetzak egonkorra eta erraza garatu ahal izateko elkar ezagutzeko bilerak egiteko beharra.
- Mugaz gaindiko lan-merkatuari buruzko informazio estatistikoa eskuragarriago egoteko beharra, informazio homogeneoa bermatzeko; horri esker, Euroeskualdeko lan-merkatuaren egoerari buruzko azterketa konparatiboa eta jarraipena egin ahal izango dira.

Mugaz gaindiko enpleguan oztopo diren arlo jakinetan (zerga-arloa, gizarte-segurantzak, hizkuntzak, prestakuntza, estatistikak, eta abar) lan-programak zehaztu eta garatzeko talde tematikoak sortzea tresna baliagarria izan daiteke arreta jarri beharreko arlo bakoitzean modu eraginkorrean aurrera egiteko.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

2.4.2 ekintza

Euroeskualdeko hiru enplegu-zerbitzu publikoek partekaturiko lan-eskaintza eta lan-eskaria sortzea

Europako Batzordeko Enplegu Zuzendaritza Nagusiak, "PARES, Partnerships between Employment Services" ekimena babesten du azken urteotan. Ekimenaren helburua da enplegu-zerbitzuek elkar ezagutzea eta know-how-a eta egiteko moduak trukatzeko laneko orientabideari eta laneratzeari, bitartekaritzari eta abarri dagokienez.

EMPLEO proiektuaren barnean sartzen da, era berean, Euroeskualdea osatzen duten hiru eskualdeetako enplegu-zerbitzu publikoen (Pôle Emploi, Lanbide eta Nafar Lansare) arteko lankidetzak duen garrantzia Euroeskualdeko lan-mugikortasuna sustatzeko. Lehenengo biek, Pôle Emploi eta Lanbidek, jada urrats batzuk emanak zituzten, informazioa eta jardunbide egokiak partekatzeko helburuan aurrera egiteko hitzarmena sinatzeko.

Hiru enplegu-zerbitzu publikoen arteko lankidetzak indartu eta egonkor egitea da helburua, harreman errazagoa lortzeko eta protokolo bat ezartzeko mugaz gaindiko lan-mugimenduetatik datozen arazoengatik inguruan. Planteamendu horren helburua da, era berean, elkarrengandik ikastea egiteko moduetan, aplikaturiko programak, langabetuen talde jakin batzuen lanketa, eta abar. Hain zuzen ere, EMPLÉO proiektutik eratorritako aurkikuntzetako bat izan da erabilitako inprimakiak eta protokoloak desberdinak direla, eta, gainera, beti ez dela jasotzen informazio esanguratsua (adibidez, mugaz gaindiko hizkuntzen jakintza) mugaz gaindiko enplegu-arroa eratzearen ikuspegitik. Beraz, erronka handiak ditugu aurrean enplegu-eskatzailen eta enplegu-eskaintzaileen Euroeskualdeko lan-poltsa partekatua eratu nahi izanez gero.

Lehenengo helburua da hiru eskualdeak lankidetzak hitzarmen batean sartzea, eta hortik abiatuta Euroeskualde-ekalan zerbitzu hauen hornikuntza aurrera egitea:

- enplegua bilatzen, egungo prozeduretan eta abarretan laguntza ematea.
- informazioa ematea lan-merkatuari buruz (kontratatzeko duten sektoreak...) eta alboko herrialdeko lan-baldintzei buruz (enplegua bilatzeko eta laneratze agentzien web-guneak, lan-hitzarmenak, aholku praktikoak, eta abar)
- CVen gordailua web-gunean eta mugaz gaindiko enplegu-eskaintzak begiratzeko
- Mugaz gaindiko langileen eta prestakuntzako erakundearen arteko harremana, mugaz gaindiko eremuan etengabeko prestakuntzako jarduerak egiteko.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

2.4.3 ekintza

Hiru eskualdeek partekatzen dituzten lanbide-heziketako eta laneratzeko politiketan sakontzea, mugaz gaindiko praktikak eta beste ekintza osagarri batzuk garatuz

EMPLEO proiektuak agerian jarri du abantaila eta aukerarik handienak ematen dituen hiru eskualdeetako lanbide-heziketako eta laneratzeko politikak ko-erakitzea dela, lan-merkatuaren eta enplegu-politiken beraien osagarritasunen aurretik. Horrek abantaila bikoitza du:

- Agintari eta kudeatzaile publikoentzat, esperientzia-trukeek benetako aukerak eskaintzen dituzte jardunbide egokiak bilatzeko eta baterako programak garatzeko, gaur egun bereziki "etorkizuneko gaitasunetan".
- Prestakuntzen onuradunentzat, nazioartera zabaltzeak (bai prestakuntzako "stage"-en bidez bai enpresako mugaz gaindiko praktiken bidez) benetako baliu erantsia ematen du, elebidun-izaeragatik nahiz lanbide-aukera berriengatik eta beste eskualde bateko lan-mundura gerturatzeagatik. Gainera, kontratazio-bide berri bat izan daiteke inplikaturiko enpresentzat, lan-mugikortasuna bideratuz. Hori baliagarria da prestakuntza-maila guztientzat: lanbide-ziurtagirietatik hasi eta unibertsitate-titulazioetara (graduak edo graduondokoak).

Bereziki interesgarria da ikaskuntzaren eta Lanbide Heziketaren arloko koordinazioa hobetzea (Euroeskualdea osatzen duten hiru eskualdeek eskumen zabalak dituzte arlo horretan); izan ere, ikasleen trukeaz gain, sinergiak eta osagarritasunak bila daitezke zenbait espezialitatearen eskaintzan, koordinaturiko prestakuntza-curriculumak, eta abar. Hori bereziki garrantzitsua izan daiteke "etorkizuneko gaitasunentzat", alegia, oraindik ere prestakuntza-eskaintza berria garatu gabe dutenentzat.

Euroeskualdeko enplegu-arro "normalizatua" lortzeko, "mugaren eraginak" mugatu gabea, beste ekintza osagarri batzuk ere behar dira. Horiei esker oztopoak kenduko dira eta aukerak aprobetxatuko. Horri dagokionez, hauek aipa daitezke:

- Hizkuntza-gaitasunerako programa espezifikoak garatzea: hizkuntza da oztopo nagusietako bat mugaz beste aldeko enplegurako sarrera mugatzeko orduan. Hori horrela, langabetuak eta lanean daudenak Euroeskualdeko hizkuntzetan prestatzera bideraturiko ekintzei esker, pertsona horien enplegarritasuna hobetuko da beren jatorrizko lurraldetik kanpo.
- Enpresa-haztegien arteko lankidetzak: Euroeskualdean horrelako instalazio ugari daude, eta negozio berriak sortzen laguntzeko zerbitzuak. Erakunde horien arteko ezagutzak eta lankidetzak ere (horien jarduerari mugaz gaindiko ikuspegia emanez) lan-mugikortasun handiagoa eta enplegu-truke gehiago bideratuko ditu Euroeskualdearen eremuan.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

5.4. Lurralde iraunkorra eta garraioa

3. jardun-ardatza:

LURRALDE IRAUNKORRA ETA GARRAIOA

- **3.1. jardun-ildoak:**
BIDAIAIRIEN NAHIZ SAL-
GAIEN MUGIKORTASUN
IRAUNKORRERAKO EREDUA
SUSTATZEA EUROESKUAL-
DEAN

3.1.1. ekintza: Hurbiltasuneko mugikortasuna:

- Bidaiairien mugikortasun iraunkorrari bide emango dioten zerbitzuak sustatzea
- Mugaz gaindiko Hurbiltasuneko Trenbide Operadore bat sortzeko aukera aztertzea

3.1.2. ekintza: Distantzia ertaineko mugikortasuna (hiriartekoa):

- Mugaz gaindiko trenbide-zerbitzuen (bidaiairak eta salgaiak) hedapena sustatzea
- Autobidearen erabilera sustatzea Euroeskualdeko eskalan, bidaiairak mugitzeko

3.1.3. ekintza: Distantzia luzeko mugikortasuna:

- TEN-T sarearen Atlantikoko trenbide-igarobidearekin lotzea Nafarroa
- Industriguneetatik hurbil dauden nodo eta plataforma intermodalak (salgaiak) indartzea
- Euskadin tren-autobidearen zerbitzua emateko proiektuari laguntzea

3.1.4. ekintza Garraio- eta logistika-operadoreen eta zamaketarien arteko lankidetzak sustatzea

3.1.5. ekintza Euroeskualdeko administrazioekiko lankidetzak bultzatzea, Euroeskualdeko errepide bidezko garraio publikoko zerbitzuak modernizatze eta hobetze aldera

- **3.2. jardun-ildoak:**
INGURUMENAREN
IKUSPEGITIK ERREFERENT-
ZIAZKO GUNE BIHURTZEA
EUROESKUALDEA, ETA
LURRALDE-
ANTOLAMENDURAKO PO-
LITIKAK KOORDINATZEA

3.2.1. ekintza: Mendialdearen barrualdean abiatutako ekimenei eustea eta horiek hedatzea

3.2.2. ekintza: Atlantikoko itsasertza zaintzeko baterako praktikak abian jartzea

3.2.3. ekintza: Lurralde- eta hiri-antolamendurako politikak koordinatzea

3.2.4. ekintza: Klima-aldaketari aurre egiteko ekintzak sustatzea

- **3.3. jardun-ildoak:**
EUROESKUALDEKO BALIA-
BIDE NATURELEI BALIOA
EMATEA, MODU PARTEKA-
TUAN

3.3.1. ekintza: Elkarrekin sustatzea kalitateko nekazaritza, eta nekazaritza biologikoa garatzea

3.3.2. ekintza: Basogintza iraunkorrari balioa ematea

3.3.3. ekintza: Energia berriztagarrien gaineko esperientzien eta ekimenen berri ematea elkarri

5. Euroeskualdearen strategiaren eguneratzea

- **3.4. jardun-ildoak:**

**EUROESKUALDEKO TURIS-
MOA SUSTATZEKO EKINT-
ZEN GARAPENA
BULTZATZEA, MODU
KOORDINATUAN**

**3.4.1. ekintza: Kanpoko merkatuekiko turismo-sustapen
komunari ekitea**

**3.4.2. ekintza: Euroeskualdean partekatutako turismo-
sektoreak eta hurbiltasuneko turismoa
bultzatzea**

**3.4.3. ekintza: Euroeskualdeko prestakuntza profesionala
bermatzea turismoarekin lotutako lanbideetan**

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Lurralde iraunkorra eta garraioa

3.1. jardun-ildoak

BIDAIARIEN NAHIZ SALGAIEEN MUGIKORTASUN IRAUNKORRERAKO EREDUA SUSTATZEA EUROESKUALDEAN

Esparrua

Garraioaren eta irisgarritasunaren inguruan mugitu da beti Euskadiren eta Akitaniaren arteko lankidetzak.

Akitania-Euskadi Euroeskualdea sortu zenean, kide sortzaileek berriro aipatu zuten "mugikortasun iraunkorreko eremua" garatzeari eman behar zitzaioela lehentasuna; hots, Europar Batasuneko garraio-estrategiarekin koherentzia, intermodalitateko politika globalan oinarritutako eremua lehenetsi behar zela.

Helburu orokorra

Euroeskualdeak "eremu integral" koherentea osatzen duen trenbide-politika globala garatu nahi du bereziki; hots, orientazioen eta bidaiarien garraioko edo pleiteko Europako lehentasuneko sareen inguruan antolatutako eremua (3. EGG-S-G, eta 4. Igarobidea).

Deskribapena

2014-2020 aldian, trenbide-azpiegituren arloko "errealitate berri" bat egongo da, eta horrek erabat aldatuko du zerbitzuen eskaintza:

- UIC trenbide-zabalera berria martxan egongo da mugatik harago, eta trenbide-komunikazioa Donostiaraino bermatzea ahalbidetuko da.
- Abiadura handiko tren-sarea Bordeleraino iritsiko da, eta lehenengo iraultza izango da ibilbidearen denborari dagokionez, eta horrek Euroeskualdeko lurralde osoari eragingo dio.
- Azkenik, "Euskal Y-a" abian jartzeak eta hura Akitaniako sarearekin lotzeak ahalbidetuko du muga-efektua betiko gainditzea, eta zerbitzuak Euroeskualde osoan garatuko dira, karga-etenik gabe.

Egokiak diren maila geografiko guztietan garatuko da tren-arloko etorkizuneko eskaintza hori, **hurbiltasun-premiei** (zehazki, mugaz gaindikoa) nahiz **distantzia ertainari eta luzeari erantzuteko, TEN-T-en premiazko helburua den mugaz-gaindiko botila lepoak sahistea-rekin bat eginez.**

LLETa (Europar Batasunak lurralde-lankidetzarako tresna gisa aitortzen duena, baina baita Europar Batasunak sustatutako eta finantzatutako lankidetzak mota oro gisa ere) Euroeskualde-eremuaren kokapena indartzen saiatuko da bereziki, *lobbying-ekintzen* bitartez, nazioko eta Europako sailen inguruan, Eskualdeen eta Autonomia Erkidegoekin koordinazioan. Jarduera horrek lagunduko du arestian aipatutako helburuak lortzen, eta, helburu horien artean, trenbide-sareen lotura dago lehen postuan; bereziki, abiadura handiko sarearena.

Intermodalitatearen aldeko eta berotegi-efektuko gas-emisio txikiko garraioaren aldeko apustu hori hainbat ekintzaren bitartez garatuko da epe laburrean eta ertainean. Ekintza horiek bidaiarien garraioari buruzkoak eta salgaien garraioari buruzkoak izango dira.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Lurralde iraunkorra eta garraioa

3.1. jardun-ildoak

BIDAIARIEN NAHIZ SALGAIEN MUGIKORTASUN IRAUNKORRERAKO EREDUA SUSTATZEA EUROESKUALDEAN

Transfermuga 1 eta Transfermuga 2 izeneko proiektu europarrak jomuga adierazgarriak izan dira mugikortasun iraunkorrerantzko aurrerapenean: 2013an hasi zen lehenengo fasea edo Transfermuga 1, eta mugaz gaindiko mugikortasun-eskaria identifikatzea eta zenbait proposamen eragile aurkeztea ahalbidetu zuen: autobus-linea bat Iruneraino hedatzea; Hegobus sare berria mugaren beste alderaino zabaltzea; txartel konbinatuak sortzea; Hendaian geltoki-proiektu bat abiatzea eta bidaiariarentzako informazio-atari bat nahiz mugaz gaindiko ibilbide-kalkulagailua sortzea (trasfermuga.eus). Epe ertainerako eta luzerako dinamika sendotu nahi izan da bigarren fasean edo Transfermuga 2n. Horretarako, mugaz haraindiko web-plataforma bat sortu du proiektuak. Horren bidez, operadore guztiak irits daitezke datu irekietara (open data), bidaiariarentzako informazioa hobetzeko xedez. Halaber, autobuserako eta trenerako ikerketa espezifikoak egin dira, lurraldean proiektu berriak aktibatzea ahalbidetzeki begira.

Hemendik aurrera, mugikortasun iraunkorreko eredu batean aurrera egin nahi du Euroeskualdeak, lurralde berriak sartuz eta ikuspegi hirukoitz hau hartuz:

- Hurbiltasuneko mugikortasuna, mugaz gaindiko eremu zuzenenean.
- Distantzia ertaineko mugikortasuna, Euroeskualdearen mailan, barruko eskualdeetako hirien arteko komunikazio-premiei erantzunez.
- Distantzia luzeko mugikortasuna, Europaren mailan, Batzordeak finkatutako gomendioekin eta xedeekin bat eginez, TEN-T Atlantic Corridor-ari lotuta.

Transfermuga proiektuaren maila desberdinetako helburuak bete ahal izango dira, ezarrita dauden eta elkarren osagarri diren helmugak lortzeko aukera eman dezaketen eragile esanguratsu guztiak mugitzen badira. Gainera, mugikortasunaren eremuan *ad hoc* gobernantza bateratzea lortzeko nahiari erantzuten jarraitzea ahalbidetuko du. Horrela, mugaz gaindiko "Garraioen Agintaritza" sortzeko beharraren inguruko eztabaidan parte har lezake LLETak.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

3.1.1. ekintza

Hurbiltasuneko mugikortasuna

Mugaz gaindiko eremuan hurbiltasuneko mugikortasun iraunkorra sustatzeko lanak bi azpiekintza biltzen ditu:

- bidaiarien mugikortasun iraunkorrari bide emango dioten zerbitzuak sustatzea
- mugaz gaindiko Hurbiltasuneko Trenbide Operadore bat sortzeko aukera aztertzea

A) Hurbiltasuneko bidaiarien mugikortasun iraunkorrari bide emango dioten garraio-zerbitzuak sustatzea

Testuingurua / erronkak:

Heritarrei gaur egungo nahiz etorkizuneko joan-etorrien eskaintzari buruz ematen zaien informazioa hobetu nahi da, bai eta horien erabilera arindu ere.

Helburuak:

Helburua zera da, alde batetik, eskaintza ekomugikorrak ezagutarazteko bide homogeneoa sustatzea mugaren bi aldeetan. Garraio-eskaintza alternatibo guztiekin lotuta egongo litzateke, garraio kolektiboak izan (errepideko hiriarteko eskaintza, tren-arloko eskaintza, hiriko eskaintza eta abar) edo partekatutak izan (autoa partekatzea, bizikleta eta abar) .

Bestetik, bidaiariek garraio modu horiek guztiak erabiltzea ahalbidetu behar da; bereziki, lurraldeen artean bateragarriak diren *ticketing-sistemak* sortzeko premiatik abiatuta. Ekimena abian jarri da jada Euskadin, Bat, Barik eta Mugi txartelak elkartzeko asmoaren bidez, eta hori Euroeskualdeko gainerako lurraldeetara hedatu beharko litzateke, Euskadin gauzatzeko prozesuan elkarreragingarritasunaren ikuspegiarekin.

Azken batean, "mugikortasunari buruzko datuak" erabiltzea ahalbidetzen duten ekimenen multzoa sustatzea da kontua. Funtsezko alderdia da bai joan-etorriak aztertzeke, bai informazioa emateko, baina baita benetako mugikortasun-eskariarekin lotutako eskaintza berriak sortzeko ere.

Funtsean, herritarrekiko gardentasun-helburuarekin gauzatu behar dira ekimen horiek guztiak, *Open Data* ekimenak ahalik eta gehien ahalbidetuz.

Ekintzaren deskribapena:

- Hainbat ekimenen (hala nola, *ticketing*-aren alorreko interoperabilitatea gauzatzeko, datuak irekitzeko eta erabiltzeko eta bidaiariei informazioa emateko ekimenen) garapen-maila aztertzea mugaren bi aldeetan Euroeskualdeko esparru orokorrean.
- Orain arte abian jarritako ekimenak homogeneizatzea ahalbidetzen duten mekanismoak identifikatzea (ikuspegi tekniko, lurralde-animazioa, datu-baseak irekitzea, eta abar).
- «Euroeskualdean mugikortasun iraunkorra izatea erraztuko duten konponbideei buruzko liburu zuria» proposatzea. Liburu horrez gain, aurreproposamen operatiboak biltzen dituen koaderno bat ere izan beharko da.

Modalitateak:

- Ikasketen finantzaketa,
- *Ticketing*-konponbideak garatzeko finantzaketa,
- "Garraioen open dataren" inguruko ekimen berritzaileen finantzaketa,
- Informazio multimodaleko plataformen finantzaketa.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

B) Mugaz gaindiko Hurbiltasuneko Trenbide Operadore bat sortzeko aukera aztertzea

Testuingurua / erronkak:

Argi eta garbi bereizita dagoen trenbide-sistemaren ekoizpenean jarduera bikoitz hau sortzea ekarri dute Europar Batasunean salgaien trenbide-garraioa liberalizatzeak eta erreferentziazko operadoreek garraio-igarobide handien aldeko apustua egiteak: ardatz handietan bolumen handiak garraiatzea eta bigarren mailako fluxuak beren azken ibilbideetan bideratzea.

Hortaz, trenbide-garraioaren bigarren etapa hori heltzeko modurik hoberena tokiko bitarteko ekonomikoekin eta hurbilago funtzionatzen duten erakunde deszentralizatuetatik jardutea dela proposatzen da. Erakunde mota hori bazegoen lehendik herrialde batzuetan, baina Frantzia orain ari dira garatzen pixkanaka, Hurbiltasuneko Trenbide Operadoreak (HTO) izenarekin.

Akitaniako eskualdeak gai hori buruzko azterlan batzuk osatu ditu, eta, azterlan horien ondorioz, mota horretako erakundeak sortu dira; guri dagokigun kasuan, OFP Sud Ouest operadorea nabarmentzen da. Operadore hori Baionako Merkataritza Ganberak sustatzen du, epe labur-ertainean trenbide-eskaintza lehiakorra garatzeko Bidasoako iparraldean, bi gune garrantzitsuren inguruan : Baionako Portua eta Mouguerreko CEFa.

Bestalde, Euskotrenek, Eusko Jaurlaritzaren trenbide-operadoreak, bidaiarientzako eta merkantzientzako segurtasun-ziurtagirien lizentzia du, Interes Orokorraren Trenbide Sarean lan egiteko.

Euskadin, trenbide-azpiegiturak eraldatzeko eta garatzeko prozesu konplexuaren azken plangintzaren mende dago azterketa orokor hori, eta funtsezko mugarria lortuko du 2018. urtean, Euskal Trenbide Sare Berria abian jartzen denean eta sare hori Frantziako Sarearekin lotzen denean, Irunen, Europako zabalera estandarrean. Jardun garrantzitsu horrek ekarriko du Bidasoako muga karga-haustura amaitzea, eta jokaleku berri bat sortuko da, non mugaz gaindiko trafikoak kudeatzeko eta horiek jarduteko teknika berriak garatuko diren. Esparru hori egokia izango da Hurbiltasuneko Trenbide Operadoreetarako.

Helburuak

Euskadiko trenbide-azpiegiturak modernizatzeko eta handitzeko prozesua amaitu ostean, trafiko mistorako egokiak diren, 3 errail-zabalera desberdin dituzten eta bi azpiegitura-administratzailek (ADIFek eta ETSk) kudeatuko dituzten hiru sarek eratuko dute Euskal Trenbide Sistema.

Sistema horretan Trenbide Sare Berria (Euskal Y-a) gehitzeak eta Europar Batasuneko interoperabilitate-baldintzak betez hura lotzeak ekarriko du Europaz gaindiko sareetan erabat txertatzea eta Bidasoako muga karga-haustura behin betiko desagertzea.

Jokaleku berri horretan, Euskadiko trenbide-sarearen funtzionaltasunari buruzko azterketa eta bidaiarien nahiz salgaien trafikorako sareen kudeaketarako egokienak diren formulei buruzko azterketa sakona egin behar da.

Azken esparru horretan, aurreko atalean deskribatutako bi mailak hartu behar ditu kontuan azterketak, baina areta berezia jarri behar du eskualde osoko salgaien trenbide-garraioaren kudeaketa bultzatzeari eta optimizatzeari dagokionez. Zehazkiago, HTO batean edo batzuetan oinarritutako trenbide-eskaintza hori berregituratzeko aukera aztertu beharko da, hiru lurralde historikoetako eta Bilboko, Pasaiaiko eta Bermeoko Merkataritza Portuetako jardura ekonomikoaren gune nagusien eskakizunei eraginkortasunez erantzuteko.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Mugaz gaindiko esparruan, OFP Sud Ouest operadoreak iparraldean izan duen esperientziatik eta presentziatik abiatuta, Euskadin hurbiltasuneko trenbide-garraiorako aurreikusita dagoen antolamendu-egituraren bilakaerarako egon daitezkeen formulak aztertu beharko dira, eskema operatibo integratua lortzeko. Bada, Euroeskualdean erakunde komun bat edukitzea izango da azken helburua, mugaz gaindiko eskualde-trafikoak modu eraginkorrean kudeatzeari begira; erakunde horrek, gainera, trenbide-garraioa sustatzen lagunduko du.

Ekintzaren deskribapena

Euroeskualdeko trenbide-sistemaren hurrengo konfigurazio berriak, batez ere Euskadiko Trenbide Sarearen eraldaketa garrantzitsutik eratorri denak, salgaien garraioa kudeatzeko sistemak eraldatzeko aukera-eremua eskaintzen du, batez ere mugaz gaindiko mailan, karga-haustura pixkanaka desagertu egingo delako mugan.

Inguruabar hori aprobetxatuz, eta trenbide-garraioa Euroeskualde osoan sustatze aldera, funtsezkoa da antolamendu-sistema berriak eta trenbide-eskaintzaren sistema berriak garatzea; bereziki, mugaren inguruko eta mugaz gaindiko eremuan, HTOen eredu berriari jarraikiz.

Trenbide-sistemaren eraldaketa horren garapen-egoera aurreratua kontuan hartuta, ezinbestekoa izango da, lehenengo fase batean, Euskadiko hurbiltasuneko eskaintzaren berrantolaketa buruzko azterketa osatua egitea eraldaketa horretatik ateratzen den esparru berriaren barruan.

Etapa hori bukatutakoan, eta hurbiltasuneko trenbide-garraioaren zerbitzuak kudeatzeko erreferentziazko egitura berria definitu ostean, egitura horren bilakaera-mekanismoak eta formulak aztertu beharko dira, osagarritasuna bilatuz lehendabizi eta bateratzea bilatuz azkenik, Akitanian abian jarritako antolamenduarekin (OFP Sud-Ouest), azken helburua izanik salgaien trenbide-trafikoak kudeatzeko erreferentziazko HTOa izatea mugaz gaindiko eremuan.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

3.1.2. ekintza

Distantzia ertaineko mugikortasun iraunkorra (hiriartekoa)

Euroeskualdearen eremuan distantzia ertaineko mugikortasun iraunkorra sustatzeari begirako ekintza bi azpiekintza hauetan banantzen da:

- mugaz gaindiko trenbide-zerbitzuetarantz (bidaiariak eta salgaiak) aurrera egitea
- autobidearen erabilera sustatzea Euroeskualdeko eskalan, bidaiariak mugitzeko

A) Mugaz gaindiko trenbide-zerbitzuen (bidaiariak eta salgaiak) hedapena sustatzea

Testuingurua / erronkak:

Mugaren bi aldeetan, azpiegitura-lan handiak ari dira egiten, eta, lan horiei esker, trenbide-paisaia aldatuko da Euroeskualdeko eremuan. Hala, IEZk, Irun-Donostiako hirugarren errailak eta Euskal Y-ak ibilbidearen denborak hobetzea ahalbidetuko dute, eta, era horretan, elkarrengandik hurbilago egongo dira eskualdeetako hiriburuak. Horrela, eta 1. Transfermugaren esparruan aztertutako faseekin koherentzian, distantzia ertaineko zerbitzuak eta loturak ez ezik, eskaintzak ere aztertzeko daude. Gogoeta hori mugaz gaindiko eskualdeko zerbitzu-mailan egin behar da, ez toki-mailan, TENT-T programaren alorreko Europako politikaren sinergiak aprobetxatuz. Eusko Jaurilaritzak sustatutako eta Euroeskualdearen esparruan garatutako lege eta eskaeren azterketen bidea, honen zati garrantzitsu bat dagoeneko eginda dago.

Helburuak:

TEN-Taren sare nagusia sartuta dagoen eta izen bera duen igarobide multimodalaren zati da Atlantikoko igarobidea. Lehendik zegoen 4.500 km-tik gorako linea izanik, trenbide-azpiegituraren hainbat ezaugarri biltzen ditu. Programa horren helburuetako bat interoperabilitatea hobetzea da; batez ere, trenbidearen zabalera UIC araudira egokituz iberiar penintsulan. Hobekuntza horiei esker, bidaiariak denbora hobeetan mugitu ahal izango dira igarobide horretan barrena.

Beraz, Baiona-Donostia, Akize-Gasteiz edo are Bordele-Bilbo loturei buruzko gogoeta berezia egitea da helburua, bidaiariei ahalik eta baldintza hoberenak emate aldera, Euroeskualde-eremuan joan-etorriak egiteari begira.

Ekintzaren deskribapena:

Euroeskualdean, distantzia ertaineko igarobideei (Bordele-Iruñea-Donostia-Gasteiz eta Bordele-Donostia-Bilbo) dagokienez, eta, mugaz gaindiko eremuan, Baiona-Donostia igarobideari dagokionez:

- Trenbide-sistema bakoitzaren ezaugarriei buruzko diagnostiko bat egitea, zerbitzuari (salmenta, kontrola, garbiketa eta abar) eta ustiapenari (elektifikazioa, seinaleak eta abar) buruzko azterketa ardaztuz.
- Eserlekuak esleitzeko sistema eta eskema aztertzea gaur egungo konfigurazioan, baina, batez ere, "abiadura handiko aukeran" oinarritutako programa-ikuspegia izanik.
- Europan dauden ereduak buruzko konparazio-azterketa egitea, askotariko eragilean (operadoreak, gobernamentua eta abar) zeregina argitzea.
- Euroeskualdeko distantzia laburreko (Baiona-Irun-Donostia), distantzia ertaineko (Bordele-Gasteiz, Bordele-Bilbo) eta distantzia luzeko (Paris-Madril) eskariaren arabera antolatutako trenbide-zerbitzuen jokaleku desberdinak ez ezik, lotutako gobernamentu-eredu bat ere proposatzea.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

B) Autobidearen erabilera sustatzea Euroeskualdeko eskalan, mugikortasun iraunkorra lortzeko

Testuingurua / erronkak:

Baiona-Hendaia-Iturainoko autobus-linea martxan jarri da, autobidea hartuta zerbitzu malgurako formula gisa, arazoizko kostuarekin...

Alabaina, lekualdaketa mota hori ez da aukera ekologiko eta ekonomikoak proposatzen dituen eredu bakarra. Ibilgailuak partekatzeko ekimenen sustapena beste ardatz eraginkor bat da distantzia ertaineko joan-etorrietarako.

Helburuak:

Garraio-euskariaren logikaren inguruan hausnartzea da kontua, garraio motaren inguruan hausnartu ordez. Mugaren alde bateko eta besteko autobide-sarea kalitate onekoa denez, sare horren erabilera optimizatzea izango litzateke helburua, masifikazioaren (garraio publikoa), azkartasunaren (espres lineak, gordetako lineak) eta ibilgailuen erabilera partekatuen logikan oinarrituta.

Autobusari dagokionez, helburua zera da, Euroeskualde osoan, egungo eskaintzetatik haratago eramatea garraio mota horren ahalari buruzko gogoeta (Eurolines, Pesa, CG64ren etorkizuneko linea). Erabiltzaileei konfortari eta intermodalitateari dagokionez baldintza hoberenak dituen kostu txikiko alternatiba eskaintzea lortu nahi da; batez ere, eskualdeko eta tokiko hiriburuetan. Logika hori bera sakondu daiteke ibilgailuen erabilera partekatua sustatzen duten ekimenen bitartez; batez ere, bestelako aukera gisa, garraio publikoaren eskaintzek eskaerari erantzun ezin diotenean.

Logika global horrek zerbitzu-eskaintzaren logika bildu behar du, baina baita komunikazio-ekintzak eta gune estrategikoen ezarpena jaso ere: ibilgailuen erabilera partekaturako eremuak.

Ekintzaren deskribapena:

- Frantziako eta Espainiako autobus-eskaintzen (publikoak nahiz pribatuak) ezaugarriei buruzko diagnostikoa egitea, eskaintza horien gobernamentu-ikuspegia ez ezik, nazioko eta Europako lege-esparruaren bilakaera ere bilduz.
- Ibilgailuen erabilera partekatuen praktikei buruzko eta praktika horiek Akitanian eta Euskadin sustatzeari buruzko balantzea egitea.
- Autobidezko mugikortasun iraunkorraren eskaintzari buruzko eskema global bat proposatzea Euroeskualdean, nodoen garapenari buruzko plan bat txertatuz erronka estrategikoetan (autobus-geltokiei eta ibilgailuen erabilera partekaturako eremuei dagokienez),

Inbertsioen finantzaketa:

- Eremuak egokitzea ibilgailuen erabilera partekaturako.
- Autobus-geltokiak.
- Komunikazioa eta abar.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

3.1.3. ekintza

Distantzia luzeko mugikortasun iraunkorra

Distantzia luzeko mugikortasun iraunkorra sustatzeko xedea hiru azpiekintzatan zatikatzen da:

- TEN-T sarearen Atlantikoko trenbide-igarobidearekin lotzea Nafarroa
- Industriguneetatik hurbil dauden nodo eta plataforma intermodalak (salgaiak) indartzea
- Euskadin tren-autobidearen zerbitzua emateko proiektuari laguntzea

A) TEN-T sarearen Atlantikoko trenbide-igarobidearekin lotzea Nafarroa

Bidaia- eta salgaien mugimendua erraztea da ekintza honen azken xedea. Horretarako, Prestazio Handiko Nafarroako Igarobidearen (CNAP) garapena sustatzea eta Prestazio Handiko Nafarroako Igarobidearen UIC zabalera Euskal Y-arekin konektatzeko helburuan aurrera egitea proposatzen da, igarobide hori irekita onura ateratzen duten erakundeekin (nazio-nahiz foru-mailakoekin) protokoloak eta akordioak eginez. Dagoeneko, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua elkarlanean ari dira horretan Sustapen Ministerioarekin batera, hiru erakundeek sinatutako protokolo baten bitartez, Korridore hori lehenbailehen ireki ahal izateko abian dauden prozedurei jarraipena emanez. Honako hauek dira ekintzan aurrera egiteko zehaztu diren mugariak:

- ❑ Euroeskualdearen eremuko erakunde espezifikoekin (autonomia-erkidegoekin, portugintaritzekin...) akordioak egitea, CNAPa elkarrekin sustatzeko. Akordioak egitea Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Akitaniarekin, bai eta salgaien fluxu nafarren inguruko portuekin ere, CNAParen garapena bultzatzeko, pentsatuz CNAPa garatzeak trenbide-fluxu gehigarriak ekarriko litzekiela Euskal Y-ari nahiz Ebroko Igarobideari (Mediterraneoko Igarobidearekiko loturan). Horrekin, trafikoak eta kargak ugartu eta kontzentratu nahi dira, trenbideko garraio-zerbitzuen bideragarritasuna ahalbidetzeko moduan, baina gutxiegi erabiltzen diren tren-terminaletan egiten diren inbertsio-ahaleginak bikoiztu gabe. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako eta Espainiako Gobernuak dagoeneko inplementatu dituzten eta une honetan abian diren protokolo eta prozesuak osatuko dituzte akordio horiek.
- ❑ UIC zabaleran konektatzea, igarobidetik trenbideetarako karga sortzen duten nodo nagusietara. Salgaien trafikoa sortzen duten nodo nagusiak sartu (Noaingo zentro logistikoa, Iruñeko trenbide-instalazioak –Landaben–, Altsasuko trenbide-instalazioak, Tuterako/Castejongo terminal intermodala, lurralde-ereduan proposatzen diren eremu logistikoetako bestelako instalazio intermodalak, industrialdeak...) UIC zabaleran konektatzea sustatzeko eta nodo horiek Atlantikoko Igarobidearekin eta Mediterraneoko Igarobidearekin konektatzea ahalbidetzeko, Prestazio Handien Nafarroako Igarobidearen bidez. UIC zabalerarekin batera, eta kasuak banaka aztertuta, TEN-T sarearen gainerako estandarrek konexio horietan ftertatzea ere aurreikusi da.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

B) Industriguneetatik hurbil dauden nodo eta plataforma intermodalak (salgaiak) indartzea

Nafarroako salgaien garraio efizientea ahalik eta gehien indartzea eta malgutzea da ekintza honen azken xedea. Horretarako, honako hau proposatzen da:

- ❑ Erakunde publikoekin (ADIF, portu-agintaritzak...) hitzarmenak egitea, terminal intermodalak hobetzeko. Erakunde publikoekin akordioak egitea, gaur egungo trenbide-terminala edo Noaingo Planean (aurrerago azalduko dugu) zein Castejon/Tuterako Planean aurreikusten den trenbide-terminala eta, hala badagokio, etorkizuneko terminalak hobetzeari begira. Azpiegitura horien nahiz ustiapen-baldintzen hobekuntza elkarrekin sustatzea da helburua.
- ❑ App ekimenak garatzea, Nafarroako terminal intermodalak hobetzeko. Nafarroako terminal intermodalen baldintza operatiboak hobetzea ahalbidetuko duten ekimen publikoak eta pribatuak bultzatzea. Zentzu horretan, terminal intermodalak hobetzeko behar diren inbertsio publikoak murrizteko formulak aztertu beharko lirateke. Adibidez, zerbitzuren baten ustiapena laga dakiok sektore pribatuari, hobekuntza-inbertsioak edo instalazio logistikoko intermodalak egitearen truke.
- ❑ Iruñea/Noaingo nodo logistikoko azpiegitura logistikoa eta intermodaletan egin daitezkeen hobekuntzen azterketa espezifikoak egitea. Gaiaren inguruan egin diren ikerketak eguneratuko dituen ikerketa espezifikoak egitea, Iruñea/Noaingo nodo logistikoko azpiegitura logistikoa eta intermodaletan (Noaingo zentro logistikoa eta Iruñeako aireportuan) egin behar diren hobekuntzak identifikatzen eta hierarkizatzen ahalbidetuko duena.
- ❑ Gainerako eremu logistikoko intermodaletako terminal intermodalen garapena lehenestea: Eremu logistikoko intermodalen garapenean zentratzea trenbide-azpiegiturretan egiten diren inbertsioak, jarduera ekonomikoa, logistika eta garraioa biltzen baititu; batez ere, Tuterako Castejoneko terminal intermodalean.

C) Euskadin tren-autobidearen zerbitzua emateko proiektuari laguntzea

Testuingurua / erronkak:

Euskadiko eta Akitaniako bide-azpiegiturak beteta daude eta hori benetako arazoa da jada, epe laburrera areagotu egingo dela ematen baitu. Egoera horren aurrean, eta garapen iraunkorraren testuinguruan, Euskadik eta Akitaniak Espainiaren eta Frantziaren arteko mugaz gaindiko garraio konbinatua sustatzearen aldeko apustua egin dute.

Garraio konbinatuaren esparruan, tren-autobidearen eredu berriaren garapena distantzia luzeko errepide bidezko garraioaren aurreko aukera lehiakor gisa azaltzen ari da. Egiaztatuta dago tren-autobide berriek gaitasuna dutela trafikoak errepidetik trenbidera aldatzeko, eta berroreka modala lortzen laguntzen dute, modu eraginkorrenaren alde eginez; halaber, onura sozioekonomiko garrantzitsuak ematen dituzte (batez ere, ingurumen-arloko onurak).

Frantziako Gobernuak Tarnoseko tren-autobideko Terminala eraikitzekeo proiektua bertan behera utzi ondoren, une honetan Espainiako eta Frantziako gobernuak elkarlanean ari dira —baita Eusko Jaurilaritza ere, Jundizko Terminalari dagokionez— Frantziako iparraldetik (Dourges edo Paris) Jundizeraino luzatuko den tren-autobidea planifikatzeko. Orain artean, eraikuntza-enpresei adierazi zaie interes-adierazpena, eta operadoreei dagokiena eskaintzak jasotzeko fasean dago une honetan.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Helburuak:

2023-2024rako, Euskal Trenbide Sare Berria (Euskal Y-a) abian jartzen denean eta sare berria UIC zabalerarekin Frantziako Sarearekin lotzen denean, Astigarraga-muga tartean hirugarren erraila jarri, Atlantikoko Tren Autobidea Bidasoako hegalderra luzatzea lortuko da, Gasteizko eremuraino. Trenbide Sarea luzatzeak (160 Km) ekarriko luke haren trazadura Euroeskualde-eremuan osatzea eta Euskadiko hegalderra terminal berri bat jartzea, Tren Autobidearen onurak Atlantikoko Ardatz guztira hedatuz Euroeskualdean, eta modu eraginkorrean lagunduz (oraingo honetan bai) mugaz gaindiko itogunea murrizten.

Hortaz, Atlantikoko Tren Autobide hori Gasteizko hegalderraino —zehazki, Jundizeraino— abian jartzea bultzatu nahi da, eta, puntu horretan, terminal multimodal bat jartzea, Espainiako eta Frantziako Gobernuen arteko akordioetan ezarritakori jarraikiz, Atlantikoko Tren Autobide horretarako aurreikusitako instalazio eta operazio-sistemekin bateragarria izango den tren-autobideko plataforma bat hartzeko gai izango dena. Espainiako eta Frantziako gobernuen arteko akordioaren arabera —Eusko Jurlaritzak ere parte hartu du, terminalari dagokionez—, Atlantikoko Tren Autobidea definitu da plataforma terminala Gasteiz-Jundizen eduki dezan, eta ez Tarnosen (Nouvelle Aquitaine), kokapen hori bertan behera utzi baitzen, aldeztatik adierazi dugun bezala. Espainiako Gobernuak eta Eusko Jurlaritzak elkarlanean dihardute terminal hori diseinatu eta garatzeko ekimenean, Hitzarmen batetik abiatuta.

Ekintzaren deskribapena:

Gasteizko hegalderra plataforma berri bat sartzeko Frantziako Iparraldetik Euskadira ino Atlantikoko Tren Autobidea abian jartzeak ahalbidetuko luke ibilbide luzeko errepide bidezko trafikoak, Euroeskualdean barrena igarotzen direnean, lurraldeko hegalderra puntu estrategiko batean hartzeko aukera biderkatzea.

Bestalde, Gasteiz-Jundizko terminal berriaren eta beste terminal batzuen (Lezo-Pasaia Arasur, Noain, Tuter a edo Mugerre) arteko hurbiltasunak ahalbidetuko luke operazio-eskema multipolar bat ezartzea instalazioen osagarritasunaren kontzeptutik, eta horrek ekarriko du zerbitzu integratua eskaintzea tren-autobidearen zerbitzuaren erakargarritasuna hobetzeko.

Horren ondorioz, Eusko Jurlaritzak Sustapen Ministerioarekin eta ADIFekin zuzenean aurrera daraman lanaren jarraipena egin beharko da, Atlantikoko Tren Autobideak abian jartzeko ezarpen- eta ustiapen-baldintza onenetan, eta, ildo horretan, Jundizko terminalaren eta lehenago aipatutako besteen gaitasun osagarriak optimizatzen ahalegintzeko.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

3.1.4. ekintza

Garraio- eta logistika-operadoreen eta zamaketarien arteko lankidetza sustatzea

Kontzentratuz gero behar besteko bolumena osa dezaketen salgaien bolumen txikietatik abiatutako tren-zerbitzuak eratzea da ekintza honen helburua (multibezero zerbitzuak), bai eta errepide bidezko garraioen operadoreekin eta logistika operadoreekin –besteak beste– tren-zerbitzu intermodalak sortzea ere.

- ❑ Zamaketarien eta operadoreen arteko aliantza sustatzea, kargak kontzentratzeko. Foroak egitea, Nafarroako eremuko zerbitzuen tren-operadoreek (gaur egungoek eta etorkizunekoek) ematen edo emango lituzketen zerbitzuak aurkez ditzaten, eta, askotariko fabrikatzaileen edo errepideko operadoreen salgaien bolumen txikien kargak kontzentratuz gero, tren-garraioko zerbitzuak (bereziki, intermodala) ezar daitezkeela nabarmendu dezaten.
- ❑ Askotariko garraio moduen operadoreen arteko lankidetza bultzatzea, garraioko (trenbideetako eta errepideko) operadoreen, logistikako operadoreen eta zamaketarien artean harremana egotea sustatuz, Euroeskualdean tren-zerbitzuak eratze aldera, edo, bestela, Nafarroako kluster sektorialek Euskadiko eta Akitania Berriko klusterrekin parte hartzea sustatzea.

3.1.5. ekintza

Euroeskualdeko administrazioekiko lankidetza bultzatzea, Euroeskualdeko errepide bidezko garraio publikoko zerbitzuak modernizatze eta hobetze aldera

Honako hau izango da ekintza honen xedea:

- ❑ Garraio-zerbitzuen informaziora iristearekin eta ordainketa-sistema integratuak (ticketing) garatzearekin zerikusia daukaten proiektu teknologikoak sustatzea.
- ❑ Mugaz gaindiko errepide bidezko eta erabilera orokorreko garraio publikoko zerbitzuak emateko baldintzak hobetzea ahalbidetuko duten proiektuak eta proba pilotuak sustatzea, herritarrak interes orokorreko zerbitzuetara iristeko eta arrazoi turistikoek bultzatutako bidaiariak mugitzeko trafikoei dagokienez.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Lurralde iraunkorra eta garraioa

3.2. jardun-ildoak

INGURUMENAREN IKUSPEGITIK ERREFERENTZIAZKO GUNE BIHURTzea EU-ROESKUALDEA, ETA LURRALDE-ANTOLAMENDURAKO MUGAZ GAINDIKO POLITIKA INTEGRATUA GARATzea

Esparrua

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa lankidetzaren hasieratik, ekimen ugari izan dira, bai eskualde arteko funtsaren esparruan, bai Europako programen esparruan, baina eragiketarak unean unekoak dira, denboran etenak dituzte eta geografikoki mugatuta daude (batez ere, Pirinioetako eremura).

Helburu orokorra

Euskadiko eta Akitaniako Europako eskualdeek natura-ondare ezin hobea eskaintzen dute, eta ondare horren gainean dago eskualde horietako jardura ekonomikoaren zati handi bat. Nolanahi ere, higiezin, turismoaren eta trafikoaren presio handiei egin behar diete aurre, eta horrek zaintza berezia eskatzen du. Euroeskualde osoan ingurumen-estrategia partekatua garatzea da helburua.

Bestetik, eta lurraldearen antolamendu-eremuari dagokionez, premia teknikoaren ondorioz, operadoreek sare nagusien, hots, komunikazioen (lurrekoak, trenbidekoak eta abar) edo energiaren (elektrizitatea, gasa, eta abar) jarraitutasuna bermatu behar izan dute, zailtasun gehiagorekin edo gutxiagorekin. Alabaina, Euroeskualdean ez da inoiz nazioz gaindiko ikuspegia duen benetako lurralde-plangintzarik eta -antolamendurik planifikatu; ez, behintzat, alde bateko eta besteko aurrez landutako dokumentuak elkarren ondoan jartzetik harago (askotan, gainera, ekintza artifiziala izaten da).

Deskribapena

2020 Europa Estrategiak lehentasunezko zeregina ematen dio ingurumen-ikuspegiari. Natura-erreserba "santutuen" kasu berezian izan ezik, ingurumenarekiko errespetua eta garapen ekonomikoa elkartzea da helburua, elkar indartuz.

Ingurumenari buruzko zaintza areagotuz, ikerketa- eta baliabide-zentroak garatu eta indartu dira bi eskualdeetan, bai zientziaren ikuspegitik, bai justiziaren eta ekonomiaren ikuspegitik. Horrekin batera, elkartze-mobilizazioa biderkatu egin da, eta Euroeskualdeko herritarrek premia ekologikoaren inguruan duten kezka igo da, gero eta gehiago hartzen baitute harekiko kontzientzia. Nolanahi ere, ekimenen ugaritze hori desberdina, sakabana eta, askotan, gatazkatsua da oraindik.

Ekimenen inflazio-testuinguru horretan, LLETaren zereginetako bat izan liteke, hain zuzen ere, lurralde-kolektibitateek ikuspegi akademikoak eta jardun-programa zehatzak nazioz gaindiko izaerarekin antola ditzaten laguntzea, eta, beraz, ikuspegiak eta prozesuak alderatzeko aukera ahalbidetzea, trabak saihesten eta eragozpenak kentzen lagunduz; Europar Batasuneko laguntzek ere lagunduko dute horretan.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

3.2.1. ekintza

Mendialdearen barrualdean abiatutako ekimenei eustea eta horiek hedatzea

Ekologiaren ikuspegitik begiratuta, barneko ingurunea bereziki sentibera da, gauzatutako mugaz gaindiko lankidetzen antzinasunak egiaztatzen duenaren arabera. Honako hauek dira lehentasunezko lankidetzak (Nafarroa sartuta):

- Ura kudeatzeko politika indartzea, bai baliabideak partekatzeari dagokionez, bai uholdeen aurkako borrokari dagokionez, klima-aldaketak direla medio gaur egun gero eta uholde gehiago baitaude.
- 2000 Natura Sarearen eta igarobide ekologikoen mugaz gaindiko jarraitutasuna bermatzea.
- Elkarrekin lan egitea —mugarik ezagutzen ez dutenll espezie inbaditzaileen aurka.
- Elkarrekin lan egitea proiektuetan, egun dagoen ondare ekologikoaren kontserbazioa bermatzeko.
- Herriarren zientziako tresnak eta plataformak sustatzea, biodibertsitateari buruzko informazioa edukitzeko.
- Interpretazio-zentroei balioa ematea eta horiek hedatzea; belaunaldi berriak prestatzeko, bereziki.

3.2.2. ekintza

Atlantikoko itsasertza zaintzeko baterako praktikak abian jartzea

"Prestige" petrolio-ontzia hondoratzearengatik (2002ko azaroa) izandako hondamendi ekologikoaren ondorioz, izugarrizko baterako mobilizazioa egin zen gure itsasertzeko eskualdeetan. Adibide hori jarraiki, eta krisi-testuinguru hain larriaren ondoriozko dramarik izango ez delakoan, argi dago Euroeskualdean funtsezko bi eremutan jardun behar dela lankidetzan:

- Itsas kutsaduraren eremuan, itsasertzeko hondakinen aurkako ohiko borroka indartuz; beti ere, hondoratzearen kasuan esku hartzeko planen eta bitartekoen baldintza operatiboei eutsi behar zaiela ahaztu gabe, operazio-ozeanografiaren sistema partekatuak barne hartuta.
- Itsas urperatzearen, ekaitzen inpaktuaren eta itsasertzaren higaduraren inguruan gero eta ugariagoak diren arriskuen aurka egokitzeke eta arrisku horiek ahultzeko eremuan, esperientziak trukatzuz alerta-sistemei, babesak eraikitzeari eta kostaldeko urbanizazioa arautzeari dagokienez.

Bi kasuetan, tokiko eta eskualdeko kolektibitateen erantzukizuna da (ikus Akitaniako itsasertzeko Interes Publikoko Elkartearen Plan Estrategikoa). Kolektibitate horiek zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren sareetan eta elkartze-sare espezializatuan (esate baterako, Surfrider Fundazioan, zeinak euskal kostaldea aukeratu duen bere egoitza europarra ezartzeko) oinarritu daitezke.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

3.2.3. ekintza

Lurralde- eta hiri-antolamendurako politikak koordinatzea

Lan akademiko eta operatibo guztietan (Europako eskualde-politikaren mailan, zehazki), lurraldea antolatzeko planak gero eta gehiago bermatzen dira hiri-egiturako eskemetan, eta hirien sarea da geografia ekonomiko berria antolatzeko elementu nagusia.

Oraindik oso nazionalak diren ikuspegietatik begiratuta, Euroeskualdea beti azaltzen da bi gune metropolitarretan (iparraldean Bordeleren inguruan eta hegoaldean Bilboren inguruan) polarizatuta, eta gune horiek beren eskualdeko biztanleriaren herena inguru biltzen dute.

Baina mugaz gaindiko Euroeskualdea kontuan hartzeak (oraindik oso gutxi integratuta dago eta ez da oso homogeneous) ikuspegi berriak irekitzen ditu goi-mailako hirugarren sektoreko hierarkia berri batez (unibertsitateak, ospitaleak, erabakitze-zentroak eta abar) lagundurik dagoen hiru guneko hiri-sistema baterantz, eta LLETak aurrea hartu behar die ikuspegi horiei.

Lurraldearen antolamenduari ikuspegitik, hiru maila zentrokide bereiz daitezke mugaz gaindiko programetan:

- Bidasoa ibaiaren estuariokoa eta Atlantikoko Pirinioen/Nafarroaren muga-lerrokoa, berehalako hurbiltasun-kontuetarako.
- Baiona/Donostia konurbanizaziokoa, kostaldea urbanizatzeko kudeaketa koordinatua egiteko.
- Euroeskualdekoa, ikuspegi estrategiko askoz zabalagoa eta malguagoa izanik.

Lehenengo bi mailak dagokienez (Partzuergoa eta Eurohiria) ikus litekeen lehenengo mugarria izango litzateke komenigarria dela gaiaren eta lan-eremu desberdinei buruzko etorkizuneko jokalekuen (hezkuntza, ekonomia-jarduera, eta abar) egoerari buruzko kartografia komuna egin dadin bultzatzea.

Bestalde, nabarmendu behar da interes handia dagoela paisaia aztertzeke eta katalogatzeko lan-eremu komuna bilatzeko, bereziki erabilgarria baita hurbiltasuneko mugaz gaindiko eremuen kasuan; esate baterako, Bidasoa ibaia bera.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

3.2.4. ekintza

Klima-aldaketari aurre egiteko ekintzak sustatzea

Klima-aldaketa gizateriak aurre egin behar dion erronka handienetako bat da, eta, horregatik, planetako sistema sozial, ekonomiko eta politiko guztien ahalegina eskatzen du.

Klima Aldaketaren Gobernu arteko Panelak (KAGP) bere azken txostenean honako hauek aipatzen ditu datozen urteetarako jokaleku global gisa: tenperaturak gero eta gehiago igotzea, elurraren urtze orokorra eta muturreko fenomenoek maiztasunean eta intentsitatean izandako aldaketak, eta proposatzen du premiazko neurriak jarri behar direla aldaketa horiek gizartean, ekonomian eta naturan eragingo dituzten ondorioak moteltzeko.

Klima-aldaketa zeharkakoa denez, sektore guztietan jardutea eskatzen du, politikak plangintza-maila handienean inplikatzearekin bat. Baina, era berean, oso garrantzitsua da nazioarteko eta nazioko ekintza ekintza zehatzen bitartez ezartzea tokiko eta eskualdeko mailetan. Eskualdeko administrazio publikoek erantzukizun handia eta aukera aparta daukate beren eskumenen ingurunean klima-ekintza bultzatzeko. Eta haien lanak honako honetara bideratuta egon behar du:

- Araudi-esparruak eta ekintza-planak sortzea tokiko eremuan; kutsadura arintzeko helburu nazionalak betetzen laguntzen duten eta herritarrei –beren bizi-kalitatea hobetuz– erresilientzia ematen dieten ekintza planak sortzea, alegia.
- ETSn sartuta ez dauden sektoreek (garraio-sektorea, bizitegi-sektorea, zerbitzu-sektorea, hondakinak kudeatzeko sektorea eta nekazaritza-sektorea) sortutako emisio hedatsuak murriz daitezen sustatzea, karbono gutxiko gizartea sustatuz.
- Kanpainak garatzea kontsumoak murrizteko bizitegi-sektorean.
- Klima-aldaketaren ondorioei, inpaktuei eta natura-sistemek eta sektore sozioekonomikoek eta biztanleria taldeek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunari buruzko informazioa biltzea eta bateratzea, klimaren bilakaerak sortutako aukera eta mehatxu potentzialak identifikatuz.
- Pirinioetako klima-aldaketa ezagutzea eta hari buruzko ikerketa ahalbidetzea eta bultzatzea.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Lurralde iraunkorra eta garraioa

3.3. jardun-ildoak

BALIABIDE NATURELEI BALIOA EMATEA, MODU PARTEKATUAN

Esparrua

Bi eskualdeen arteko lankidetzek nolabaiteko antzintasuna dute lehenengo sektorean (nekazaritza-basoak), baina orria ia zuri dago energia beriztagarriei dagokienez.

Helburu orokorra

Aurreko puntuan adierazi dugunez, natura-baliabideei balioa ematea bateragarria izan daiteke ingurumen-kezkekin, bai nekazaritzari (abelzaintza eta nekazaritza), basogintzari edo energia beriztagarriei dagokienez, bai produkzio-ereduak espezifikotasunetara eta Euroeskualdearen irudira egokituz.

Deskribapena

Nekazaritza-politika komuna "berdetzeak" berretsi egiten du eskualde-garapeneko Europako programetan iragarritako garapen iraunkorreko nahia. Horrek ahalbidetu egin beharko lituzke gauzatzeko beti konplexuak diren "askotariko funtsak" dituzten esku-hartzeak.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

3.3.1. ekintza

Elkarrekin sustatzea kalitateko nekazaritza

Beren lurraldeari dagokionez, bi eskualdeetan ikusten da nekazaritza "kalitatekoa" dela nekazaritzaren sektorean nahiz basogintzan edo fruten eta lekaleen produkzioan, gehienek izendapenak eta labelak edo zigilu espezifikoak baitituzte.

Abeltzaintzaren sektorean, lankidetzak eskualdeko arraza komun ustiapenetan (zaldi-aziendak, behi-aziendak, txerri-aziendak, ardi-aziendak, eta abar) eta haragiaren genetikan gauzatzen dira batez ere. Bestalde, sustapen komunak egin behar dira (gastronomia-azoka eta -erakusketetan, zehazki), bi eskualdeetako banaketa-zirkuitu gurutzatuak mobilizatuz (bereziki kooperatiba-egituren artean): foie grasa eta euskal txerria, adibidez.

Nekazaritzan, mahastigintzan eta fruten nahiz lekaleen sektoreak eskaintzen dituzte ikerketa-eta esperimentazio-zentroen (tokiko produktuetan eta landare-barietateetan, bereziki) edo merkataritza-zentroen artean lankidetzak agronomikoan aritzeko aukera hoberenak. Dena dela, unean uneko eragiketek (deialdi publikoak, esaterako) edo elkarlan iraunkorrek aurrera egin dezaten laguntzea izango da LLETaren helburua kasu honetan ere.

Kalitateko nekazaritzaren aldeko estrategiaren erdigunean, honako hau bilatu behar da:

- Merkataritza gurutzatua eta produktuen baterako sustapena egitea.
- Produktu-trazabilitatearen, nekazaritza-lurren babesaren, lurralde-hausnarketaren, IKTen garapenaren, nekazaritza-aholkularitzaren eta abarren inguruko esperientzia-trukaketa egitea.
- Landa-ingurunearen baliorantzko sentsibilizazio handiagoa egotea gizartean.
- Europako eta nazioarteko lankidetzak-sareak egitea elkarrekin.
- Ekarpenera eraginkorra egitea enpleguari, inguruneari (uraren eta airearen kalitatea) eta herriartean eta nekazarien osasunari dagokionez.
- Ekarpenera egitea landutako biodibertsitateari eta biodibertsitate basatiari.

3.3.2. ekintza

Euroeskualderako basogintza iraunkorrari balioa ematea

Basoak oso leku garrantzitsua du bi eskualdeetan, enplegu-arloan pisu handia duen sektorea baita. Akitaniako basoak suntsitu egin ziren 1999. eta 2009. urteetako ekaitzen ondorioz, eta "itsas pinuaren" espezie-kopurua erdira jaitsi zen. Bestalde, 2009. urteko ekaitzak nabarmen eragin zien Euskadiko eta Nafarroako baso-ustiapenei ere.

Euroeskualdeak sektorean duen jardueraren adarrek aurrera egin behar dute, Europaren iparraldean onartuta dagoen "baso/egur" eredu berriaren atzetik baitaude.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Hortaz, landu beharreko hainbat ardatz daude:

- Erabilera desberdinetarako dagoen baso-potentziala aztertu behar da: fabrikaziorako zura, birrintzeko zura, zura-zuntza (kimika berdea) eta biomasa (energia-zura).
- Zuraren eskaintza eta basogintza dinamizatu behar dira baso publiko eta pribatuetan.
- Kanpoko merkatuak lortzera ateratzea ordez, tokiko eskaria betetzea.
- Zerrarien garrantzia igotzea Europa osora.
- Zurari eta basoei buruzko Akitaniako eta Euskadiko ikerketa-laboretegien arteko sinergia indartzea, Landutako Basoaren Europako Institutuaren (LBEI) bitartez.
- Xylofutur (Akitaniakoa) eta Habic (Euskadikoa) klusterrak lotzea.
- Biomazaren molekula-produkzioa garatzea (biofindegia, kimika berdea, eta abar).
- Sektoreari buruzko komunikazioa berraztertzea.
- Azkenik, oso garrantzitsua da ikerketarako bitartekoak eskaintzea, Euroeskualdeko basoen inguruan dauden mehatxu ugarien aurrean (ekaitzak, suteak, intsektuak eta txan-piñoiak) prebentzio-estrategia bat egin ahal izateko.

3.3.3. ekintza

Energia berriztagarrien gaineko esperientzien eta ekimenen berri ematea elkarri

Ez eredu teknologikoak, ez eredu ekonomikoak oraindik ez dira egonkortu energia berriztagarrien garapen-prozesuan. Energia berriztagarri horiek aurrerapen-erritmo desberdinak dituzte. Horregatik, bereziki komenigarria da esperientzien emaitzak erkatzea; beti ere, kontuan hartuta bi eskualdeen aurrerapen-aldiak edo -mailak desberdinak direla: Euskadin aurreratuago daude itsas energiaren eta energia eolikoaren alorretan; Akitanian, aitzitik, aurrerapen handiagoa dago baso biomazaren eta biomasa fotovoltaiakoaren (lurrekoa) alorretan. Era berean, Nafarroako 2020rako III. Energia Planaren esparruan, baso-jatorriko biomazaren aldeko apustu irmoa egin du Nafarroako Gobernuak, erabilera termikoetarako.

Testuinguru horretan, honako hauek dira identifikatutako lankidetzaren eremuak.

- Lurreko energia eolikoari dagokionez: I+Ga, industria-teknologia eta biltegiatzea, industria helduen/nitxoen arteko bereizketa, laguntza publikoen inpaktua eta elektrizitatea berreresarearen prezioa.
- Itsas energiei dagokionez: "expertiseko" eskaintza komunak, azterlan ozeanografikoak, ingurumen-arlokoak eta espazioa beste erabilera batzuekin planifikatzea, leku pilotuak jarduteko moduan dauden bezain laster, lankidetzaren teknologikoa material eta sistema integratuetan; operadoreen arteko hitzarmenak. Eremu horretan, balio-katea mugaren bi aldeetan indartu nahi duten, informazioa trukatzeko aukera sustatu nahi duten, itsas energien merkatua handitu nahi duten eta Euroeskualdearen ikusgarritasuna areagotu nahi duten lankidetzaren proiektuak proposatu dira jada.
- Baso-biomazari dagokionez: baso-jabeen elkarrekin arteko lankidetzak egitea, bai kudeaketa-jardunak hobetzeko, bai industria-prozesuen eraginkortasuna eta bero-sare kolektiboaren potentzialtasunak optimizatzeko, eta politika publikoen inpaktua aintzat hartzea.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

- Energia fotovoltaikoari dagokionez: lurreko erabilera-gatazkak neurtzea, materialen eraginkortasuna hobetzea, merkatuaren liberalizazioaren inpaktua neurtzea eta produkzioaren aldizkakotasuna aintzat hartzea.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Lurralde iraunkorra eta garraioa

3.4. jardun-ildoak

TURISMOA SUSTATZEKO EKINTZEN GARAPENA BULTZATZEA, MODU KOORDINATUAN

Esparrua

Turismo-operadore pribatuen Euroeskualdeko ekimenak biderkatu egin dira; gainera, askotan, erakunde publikoen arteko lankidetzak tokiko lehian daude (turismo-bulegoak, esaterako), baina ekimen horiek, oraindik, mugatuak dira eta tokiko kolektibitateen nazioz gaundiko inplikazioa konpartimentuetan banatuta dago, mugako eremuaren kasuan izan ezik. Nolanahi ere, etengabeko lankidetzak esanguratsua garatu da kirol-portuen sarearekin (Euskaquitaine).

Horrenbestez, epe ertaineko denbora-tartean hobetzeko marjinak garrantzitsuak dira.

Helburu orokorra

Turismoa gero eta jardura garrantzitsuagoa da Euroeskualdean, eta, BPGd-aren ehunekoari dagokionez, pisu handiagoa du Akitanian. Duela urte batzuetatik hona mugako kostaldean (Biarritz/Donostia) lankidetzak batzuk egiten diren arren, Euroeskualde-lurralde osora –hiri handiak (Bilbo/Bordele/Iruñea) ere kontuan hartuta– egiten diren bisita orokorrek biderkatu egiten dituzte baterako aukerak.

Deskribapena

Euroeskualdeko turismoak, orokorrean, irudi ona du (batzuetan, baita "elitista" ere), eta ondare-balio indartsuetan oinarritzen da, bai paisaia-arloko balioetan (Pirinioak, Atlantiko-kostaldea), bai arkeologia- nahiz historia-arlokoetan, kultura-arlokoetan (baita museo-grafikoak ere) eta gastronomia-arlokoetan eta mahastizaintzaren eta ardogintzaren arlokoetan ere. Balio horiek guztiak gordetzen jarraitu behar da, kanpoko bezero "helburua" erakartzeko eta bi aldeetako biztanleek beste eskualdera egiten dituzten bisitak biderkatzeko.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

3.4.1. ekintza

Kanpoko merkatuekiko turismo-sustapen komunari ekitea

Euroeskualdean kanpoko merkatuekiko turismo-sustapen komunari ekitea funtsezkoa da. Horixe da gauzatu beharreko lehenengo jarduna, bai Frantziako eta Espainiako beste eskualde batzuetako bezeroak, bai hirugarren herrialdeetako (Europakoak edo urrunagokoak) bezeroak lortze aldera. Ildo horretan, hiru ardatz estrategiko aipatu behar dira:

- Bi eskualdeetako erronka nagusiekin jarraitu behar da. Lehen erronka Atlantikoko itsasertza eta hango bainuetxeguneak (itsasoa eta hondartza), mendebaldeko Pirinioak (mendia eta eskia), bizimoduak eta ohiturak (herriko jaiak, sukaldaritza eta abar) izan daitezke, eta horrek ahalbidetuko du sustapen koordinatua egitea hedabideetan edo profesionalen erakusketetan.
- Ekitaldien erronka (negozio-turismoa eta batzar-turismoa) da bigarrena, eta Euroeskualdeko turismo mota horren gune nagusien artean proposatu daitezkeen sinergietan oinarritzen da.
- Itsas portuei balioa ematea, Euroeskualdera sartzeko ate gisa. Portuek beren estrategia komuna garatzen jarraitu behar dute. Bada, garapen horrek bi ardatz nagusi dauzka: partekatzen duten izaera atlantikoaren gaineko komunikazio ona eta jarduera onak. Horrela, espazio atlantikoan garatzen diren lehentasunekin lerrokatuta egongo dira, berrikuntza-arloari eta ondareari eta baliabide naturalei balioa emateko arloari dagokienez.

3.4.2. ekintza

Euroeskualdean partekatutako turismo-sektoreak eta hurbiltasuneko turismoa bultzatzea

Berlaratzeei buruzko balantzeak erakusten du, euskal Eurohiria eta eski-estazioetako presentzia alde batera utzita, Euroeskualde barruko joan-etorri turistikoak urriak direla proportzioan. Ez zaio etekinik ateratzen elkarrengandik hurbil egoteari, eta, era berean, izugarri igo dira distantzia laburreko egonaldi laburrak; batez ere, turismo-denboralditik kanpo.

Eremu horretan, Donostiaren eta Hendaiaren artean hirugarren erraila abian jarri ondoren, etorkizuneko trenaren jarraitutasunak ondorio handienak ekarri beharko lituzke bisita gurutzetan (hiri nagusien kasuan, behintzat); beti ere, hiri horiek eskualde-trenen bitartez behar bezala konektatuta badaude zuzeneko eta proposatutako egonaldi-eskaintzak erakargarriak badira.

Kirol-portuek ere eginkizun garrantzitsua izango dute: Euroeskualde-lurraldean sartzeko atea direnez, beren estrategia komuna garatzen jarraitu ahal izango dute, beren nortasun atlantikoaren eratzan duten elementuei buruzko komunikazioan oinarrituta. Eremu Atlantikoaren lehentasunetan sartuko dira berrikuntzaren, ondareari balioa ematearen eta natura-baliabideen alorrean.

Bestalde, arlo espezifikoetako buruzko eskaintza tematikoak jarri behar dira berriro abian (esate baterako, enoturismoa eta lotutako arkitektura, surfa, golfa, oinezko ibilalditxoak eta egitura museografiko enblematiko bezain izugarriak –Guggenheim Bilbon, *Civilisations du vin* Bordelen–), gizarte-sareak eta argitalpen espezializatuak oinarri hartuta.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Sarean jartzeak eta tresna digitalekiko koherentziak bermatu behar du lurralde-jarraitasuna izango dela, baita mugikortasuna ere, Euroeskualdearen lurralde-jarraitutasuna aprobetxatuz (adibidez, ItiAqui, txangozaleentzako ibilbideen konponbidea: oinez, bizikletaz, zaldiz, it-sasontziz). Halaber, bi eskualdeek partekatzen dituzten ibilbideei buruzko informazioak kapitalizatu eta partekatu behar dira (hala nola, Done Jakue bidea).

3.4.3. ekintza

Euroeskualdeko prestakuntza profesionala bermatzea turismoarekin lotutako lanbideetan

LLETaren lehentasun bat izango da baterako prestakuntza (hasierakoa nahiz profesionala) indartzea. Lankidetzaren eremuan, turismoari lotutako lanbideetako prestakuntzak dira inplikaturik dauden lehenak, honako hiru arrazoi hauengatik gutxienez:

- Gero eta handiagoak diren eta profesionalek gaur egun betetzen ez dituzten premiak daude tartean sartutako ia lanbide-kategoria guztietan.
- Eleaniztasunaren premia.
- Jada egituratuta dagoen prestakuntza-aparatua edo -sistema dago alde batean edo bestean, eta horrek are gehiago ahalbidetzen du ikastaroak sartzeko (bereziki, enpresetako praktikak), Europaren eta eskualdeko agintarien laguntzarekin (laguntzak etxebizitzarako, garraiorako eta ikasketa-bekak).

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

5.5. Gobernantza

4. jardun-ardatza:

GOBERNANTZA

- **4.1. jardun-ildoak:**
MAILA ASKOTARIKO GOBERNANTZA ETA PROIEKTUEN ARABERAKO KUDEAKETA BULTZATZEA

4.1.1. ekintza: Euroeskualdearen erakundearteko foroa sustatzea

4.1.2. ekintza: Focus groups/lantalde tematikoak sortzea, lankidetzaren proiektuak koordinatzeko eta sustatzeko tresna gisa

4.1.3. ekintza: Ad-hoc talde eragileak sortzea, proiektu zehatzak kudeatzeko

- **4.2. jardun-ildoak:**
EUROESKUALDEAREN IRUDIA ETA PRESENTZIA INDARTZEA

4.2.1. ekintza: Euroeskualdeko LLETaren presentzia indartzea Europan

4.2.2. ekintza: Euroeskualdearen eta LLETaren komunikazio- eta hedapen-ekintzak garatzea: Urteko foroa

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Gobernantza

4.1. jardun-ildoak

MAILA ASKOTARIKO GOBERNANTZA ETA PROIEKTUEN ARABERAKO KUDEA-KETA BULTZATZEA

Esparrua

Gobernantza gobernatzeko artea da, ekonomia-, gizarte- eta erakunde-arloko garapen ekonomiko iraunkorra lortzea helburu duena, erakundeen, gizarte zibilaren eta ekonomiaren merkatuaren artean oreka osasuntsua sustatuz.

Horiek izan ziren, duela hogeita hamar urte inguru, eskualdearteko lankidetzari hasiera ematea bultzatu eta lankidetzak-proiektuak finantzatzeko antzinako Funts Komuna sortzea ahalbidetu zuten helburuak, eta Funts horri esker eman zen, halaber, lehen jauzi kualitatiboa lan-esparru horretan. Bi eskualdeen arteko interesak, helburuak eta osagarritasunak berdinak izateak eragin zuen 2011. urtean LLETa —mugaz gaindiko lankidetzaren garapena sustatzeko eta Europa eraikitzen laguntzeko Europako ad hoc zuzenbide-tresna— sortzea. Azkenik, koherentzia aintzat hartuta, eta elkarrekin lanean hamarkadak eman ondoren sendotutako aurretiko bi urratsak eginda, bi eskualdeek erabaki zuten LLETari (eta, horrenbestez, Euroeskualdeari) lan-dokumentu bat ematea; denborari eta gaiari dagokionez, Europako estrategiarekin bat egiten duen dokumentua, alegia.

Mugaz gaindiko lankidetzan jarduten pixkanaka ikasteko eta jardun hori hobetzeko egindako urrats logikoez gain, lankidetzaz arduratuko den erakundea "antolatu" behar da, bakoitzaren eskumenak errespetatzeko (subsidiarotasunaren printzipioarekin bat etorritik) eta finantzaketa-eremuen nahiz garatu beharreko ekintzen ahalik eta eraginkortasun eta inpaktu handiena lortzeko. Erakundeen baterako lanarekin eta inguruneke agenteekin lortuko da soilik balio erantsia sortzea, proiektu egituratzaileak babestuz.

Helburu orokorra

Bere Erregelamenduan nahiz Egiturazko Funtsetan aitortutako LLETen potentzialtasunen artean dago "maila askotariko gobernantzarako Laborategia" izatea, eta horrek, hain zuzen ere, subsidiarotasunaren printzipioa errealitate bihurtzeaz gain, Europa "behetik gora" eraikitzen laguntzen du. Potentzialtasun hori errealitate bihurtzea da, hain zuzen ere, Plan Estrategiko honen helburuetako bat.

Horregatik, eta Eskualdeen Batzordearen Gobernantza Gutunari berriro helduz, eraginkortasun politikoa, politiken koherentzia eta gobernantza-maila guztien arteko aurrekontu-sinergiak sustatzearen alde lan egin behar dugu; era berean, sareak ezarri behar ditugu gure organo politikoaren eta administrazio publikoaren artean, tokian tokiko mailatik hasita Europaraino eta alderantziz, nazioz gaindiko lankidetzak indartuz aldi berean. Hortaz, eta Akitania-Euskadi LLETak orain arte egin duen bezala, eskari horri eta gobernantza irekiko premia horri erantzunez, herritarrarekin eta herritarrarentzat lan egin behar da.

Zirkulu zentrokideetatik (hurbiltasunekoak lehenik —tokiko garapen-agentziak, udalak—, mankomunitatekoak, probintziakoak eta sailekoak ondoren, eta eskualde-mailakoak azkenik) sortzen diren lankidetzak-aukerak oinarri hartuta ezarri da maila askotariko muga, zeinetan berriazko erakundeek eskumenak dituzten. "Lankidetzak-kate hori" elkartzea eta antolatzea da LLETaren helburu nagusietako bat.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

Gobernantza

4.1. jardun-ildoak

MAILA ASKOTARIKO GOBERNANTZA ETA PROIEKTUEN ARABERAKO KUDEAKETA BULTZATZEA

Beste LLET batzuekiko harremanek eskain ditzaketen aukerak ere kontuan izan behar dira; izan ere, LLET horien estatus juridikoak biderkatu egiten ditu Europako finantzaketa-esparruan lankidetzan jarduteko aukerak.

Deskribapena

Euroeskualdearen jarduna datozen urteetan gidatuko duten esku hartzeko lehentasunezko arloak ezartzen ditu Plan Estrategiko honek. Jardun-eremu horiek honako elementu hauek batzen dituzte:

- askotariko helburuak (dimentsio eta masa kritikoa irabaztea Europan kontuan har dadin, merkatu berriak lortzea, osagarritasunak aprobetxatzea, kate-begiak txertatzea produktuen/prozesuen balio-kateetan, jakintza partekatzea, nortasuna sortzea edo sendotzea eta abar),
- eginkizun edo rol oso desberdinak daude (lidergoa egikaritzea, tartean sartutako eragileak koordinatzea, animatzea, ahalbidetzea, finantzatzea, hedatzea eta emaitzak ebaluatzea eta abar),
- geografia-eremu aldakorrei dagozkienak (hurbiltasuneko lankidetzak, eskualdeko lankidetzak),
- eta erakunde eta eragile publiko multzo zabal eta heterogeneoa eraginpean hartzen dutenak (Partzuergoa, Eurohiria, CTPa, bestelako euroeskualdeak eta eragile pribatuak).

Estrategia honek Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko bazkideak lotzen ditu, logikoki. Nolanahi ere, tartean dauden hiru eskualdeetako eragile askorekin egindako gogoeta-prozesu baten ondorioa denez gero, mugaz gaindiko lankidetzan inplikaturako gainerako erakundeei eta, bereziki, hurbiltasuneko lankidetzan inplikaturakoei zuzenduta dago Estrategia. Ildo horretan, erakunde horiek beren borondatez eta dagozkien eskumenetatik abiatuta Estrategia honetan identifikaturako helburuak lortzen lagundu dezaten, Gogoeta Foro bat jarriko da abian Estrategiaren indarraldian. Foro hori urtean behin bilduko da gutxienez, eta mugaz gaindiko eta hurbiltasuneko lankidetzan inplikaturako erakundeak gonbidatuko dira parte hartzera. Foroa, nolanahi ere, topagune eta informazioa trukatzeko gune izango da.

Hortaz, lankidetzaren egoeraren konplexutasunak eskatzen du gobernantza eraginkorra eta pragmatikoa izatea. Maila askotariko gobernantza irekia beharrezkoa eta egokia da; izan ere, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea LLETak bere egiten ditu Europako Maila Askotariko Gobernantzari buruzko Gutunaren hitzaurrean bildutako gaiak:

- "Elkartean elkarrekin lan egiteko" premia dagoela onartzen du, ekonomia-, gizarte- eta lurralde-arloko kohesio handiagoa lortzeari eta heritarren premia eta arazoei hobeto erantzuteari begira; horretarako, ordea, lankidetzak handiagoa egon behar da, eta baterako proiektuak garatu behar dira.
- Suposatzen da aukera handiak daudela lankidetzak politiko eta administratibo berritzailea eta eraginkorra indartzeko, esku hartzen duen erakunde edo maila bakoitzaren eskumenak eta erantzukizunak aintzat hartuta.
- Akitaniako eta Euskadiko eragile sozial eta ekonomikoen artean elkarrekintza ugari sustatu nahi ditu, elkarrekiko ikaskuntza, konponbide politiko berritzaileen esperientziazioa eta jardunbide egokiak bateratzea sustatuz.

5. Euroeskualdearen estrategiaren eguneratzea

4.1.1. ekintza

